

- 322 Askoren artean
Roman Maiz, Okelar bertsolaria
- 323 Inaziomari Atxukarro
Irriparrezko printzak
- 324 Antonio Zavala
Bilboko gabon-kantak (1755-1832)
- 325 Xanti Zabala, Lexo
Udaberriz
- 326 Joxemari Iriondo
Xalbadorren itzalean. Hamar urte
- 327 Joxemari Iriondo
Basarri. Zarauzko berriak 1931-1936
- 328 Joxemari Iriondo
Basarri. Gerraurrean kazetari 1931-1935
- 329 Joxemari Iriondo
Basarri. Gerratean kazetari 1936-1943
- 330 Joxe Mari Otermin
Fernando Amezketarra 1764-2014
- 331 Mikel Atxaga
Joxinixio gudaria



Gure aurrekoek gerra egin zutenik ere ozta-ozta dakigu. Zaurituak, elbarrituak, hildakoak, espetxeratuak, atzerriratuak, osasuna, ondasunak eta lanbideak galdutakoak izan direnik doi-doi dakigu. Hiltzaileek, mendekatzaileek, salartariek eta lapurrek ez barkamenik eskatu zuten eta ez zigorrik jasan.

Gurasoek ez ziguten seme-alaboi ezer kontatu, ahaztu beharreko oker bat egin balute bezala. Berrogei urteko diktaduraren ondotik ere lehen-go kontu guztiak isilik gordetzea erabaki zen, demokraziaren on beharrez. Gertatua arakatzea eta aztertzea baino nahiago izan da ezkutuan uztea.

Anaiak anaien kontra, auzoak auzoen kontra, herritarrak herritarren kontra eta katolikoak katolikoek kontra gerra egitera behartzen direnean, egoera ankerrak, negargarriak, gorrotagarriak eta, aldi berean, hunkigarriak ere gertatzen dira. Kontaera xume eta labur honek egoera horiek azalaraztea du helburu. Horretarako, baserritar xume bat aukeratu dut. Armarik hartzerik eta militar izaterik sekula bururatu ez zaion bat.


Mikel Atxaga

331

Joxinixio gudaria

Mikel Atxaga

Joxinixio gudaria



Mikel Atxaga

(Urnieta, 1932 – Donostia, 2009)

Zeruko Argian 1963an, eta 1970etik aurrera: albistari, erreportari, argazkilaria, editorialgile eta benetako zuzendari. *Deia* egunkarian (1977), Martin Ugaldek deituta, kazetari-ibilibidea osatuz, 2006an erretiroa hartu arte.

Liburuak: *Gaztetxo* (1963), *Ezkontza bidean* (1968), *Deiadarra* (1993), *EAJ eta euskara. Ehun urteko bide malkartsua* (1996), *Gerra aurreko eta ondoko euskalgintza* (1998). *Bidegileak* bilduman: *Xalbador, Euskal emakume idazleak (1908-1936)* eta *Sabino Arana*.

Hainbat itzulpen. Azkenekoa, J. A. Pagolaren *Jesus, hurbilketa historikoa* (2009).

Rikardo Arregi saria (1998). *Argiaren Merezimenduzko saria* (2009).

Euskaltzain urgazle (1975); Euskarearen Aholku Batzordeko, EIZIEren oho-rezko bazkide (2002). *Bidegileak* sailaren zuzendari (1994-2009). *Mikel Atxaga bidegilea* liburua eskaini zion Jaur-laritzak omenaldi gisa, bere artikuluen antologia batekin (2009).



Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentua
Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes



Mikel Atxaga



Mikel Atxaga

Joxinixio gudaria



Mikel Atxaga

Joxinixio gudaria

Auspoa Liburutegia
331

ATXAGA, Mikel (1932-2009)

Joxinixio gudaria / Mikel Atxaga ; [hitzaurrea, Elixabete Garmendia]. - [S.l.] : Auspoa ; Donostia/San Sebastián : Gipuzkoako Foru Aldundia, Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentua, 2015.

126 or. : argk. ; 20 cm. - (Auspoa Liburutegia ; 331)

Aurkibidea

LG SS 1028-2015. - ISBN 978-84-7907-735-8

I. Garmendia Lasa, Elixabete (1953-). II. Gipuzkoa. Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes. III. Izenburua. IV. Saila.

821.361-31"20"

Azaleko argazkiak: © Sabino Arana Fundazioa

Barruko argazkiak:

22 eta 42. orrialdeetakoak: Jesús Elósegui Irazusta argazki-artxiboa.
Aranzadi Zientzia Elkarte

58, 76 eta 82. orrialdeetakoak: © Sabino Arana Fundazioa

98. orrialdekoa: Koldo Mitxelena Elissalt funtsa. Gipuzkoako Foru Aldundia

Egilea: Mikel Atxaga

Edizio-lanak: Joxemari Iriondo

Zuzenketak: Pello Esnal

© Edizio honena: AUSPOA Argitaletxea
Gipuzkoako Foru Aldundia

400 aleko tirada

ISBN: 978-84-7907-735-8

Legezko Gordailua: SS-1028-2015

Maketazioa eta azala: Imanol Tapia

Inprimatzailea: Leitzaran Grafikak, S. L., Gudarien etorbidea, 8.

Andoain (Gipuzkoa)

Mikel Atxaga

Joxinixio gudaria



Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentua
Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes

Donostia/San Sebastián, 2015

Aurkibidea

Mikel Atxagaren azken dohaintza.....	9
Atarikoa.....	13

JOXINIXIO GUDARIA

I	17
II	23
III	29
IV	35
V	43
VI	49
VII	59
VIII	69
IX	77
X	83
XI	95
XII	99
XIII	103
XIV	111
XV	113
XVI	121
XVII	125

Mikel Atxagaren azken dohaintza

Ezustean harrapatu nau Mikel Atxagaren *Joxinixio* nobelak. Ezustean erabat, ez baitut gogoratzen 2009ko otsaillean *Mikel Atxaga bidegilea* libururako Mikelekin berarekin egin nituen elkarrizketa saioetan aipatu zidanik. Ezustean harrapatu arren, ez zait batere arrotza gertatu idatzia: alderantziz.

Nobelaren protagonista Joxinixio Etxeberria da, Andoaingo Merdilegi –edo Merdiladi– baserriko semea: bertsolaria, txapelketetan ibili ohi zena, eta 1936an herri mailakoa irabazitakoa; erlijiozalea eta zintzoa; gerra zibilean Itxarkundia batailoian gudari ibilitakoa... Patxi Etxeberria –nobelan, *Praixku*– euskaltzale eta idazlea zuen anai-arrebetan zaharrena.

Patxi Etxeberriari buruzko *Bidegileak* saileko liburuxkarako ere, elkarrekin ibili ginen Mikel eta biok –2000ko udaberrian izango zen– Andoaingo Goiburu auzoan, Merdilegi baserria ezagutu eta argazkiak ateratzen. Benita Etxeberria izan genuen gidari, Etxeberria Tolosa senideetan gazteena. Berak kontatu zigun, beste istorio askoren artean, nola –gerra hasi zenean– belar metan gorde zituzten etxezoek Patxiren kaliza eta 1933ko Olerti Eguneko lan sarituak biltzen zituen liburua: kaliza, *gorrien* beldurrez ezkutatu zuten; liburua, nazionalen beldurrez.

Patxi Etxeberria Txinan zen ordurako, misiolari josulagunekin; baina gerra aurretik, Pizkunde betean, nabarmen ibilia zen euskal giroetan: *Argia* astekariko zuzendaria izan zen 1929-30 bitartean, eta *Bost lore* izeneko poemarekin Olerti Eguneko sari nagusia irabazi zuen 1933ko uztailean, Urretxun. Etxeberriatarrak euskaltzale eta abertzale modura markatuta zeuden Andoainen. Patxik,

urteak aurrera joanda ere, aitortzen zuen Txinan egoteak salbatu zuela heriotza zigorretik; eta aldi berean, errezero bat geratu zitzaion, ezabaezin: anaiari etorri ote zitzaion mendekua.

Zume horiekin josita dago Mikelen nobelaren mamia, eta testuingurua ere –tokiak, gertakizunak, pertsonaiak...– garaiko errealitatekin bildutakoekin dauka marraztuta.

Mikel Atxagak 2004ko uztailaren 18an sinatu zuen nobelaren “Atarikoa”, hau da, gerra hasi zenetik 68 urte betetzen ziren egunean. Berak, ordea, “gudari guztien oho-retan eta oroitzapenetan”, beste hau zeukan gogoan: Kandido Saseta (Hondarribia, 1904 – Asturias, 1937) gudalburua jaio zeneko mendeurrena.

Atarikoan, obra honen asmo, zergati eta nondik nora-koak azaltzen ditu Mikelek. Joxinixioren istorioa berregin eta kontatzean, bide batez, bere mundu eta izaeratik asko jarri zuen Atxagak: Andoaingo Merdiladi berdin-berdin izan zitekeen Urnietako Etxabalzar baserria, Mikelen jaiotetxea; hango biztanleen bizimodua eta ibilerak narratzen dituenean, etxean ezagututakoak berritzen ditu idazleak; Joxinixio bertsolariak Atxaga bertsozalea du oihartzun...

Bada diferentzia bat etxeberriatarren eta atxagatarren artean: lehenengoak abertzale gisa ezagutuak ziren Andoainen; atxagatarrekin, baina, ez zen gauza bera gertatzen Urnietan. Mikelek berak esana da: “Irabazleen aldekotzat jo izan dute gure familia beti”. Eta, hala ere, “nik banekien, txikitatik, abertzalea nintzela” zioen. Abertzalea senez, gerra osteko ilunpean. Eta ez hori bakarrik: irabazleen aldekotzat jotzen zen familian, galtzaileenganako enpatia hazi zitzaion Mikeli, betiko: “Erraz elkartzan naiz galtzaileekin. Beti. Baita frontoian ere”. Jarrera horren emaitza da nobela hau.

Bigarren liburu postumoa du Atxagak *Joxinixio*; izan ere, gutxiगतik ez zuen ezagutu kalean *Jesus, hurbilketa*

historikoa (Idatz, 2009), Jose Antonio Pagolaren obrari egin zion itzulpena. Bizitzan lehenengoa, berriz, *Zeruko Argian* idazten hasi zen urte berean (1963) argitaratu zuen: *Gaztetxo*. 2006an despeditu zen artikuluak idaztetik *Deian*. Berrogeita hiru urte horietan zenbat elkarrizketa, erreportaje, editorial eta artikulu –tarteetan, liburuak– argitaratu ote zituen, berak ere ez zekien esaten. Aitortzen zuen, hori bai, idaztea betidanik zuela gustuko; idaztea, eta eskulana.

Hamabi urterekin baserritik irten eta Donostiara joan zen, apaizgintzarako bidean abiatzeko; apaiz-langilea izan zen Mikel 1960ko hamarkadan, baina ez zen fabrikako behargina izan: Aizarnan baserritarren kooperatiba sortu eta haiei laguntzen ibiltzen zen; Usurbilen, berriz, nekazaritza kooperatiban egin zuen lan. Gerora, Lasarteko eta Donostiako kalera aldatu arren, ez zion sekula uko egin baserritar izateari; areago, aldarrikatu egiten zuen izaera hori, nobelan bertan ageri den bezala.

Joxinixio nobela hau Mikel Atxagaren ideologia eta aldarrikapenen ispilua da. Dohaintzan utzitako azken lana.

Elixabete Garmendia
2015eko maiatza

Atarikoa

Misil adimendunei esker, norbere soldadurik eta erasotako lurraldeetako herritarrik hil gabe egin zitekeela gerra sinestarazi nahi izan ziguten Kuwaiten. Hori ez dela egia erakutsi digu Irakek. Hor ikusten da gerra zeinen zentzugabea eta ankerra den. Urruti dagoelako ez gaitu izutzen eta errukitzen. Eta gerrarik jasan ez dugunok, eta gehienok ez dugu ezagutu ere, ez gara behar bezala jabetzeko gai. Gure aurrekoek gerra egin zutenik ere ozta-ozta dakigu. Zaurituak, elbarrituak, hildakoak, espetxeratuak, atzerriratuak, osasuna, ondasunak eta lanbideak galdutakoak izan direnik doi-doi dakigu. Hiltzaileek, mendekatzaileek, salatariek eta lapurrek ez barkamenik eskatu zuten eta ez zigorrik jasan.

Gurasoek ez ziguten seme-alaboi ezer kontatu, ahaztu beharreko oker bat egin balute bezala. Berrogei urteko diktaduraren ondotik ere lehengo kontu guztiak isilik gordeztea erabaki zen, demokraziaren on beharrez. Gertatua arakatzea eta aztertzea baino nahiago izan da ezkutuan uztea.

Anaiak anaien kontra, auzoak auzoen kontra, herritarrak herritarren kontra eta katolikoak katolikoek kontra gerra egitera behartzen direnean, egoera ankerrak, negargarriak, gorrotagarriak eta, aldi berean, hunkigarriak ere gertatzen dira. Kontaera xume eta labur honek egoera horiek azalaraztea du helburu. Horretarako, baserritar xume bat aukeratu dut. Armarik hartzerik eta militar izaterik sekula bururatu ez zaion bat.

Baserritar bat, euskaldun bat, bertsolari bat hautatu dut, euskararen eta euskalgintzaren kontrako gerra ere izan baitzen. Langile bat, sindikatu batean buru-belarri dabilen bat edo iraultzaile gorri bortitz bat aukera nezakeen, asko baitira, Euskadiren alde ez ezik, askatasunaren, berdintasunaren eta demokraziaren alde bizia emandakoak.

Hego Euskadin fusilatua, 22.780; espetxeratuak, 34.880; atzerriratuak, 150.000; zigor-esparruetan eta behartutako lanetan ibilitakoak, 52.000; gudan hildakoak, 73.550. Asko, ezta? Gehiago direla baiesten duenik ere bada.

Bada non aukeratua, beraz. Baina baserriko mutil kristau bat berexi dut: Joxinixio Etxeberría, Jainkoaren eta Elizaren alde gerra sutu zutenen gezurra nabarmenago gerta dadin. Badakit 1936ko bizimodu hura, baserrikoa batez ere, oso arrotz zaiela gaurko gazteei, eta hiztegi alde-tik ere sortuko zaiela eragozpenik. Hala ere, neke handirik gabe uler dezaketela uste dut.

Euskarazkoak dira erabili ditudan liburuak: Iñaki Alkainen *Gerrateko ibilerak*, (Auspoa 148, 149, 150); Jose Azpirozen *Gogoz kontrako pausoak* (Auspoa 203); Andoni Basterretxearen *Ene Ondarru* (Auspoa 270); Euskerazaintzako 36'ko *gudaldian su-izkillatutako idazle gazteak*; Elixabete Garmendiaren *Patxi Etxeberría* (Bidegileak); *Patxi Etxeberría: Lan Hautatuak* (Egan-Hiria); Tomas Gerriagoitiaren *Arantza eta larrosa* (Auspoa 269); Txomin Jakakortaxarenaren *Bizitzan bi goiasmo*; Xabier Lasaren *Gerra zibila andoaindarren begietatik*; Sebastian Salaberriaren *Neronek tirako nizkin* (Auspoa 28); eta *Yakintza* aldizkaria.

Euskaldunek kontatutako historian oinarritzen da, beraz, lan xume eta labur hau. Eta ezaguna suertatuko zaio pasarte bat baino gehiago gainera irakurleari. Bistakoa denez, gertaerak tokiz eta denboraz aldatuak, birmoldatuak eta iruditua daude kontraera honetan. Gudari guztien ohoretan eta oroitzapenetan egina da, Eusko Gudarostea antolatua eta euskotarren alde bizia eman zuen Kandido Saseta militar komandante hondarribiarraren jaiotzako mendeurrenean.

Donostia, 2004ko uztailaren 18an.

Joxinixio gudaria

I

Presaka da Joxinixio. Bihar igandea da, eta Merdilladin ez da behirik uztartzen. Angelusa entzun eta errezatu bezain azkar, eguerdiko 12etan, egin du bazkari-legea bere senide batzuekin. Ondoren, azken besakada belarra bota die tresabira ukuiluko ganaduei. Azpiak ere egin dizkie garo goxoaren gainean etzan daitezen. Hartu ditu sega, ingudea, mailua eta zakua. Ez dago ohean siesta egiteko betarik. Atariko gerezi-arbolaren azpian zabaldu du zakua, gainean etzan eta lo kuluxka ttikia egiteko. Begiak erdi itxiak dituenean, erbia iruditu zaio arto artetik zelatan. “Ezinezkoa duk”, esan dio bere buruari. Erbiak ilunabarean ateratzen baitira jatera. Hobeto ikusteko burua jasotzen hasi orduko, tximistan ezkutatu zaio. “Untxiren bat izango zuan”, pentsatu du. Eta lo hartu seko, ipar-haize ederrak aurpegia maitekiro ferekatzen diola.

Ametsetan ari da Joxinixio. Amets gaizto bat ere egin du. Gerra hasi dela. Eta Txirritaren bertsoa ari da kantatzen:

Zenbat errezo egin izan det
nere denboran elizan,
ta pozik nago ikusirikan
pakian nola gabiltzan.
Ni naizen bezin kobarderikan
iñor ezin leike izan.
Semeak gerra ez joateagatik
mutilzar gelditu nintzan.

Bertsozale amorratua eta bertsolari egokia ere bada Joxinixio Etxeberria. *Argia* astekariko bertso guztiak irakurtzen, kantatzen eta gordetzen ditu. Txinan misiolari

dabilen Praixku bere anaiak, aita Patxi Etxeberria jesulagunak, 1933ko uztailaren 16an, Urretxun Iparragirreren omenez ospatutako Olerki Egunean lehen saria irabazi zuten *Bost lore* izeneko olerkiak ia buruz dakizki. Txinatik bidaltzen dizkion bertsoak ere gogoan hartu ohi ditu, haien harira bere gisa berriak moldatzeko.

Patxik euskaltzaletu eta bertsozaletu zuen Joxinixio mutikotatik. Senideetan bosgarrena denez, Patxi baino hamalau bat urte gazteagoa baita. Eta beretzat eredu ere bada, zaharrena izateaz gainera, ikasiena eta jakintsuena ere Praixku denez. Baina egun gogoangarri bat suertatu zitzaion Joxinixiori, Andoainen 1929ko irailaren 21ean: haur euskaldunen eguna egin zen, lehendabizikoz, Larramendi handiaren omenez. Hirurehun bat neska-mutiko bildu ziren egun hartan Andoainen. Txistulari, dantzari, pilotari eta abar, jai ederra egin zuten. Irakurketa-idazketa lehiaketarik ere egin zen. Aietekoak, Leitzakoak eta Ezkio-tik Patxi Etxeberriak ekarri zituenak nabarmendu ziren.

Ume haien ausartziak plazaratzeko tentazioa gehituzion Joxinixiori. Eta lehen aukeran plazaratu ere, 1936ko bertsolari-txapelketarako saioetan. Andoainen aurrena, eta Tolosan hurrena, 1935eko abenduaren azken igandean, batzokiko pilotalekuan. Asteasuko Ondartza, Pantxo eta Txapartegi, Irurako Moxo, Ibarako Ezeiza, Amasako Ugartemendia, Errenteriako Lujanbio eta Hernani-Altzako Txirritarekin neurtu zen Joxinixio Etxeberria egun hartan. Txirritaren ondotik, bigarren saria irabazi zuen Merdilladiko mutilak. Eta hauxe idatzi zuen *Yakintza* aldizkarian Joseba Zubimendik: “Lenengo mailla onetan agertu zitzaigun bertsolari berri on bat, Andoaingoa bera: Etxeberria gaztea”.

Bat-batean jai-bezperako kanpai handiek esnatu dute gerrako amesgaiztoak izerdi larritan daukan Joxinixio. Ohi bezala, arratsaldeko ordu bietan hasi dira dinbili-danbala

dorreko kanpaiak. Aurrena, Andoaingoak. Ondoren, Sorabillakoak, minutu bat atzerago baitago aspaldian Sorabillako erlojua. Adunakoak ere entzun ohi dira, mendebalak jotzen duenean, batez ere. Bista zoragarriak daude Merdilladi baseritik: Sorabilla, aurrez aurre; Aduna, ezker aldera; Andoain, eskuinera. Gorantz begiratuta, Aizkorri Txiki, Onddi, Adarra eta Belabiko gainak. Zenbat aldiz errepikatu ote du Joxinixiok bere anaia Praixkuren hura:

Ene, Belabi-mendi,
ezin nik zu aantzi!
Garagarril goiz batez
eguras naiean,
muñoz-muño nabilzu
zure belarrean.
Leizaran egiz eder
zure oin aurrean;
txit mardul dago Izadi
ain egal ezean.

Gaur ez dabil gerezi-arbolaren gainean txoririk eta zozorik. Ez baitago alerik. Izan ere, larri ziren denak jan arte. Egunsentirako han hasten baitziren, moko eta moko. Saiazen ziren, bada, Merdilladiko gazteak heldu samartu guztiak biltzen. Baina hain arbola handian ezin adar-punta askotara iritsi. Eta han ziren egun-argiarekin batera inguruko zozo eta txori guztiak, nahikoa jandakoan adarraren puntan kantari, Merdilladiko bizidun guztiak esnatu nahian. Santio sagarraren inguruan zebiltzan orain, lurrera eroritako erdi ustelei eta bertaratutako xinaurriei mokoka.

Nagi batzuk atera eta sega-pikan hasteko asmotan da Joxinixio. Etzateko zabalik zegoen zakua tolesturan bildu eta gainean eseri da. Sartu du ingudea hegaletan dauzkan bi belarrietan, mailuarekin joz. Hartu du eskuetan sega.

Eta, burua pixka bat jaso duenean, han ikusi du bere ama Maria Bautista astoarekin Tolosako azokatik etxera. Bi dozena arrautza, sei oilasko-oilanda pare eta otarrakada bat Santio sagar eraman ditu.

Gehienetan Donostiako Bretxara joan ohi da Merdilladiko etxeoandrea, Praixku eta Erramuna seme-alabak Donostian bizi zirenean, batez ere. *Argia* astekariko zuzendari egin zutenean Donostian bizitzera behartua baitzegoen Patxi Etxeberria, bere arreba Erramuna etxeoandre zuela. Baina 1936ko uztailaren 17 hartan Tolosara joan zen Maria Bautista, hiru ttikientzat oinetakoak eta soineko eta galtzak erostearren. Ixabel, Benita eta Prontxiorrentzat, hain zuzen.

Eta eramandakoak saltzen eta zapatari eta dendetako erosketak egiten, eta harategitik familia handi harentzat xerrada batzuk eta igandeko garbantzuei nahasteko okela pixka bat hartzen denbora joan zitzaion. Arratsaldeko ordu biak jota zetorren Maria Bautista San Estebango al-dapan gora, astoari otarretatik helduta, Tolosan entzun zuen albiste txarra burutik ezin kendurik.

Merdilladiko atarira triste iritsi da. Ez da Joxinixiori begiratzen ere ausartzen.

–Zer duzu, ama? –galdetu dio Joxinixiok–. Ez al zaude ondo? Zerbait gertatu al zaizu azokan?

Malkoz bete zitzaizkion begiak Maria Bautistari. Bete-bete harrapatuko baitzion gerrak Joxinixio.

–Gerra hasi dela esan zidatek Tolosan.

Lehentxeago egin zuen amets gaiztoaz gogoratu zen Joxinixio.

–Beno, ama, militar horiek beti erronkan ari dira, baina koldarregiak dira kolpe bat jotzeko –erantzun zion amari, lasaitzeko, nahiz eta barruan harra zitzaka hasi.

Eta, kezkarik ez balu bezala, azokako eta Tolosako berrien jakin-mina azaldu zion amari.

Horretan dihardutela, laster agertu dira zerbaiten esperoan dauden Ixabel eta Benita pertxentak, eta Prontxio txiki jostailua. Haien poza, oinetako, soineko eta galtza berriak ikusi dituztenean!

Higinio Etxeberria, aita, hil zela urte pare bat bada. Martin eta Luzia kanpora ezkondurik dira. Joan Mari lanera joana da, Iberduerora. Baina egun gogoangarri hartan Merdilladira etorriak daude kanpora ezkonduak ere: Martin zurrungaz lo dago alboko gelan; Luzia, berriz, sukaldetan, Erramunarekin berritsukerian. Eta ama barrura sartu da, flakiak jota baitago, goizeko kafea eta uxuala hanka-puntetaraino jaitsi zaizkionez.

Joxinixio sega-pikan hasi da. Sarri alde egiten dio segak ingudearen gainetik, dardaraz baitauzka eskuak, amets gaiztoa egia bihurtuko ote den beldurrez. Ona da sega zorrozten, baina gaur titi galantak atera dizkio, batean huts eta bestean irrist. Euri beldurrez txorroketan pilaturik zeuzkan belarrak zabalduta utzi ditu eguarterean, eguzkiak ihintza xukatu duenean. Orain bueltatxo bat eman nahi lieke. Ixabelek, Benitak eta Prontxiok, ordea, nahiago dute jantzi berriak probatu eta ispilu aurrean beren buruei begiratu.

Halako batean, Prontxiok jarraitu dio, eta geroago, ia erdiak jirata dituztenean, Benita azaldu zaie. Eguzkiak hala jotzen duela laster dira metarako prest. Eta horixe nahi du Joxinixiok. Iganderako ez du ezer utzi nahi. Arratsalde hartan bada Merdilladin belar ondu hura bildu eta meta bat egiteko adina indar. Meta garaiz bukatu eta gaurko eta biharko ganadu-jatenak egin nahi ditu, lehenbailehen. Batzokiko lagunekin eta Paulo Egibar alkatearekin hitz egin nahi luke kalera jaitzita.



Hizketan, Aitzol. Atzean, bertsolariak (ezkerretik hasita): Txirrita, Saiburu, Ugartemendia, Ezeiza, Moxo, Etxeberria (eleberriko protagonista), Txapartgi, Pantxo eta Ondartza. Tolosako batzokian, bertsolari-txapelketako saioan, 1935eko abenduaren 29an. Jesús Elósegui Irazusta argazki-artxiboa Aranzadi Zientzia Elkartea

II

Joxinixiok ezin du gerra kontu hori burutik kendu, esnaturik ere ez dio amets gaiztoak bakerik ematen. Bakeza-leak dira Merdilladin. Beldur diote gerrari. Askotan entzun zion Praixku anaia apaizari:

–Gerrarik onena baino hobea duk bakerik txarrena.

Gogoan du San Sebastian egunez Donostiako Victoria Eugenia antzokian Basarrik jarritako gaia: “Gerra zitelen ondoren txarrak”. Eta gogoan du egun hartan kantatutako bertsoaren zati bat ere:

Andik etorri ziran kalteak
ezagaturik ugari,
galde bestela seme kutunak
falta dituzten amari.

Ez du Joxinixiok gerrarako grinarik. Batzokian ere ez du horretarako berotasunik aurkitu. Jeltzaleek ez dute, karlistek bezala, mendirako joerarik. Bakea, demokrazia eta askatasuna dira, besteak beste, Eusko Alderdi Jeltzalearen helburuak. Euskara eta euskal kultura indartu nahi baldin badira beharrezkoak baitira, gainera, giro la-saia eta askatasuna.

Ez dakite “el día 17 a las 17” mezuaren berririk. Are gutxiago, egun horretan Bartomeu teniente koronelak, berrogeita hamar soldadu, turuta eta danborrak lagun, gerra-legearen bandoa jo duela, Francoren izenean, Melillako kaleetan. Baita, ondoren, Tetuan eta Ceutako karriketan ere. Franco, hegazkina hartu eta Kanarietan barrena Pe-nintsulara dator hurrengo egunean. Berarekin bat datoz militar-buru nagusiak: Mola, Sanjurjo, Queipo de Llano, Cavanellas, Saliquet, Fanjul, Goded, Orgaz, Quindelan,

Dávila, Ponte, Varela eta abar. Eta Afrikakoak, jakina: Solans, Bartomeu, Gazapo, Segui, Yagüe, Sáenz de Buruaga, Yuste, Juan Bautista Sánchez, Beigbeder, Asensio Cavnillas eta Ríos Capape.

Eta Espainiako alde askotan, nekazari-herrietan batez ere, Francoren gerra-aldarriari jarraitu diote hurrengo egunean. Araban eta Nafarroan, adibidez, uztailaren 19rako nagusi samar dira. Donostian eta Bilbon, berriz, porrot egin du jazarraldiak, elkartasun eta ausartziarik ezaz eta demokraziaren aldekoen ekimenez. Loiolako soldadu gehienak Donostiatik beren etxeetara joanak dira. Leoncio Carrasco Amilibia koronela Francoren alde nabarmendu arren, Pérez Garmendia, ordea, Errepublikaren aldekoa da, baita Artola Goikoetxea Gipuzkoako gobernadorea ere.

Andoainen, Zumea kalean dute beren egoitza ezkertiarrek. Basteron, karlistek. Kale Berria da abertzaleen topalekua. Han biltzen dira Eusko Gaztedikoak, Mendigoizaleak, Euskal Abertzale Ekintzakoak, Emakume Abertzale Batzakoak, EAJkoak, ELAkoak eta abar. Batzokia da, batez ere, jendea argitzen eta mugimendua sortzen duena. Herriko bihotza dela esan dezakegu. Hor burubideratzen dira euskararen, kulturaren eta herrigintzaren aldeko ekinbide gehienak.

Baserrian libratzea ez da erraza, uda partean batez ere, baina larunbat-igandeetan bederen batzokirako bidea hartu ohi du Joxinixiok. Gaur, nahitaez, joan behar du. Baserriko lanak bukatu, afari-legea egin, galtza eta alkandora garbiak jantzi eta abailan joan da maldan behera, batzokian ahal zituen lagunik gehienak harrapatzeko irrikaz.

Gaueko hamarrak dira. Bete-betea dago. Han daude bere lagunak, eta han daude alderdiko eta herriko agintari abertzaleak ere: Paulo Egibar, Ebaristo Barriola, Luxiano Pastor Añibarro, Antonio Lopez de Guereño, Pello Ugalde,

Primo Irulegi eta beste jeltzale asko. Sekulako burrunba entzuten da. Dozena bat irrati besterik ez da Andoain guztian, baina sua bezala zabaldu da herri osoan gerra-albiste. Eta batzokira sartzen den bakoitzak albiste beldurgarri horren berri ematen du, hari eta honi entzundako esamesak eta ñabardurak erantsita. Berotzen ari da barruko giroa. Baina ez dute sinetsi nahi.

–Lehen ere askotan izan dituk horrelako zurrumuruak –lasaitu nahi dituzte beren buruak.

Dena den, badaezpada ere, argi eta kontuz ibiltzearen aldeko, eta herriko bakeari eusteko iritzia gailendu da. Herrian ez da ezkertiar iraultzaile bortitz handirik, baina kanpotik CNT-FAIkoak eta abar, pistolak eskuetan, azaldu daitezke, eskuinekoak eta elizgizonak astindu nahian. Herrian ordenari eta bakeari eusteko batzorderen bat edo talderen bat osatu beharra ere aipatu da. Paulo Egibar herriko alkate jeltzaleari eginkizun horretan alderdiak laguntzea beharrezkoa baita. Eta Francoren jazarraldiak aurrera egingo balu, askatasunaren, demokraziaren eta Euskadiren alde jokatu beharra ere nabarmendu da. Baina egoera hobeto argitu arte itxarotea erabaki dute. Gutxienez, Nafarroako erreketek Gipuzkoarantz abiatzen diren ala ez ikusi arte.

Ordu ttikietan iritsi da Merdilladira Joxinixio. Ate-hotsa entzun orduko sukaldean du ama.

–Zer berri batzokian? –galdetu dio.

–Ezer garbirik ez –erantzun semeak.

Egibarrek, Ugaldek, Barriolak, Irulegik eta halakok eta holakok esandakoak berritu dizkio. Herriko zenbait jenderen jarrerak ere azaldu dizkio:

–Karlidak irribarretsu omen dabilta, ezkertiar batzuk, erasokor.

Batzokian gailendu diren iritzien berri ere eman dio. Ederki joan zaizkie merdilladitarrei gau hartako logaleak, Joan Mari ere jaiki baita. Gaur igandea, ez du Iberduerora joan beharrik.

Gero, bazkalondoan, etzan on bat egingo dutela eta, ama Maria Bautistak sua piztu eta kafea eta esnea berotu eta beste mokadu bat jarri bitartean, ukuiluko lanak egi-tera joan dira bi anaiak. Joxinixiok jaten eman eta azpiak txukundu; Joan Marik, berriz, txekorrak erraperatu eta gelditzen zaien esne hondarra jetzi etxerako. Istant batean egin dituzte hango lanak, elkarrekin, denbora-pasa hizketan aritzeko kezkatuegi baitzeuden biak ere. Amak prest dauka sukaldeko mahaia: urdaiazpikoa arrautza parearekin eta kafea eta uxuala gainerako.

Joxinixio, gorputzari garbitu bat eta freskatu bat eman, jantzi garbiak aldatu eta elizara abiatu da, goizeko zazpietako meza entzutera. Sorabillakora joan ohi da askotan, baina gaur Andoaingora jo du, berriak jakiteko aukera handiagoa izango duelakoan.

Merdilladin ez ezik, beste etxeetan ere ez da lo askorik egin. Han zeuden lehenago batzokian eta kalean ikusi zituen gehienak. Besteetan koadjutoreren batek egin ohi du sermoia, baina gaur don Joakin Bermejo erretorea igo da pulpitura, sotana baino beltzagoko bekozkoz.

Eztarri eta etorri oneko hizlaria da don Joakin. Gaur dar-dar egiten dio ahotsak eta totalka ateratzen zaizkio hitzak. *Argi donea* liburutik irakurri du Ebanjelioa, Mendekoste ondoko hamazazpigarren igandeari zegokiona, hain zuzen. Aukera-aukerakoa:

–Aldi hartan, Jesusek ikasleei hau esan zien: bizi zaitezte erne, barnetik otso zakar izanik, ardi-larruz datozkizuen sasi-igarleekin. Ondorenetatik antzemango diezue. Elorri-

tik mahatsik edo arantzatik pikurik bil al daiteke? Halaxe, zuhaitz onak fruitu on eta zuhaitz txarrak fruitu txar.

Ebanjelioa irakurtzea amaitu duenean, eztarriari eragin eta berehalaxe hasi da egoeraren arabera bere sermoia borobiltzen:

–Kristau bihotzekoak, jakingo duzue, noski, badirela Errepublikaren kontra jaiki diren militarrek. Egia da, zenbait lekutan basakeria eta ankerkeria izugarriak egiten dituzte batzuek. Baina Espainiako gotzainek esana duteenez, ez da herriak aukeratutako Errepublikaren eta bere agintarien kontra jaikitzea zilegi.

Gorrotoak gorrotoa, mendekuak mendekua, indarkeriak indarkeria dakartzatela esanaz eta elkarrekiko errespetua eta begirunea eskatuz jarraitu zuen.

–Elkar maita ezazue, elkarri lagundu, ez egin inori kalterik, txarkeriarik, mendekurik –hots egin zien, hitz bakoitza banan-banan tenkatuz ahots dardarati eta ozenez.

Eta egun hartako Ebanjelioko azken hitzekin amaitu zuen don Joakinek goiz hartako sermoia:

–Neri “Jauna, Jauna” ari zaidan edozein ez da sartuko zeruko erreinuan. Zeruan dagoen Aitaren nahia egiten duena, bai, sartuko da zeruko erreinuan.

Batek baino gehiagok hartzen du lo mezatan. Bazen gaur lo-premiarik zuen ugari. Baina adi eta harriturik egon dira denak erretorearen sermoia entzuten. Ez zen ez-tul-hotsik eta aulkien krakadarik ere sumatzen.

–Eraso gogorren bat bazetorrek –bakarrik esan diote elkarri, elizatik irteterakoan. Izan ere, don Joakin ez zuten sekula hain hautsia eta hunkitua ikusi.

Beldur da Bermejo herrian elkarren kontra gerta litekeenaz. Baina berak ere ez zuen uste gerra hark, hitzaldi hark gutxiago, ekarri zizkion ondorioak ekarriko zizkionik.

Meza ondoan mukuru bete dira tabernak. Eta zortzie-tako meza bitartean pilotan hasi direnak ere badira, arku-petan eta frontoian. Errepublikan eta laikotasunean bizi arren, eliztarrek, bederen, ez dute meza-denboran pilotan jokutzen. Elizaren itzala plazaraino eta kaleraino iristen da, Errepublikaren laikoitasun-aldarriak gorabehera.

Joxinixio, ezin baita zutik egon, etxera abiatu da San Esteban bailarako bere lagunekin: Dorrotxola, Talai, Aldakaitz, Itsaso, Txurikadi eta Zinkobordako auzoekin. Hiru bat orduko loaldia egin nahi luke.

III

Zumea kalean goiz dabilta ezkertiarrek, urduri eta aztoratu samarrak, jakina. Baina tentuan, gehienak. Gaupasa egindako belaxkaren bat edo beste, erdi lo. Bakarra dabil “muerte a los curas” marmarrean. Haiei jaramonik egin gabe, aurrera doazen sanestebandarrek zortzietako mezatara datozen beren senide eta auzoekin egin dute topo. Elkarri diosala egiteko adina denbora dute. Eta, trenbidea gurutzatzerako, aldapa pikeari ekin diote. Ez da Joxinixio Merdilladira nahi orduko heldu. Eta luze-luze ohean etzan da, jantziak aldatzeko betarik gabe.

Behien marruek esnatu dute, hamaikak jota, zerraldo lo seko dagoen gaztea. Jaiki eta ukuiluko ganaduak gobernatzen hasi da. Jaten ari diren bitartean, azpiak atera eta inaurkin pixka bat bota zorura, lehorrean etzan daitezten. Ukuiluko lanak bukatu eta sukaldeko mahaian da gure mutila hamabietarako. Amak bezperan ekarritako haragi puskekin jarritako garbantzua dute igandeko bazkaria. Isil eta triste antzean bazkaldu dute gaur, inoizko kantu eta bertsorik gabe.

Bazkaria oraindik eztarriko zuloan duela, lo-kuluxka bat egitera igo da Joxinixio bere gelara. Hiruretako bezperen eta elizkizunaren aitzakian herrira jaitsi nahi du, gerra-aztarna gehiagorik inork ba ote dakien jakin-minez. Lotara joan denean:

–Oso goibel eta urduri dabil Joxinixio –egin du hasperen amak.

–Ba, jazarraldiak aurrera egiten badu, bete-betean harrapatuko du gerrak –kezkatu da Prontxio anaia gaztea, bera ere gerrak asko luzatzen badu harrapatuko duen beldurrez.

Jo dute ordu biak. Tilin-talan ari dira dorreko kanpai handiak. Ixabel, Benita eta Prontxio bezperetako prestatzen hasi dira. Bestela ez dago kalera joaterik. Hiruretan hasten dira apaizak kantuan. Arrebak etxetik atera direnean esnatu da Joxinixio. Ez du prestatzen arrebek adina denbora pasa. Laster egin ditu patrifilioak. Eta hor doa maldan behera ziztu bizian, arrosariorako bederen iristeko asmoz, latinez kantatzen diren bezperen kezkarik gabe.

Batez ere umeak eta neskak joan ohi dira jai eta igande arratsaldeetako elizkizunera. Eta luistar banaka batzuk. Luistarren egunetan eta jai handietan joan ohi da Joxinixio, eliza ez baitago Merdilladitik pauso batera. Gaur ezinegonak eta ezin kabituak eraman du. Mila burutazio. Etsialdiak etsialdi, gero eta garbiago dauka: “Euskadiren alde borrokatuko nauk”. Irakurri ere irakurri du *Euzkadi* egunkarian:

Ante los acontecimientos que se desarrollan en el Estado Español, y que tan directa y dolorosa repercusión alcanzan sobre Euzkadi y sus destinos, el Partido Nacionalista Vasco declara –salvando todo aquello a que le obliga su ideología que hoy ratifica solemnemente–, que planteada la lucha entre la ciudadanía y el fascismo, entre la República y la Monarquía, sus principios le llevan indeclinablemente a caer del lado de la ciudadanía y la República, en consonancia con el régimen democrático y republicano, que fue privativo de nuestro pueblo, en sus siglos de libertad.

Behin eta berriz irakurri du Joxinixiok EAJren erabakia. Ulertu ere ulertu du funtsezkoena: askatasunaren, demokraziaren eta Euskadiren alde egin behar dela borroka. Eta usnatu du batzokian eta gazteen artean zer giro dagoen. Euskadiren alde, beren ustez, zein gazte joango liratekeen zerranda ere egin dute. Musean saio bat egin,

ogitarteko bana jan, eta etxera abiatu dira, ilundu baino lehen, badaezpada ere, eta astelehen goizean mezu larriagoren bat etor daitekeelakoan.

Hasiak baitziren anarkista eta komunistarik bortitzetak, buzo urdinez jantzita, eskuan pistola eta lepoan zapi gorria, automobiletan Andoaina azaltzen, Donostiatik Tolosara eta hemendik berriro hiriburura bueltaka, eskuindar eta karlistak atxilotu eta garbitu nahian. Baina horrelakorik gerta ez zedin berehalaxe sortu zen herria zaintzeko taldea, demokratez eta jeltzalez osatua, batik bat.

Sevillarekin batera, Nafarroa da matxinatuen alde jartzten den lehen lurraldea, Mola jeneralaren aginduetara. Entzutekoa da gaur, uztailak 19, Molak Gaztelu Plazan militarrei, erreketeei eta gerrarako prest diren bolondres guztiei egin dien aldarri beldurgarria:

–Zukurutza sartu behar diogu jendeari. Gu garela jaun eta jabe erakutsi behar diegu, guk bezala pentsatzen ez duen guztia jota garbituz. Ekintzak ezin eta bortitzagoa izan behar du, lehenbailehen mendera dezagun indartsua eta ongi antolatua dagoen etsaia. Dena den, Movimientoari atxiki ez zaizkion alderdi, elkarte eta sindikatuetak buru guztiak espetxeratuko ditugu, eta besterentzat eskarmentu izango diren zigor gogorrek jasanaraziko dizkiegu.

Euskaraz baino gogorragoa da, jakina, Molaren ahoko suz eta gaztelaniaz egindako aldarri beldurgarri hau.

Lehenengo egunetik egin dituzte sarraski beldurgarriak Nafarroan Molak eta bere soldaduek. Baina Andoaina ezer gutxi zabaltzen da. Hamar bat egun igaro dira andoaindarrak mugitzen hasterako. Berastegin bertan ere ezer gutxi nabarmentzen baita lehen egunetan. Eta Leitzaranean lau basomutil ari dira lanean, ezertaz jabetu gabe: Goizuetako Andres Kankarro, Joxe Batista Preoxta, Joxe Batista eta Mariano Aspoa anaiak.

Berastegiko azpiroztarrak ere lasai zebiltzan, aitak Kakone tabernan entzun zuena kontatu arte:

–Gerra hasi duk Afrikan, motellak. Espainiara zabalzen bada, bete-betea harrapatuko gaitik.

Gerra hitzak bakarrik ere kezka sartu die gazteei. Baina ez dira aitaren oharpenaz jabetu, hasieran. Aitak bazekien, jakina, zertan ari zen. Hiru seme zeuzkan gerrak harrapatuko zizkionak: hogei urteko Jose, hemeretzi urteko Pedro eta hamazazpi urteko Joakin. Gizajoak!

Aitak bezperan Kakonen entzundakoa amak argiagotu die etxeratu direnean:

–Nafarrak abiatu omen dira Gipuzkoa aldera. Bidea ixteko, Bizuritako goiko zubia bota omen dute.

Biharamunean jende pila igo da Tolosatik Urto aldera, eskopetekin, nafarrei eustera. Mikelete bat eta erreketete bat gertatu dira hilak borroka horretan. Erreketete hori omen da Nafarroako lurrian gerrako erasoan hil den gazte bakarra. Gurutze bat jarri dute heriotza horren lekuko eta seinale.

Bospasei mikelete daude Urton. Horiei laguntzera etorri dira Tolosatik. Baina nola eutsi hobeto armaturik datozen erreketeei? Lehenago gora igo ziren tolosarrek behera abiatu behar izan dute, uztailearen 23an.

Azpiroz aitak entzunak ditu karlisten eta liberalen arteko gerratean gertatzen omen zirenak. Donostian agintzen zuten liberalek karlisten zerrendak egiten zituzten, zigortzeko eta kanporatzeko. Hala, 163 karlistaren zerrenda bidali zion Donostiako alkateak Gipuzkoako gobernadoreari, 1875eko uztailearen 29an. Abuztuaren 14an, berriaz, Amaratik hamar baserritar, Lugariztik bederatzi eta Ibaetatik bost kanporatu zituen. Beste horrenbeste egiten zuten karlistek agintzen zuten herrietan liberalekin. Beren

mendeko sailetan zeuden mutilak ere, kontrako iritzikoak izan arren, bakoitzak bere aldeko gerra egitera behartzen zituen.

Santa Kutz apaizarenak dakizki batez ere Azpirozek. Zebilen tokian soldaduska-garaiko mutilik ikusten bazuen, harekin joan behar izaten zuen.

–Ea honelakoren bat egiten duten orain zuekin –jar-tzen ditu jakinaren gainean bere semeak.

Izan ere, bistakoa denez, kontzientziako eragozpenek, gerra-garaian, ahuntzaren gauerdiko eztulak adinaxe baliio dute. Eta kontzientzia bera ere erraz moldatzen da komententziara eta txarkeriaren esanetara.

Egoera hark zer joera hartzen duen ikusi arte Lordiz aldera bidaltzen ditu hiru semeak egun pare baterako, uz-tailaren 24an, goizean goiz ganadu-jatenak egin eta gosaldu ondoren.

–Zerbait txarrik sumatzen badut, neu joango nauk zuegana –jarri ditu jakinaren gainean abierakoan.

Errotaren ondotik San Lorentzora igo eta handik Lordizera jotzen dute. Ezin, ordea, Berastegiri begiratu gabe joan. Gorosmendra iritsi direnean, bistara azaldu orduko, han ikusten dituzte erreketek batzokiko gauza guztiak ateratzen eta herriko plazan erretzen. Urruti samar daude, baina oso bistan. Eta nafarrek ikusiko ote dituzten beldurrez, usu demonio alde egin dute Lordiz aldera.

Leitzarango errekan geratu dira, Mustarren amuarrainak harrapatzeko. Zerbait afaldu beharko baita gaur hartan ere. Eta Lordiz Txikin Goizuetako lau basomutilekin egin dute topo. Ez dakite gerraren aztarnarik. Eta kontu horri jaramonik egin gabe, lanari utzi eta afaria prestatzen hasi dira: baba beltza eta amuarrainak. Azpiroztarrek ere ezaguera gehiegirik ez eta, Lordizera joan ordez, bertan

gelditu dira, iji eta aja. Bertsotan ere saio bat egin dute, kamainara lotara joan aurretik. Lotara joandakoan ere ez dira bertsotan berehala isildu Andres Kankarro eta Jose Azpiroz.

Lo puxka bat egin dutenean, etxerako bidea hartu dute azpiroztarrek, Santio egunez, okerrena pasata izango delakoan. Goiz abiatu dira. Halako egoeran, badirudi hala moduzko jendilajerik ikusten ote duten argi eta erne ibili beharko litzatekeela, baina azpiroztarrek errekan dituzte begiak zorrotz, amuarrainik-edo ikusten ote duten. Bai parean suertatu ere. Mustarren amuarrain handia zebilen txingan trabatuta. Beste batean, txikiagoak baina, beste bi koxkor zeuden. Hartu eta etxera, sareak berriro errekan utzirik.

Eta etxean geratu dira noiz deituko beldurrez. Eta 35, 34 eta 33ko kintak eraman dituzte sanlorentzotan, Berastegiko festetan. Eta iritsi zaie azpiroztarrei ere gerrara joateko ordua.

IV

Egunsentiarekin batera jaiki da Joxinixio astelehen goizean. Ez zen estuasun handiko lanik egun haietan: belarrak onduak eta metatuak, artoak jorratuak. Patata-soroa zeukaten ateratzeko eta arbitarako prestatzeko. Ganadujatenak egin eta aziendak gobernatu beste lan handirik ez zen sasoi horretan Merdilladin. Egun horretan ez zen lan gehiagorako girorik ere, zirimiri ugaria eta sarria ari baitzuen. Lanbro itxiak hartuak zeuzkan bazter guztiak.

Ixabel jaitsi da kalera, okindegira. Ixabelek baserriko lanetan baino nahiago izaten du apaindu eta kaletik mandatuak egitea. Egun hartan ere, zirimiriak zirimiri, aterkia hartu eta han joan da, panpoxa-panpoxa, kalera. Joxinixio, berriz, ganadu-jatenak egitera abiatu da zakua burutik behera duela. Zakua bezalakorik ez baita bizkarra lehorrik gordetzeko eta segan enbarazu gehiegi gabe aritzeko.

Ixabel kaletik itzuli denerako sukaldean daude denak, bazkaltzeko ordua baita. Ez dakar berri handirik. Kaleak ia hutsik. Baserritar batzuk, beren esne, sagar, barazki eta abar, merkatuan. Gizonezko gehienak, Joan Mari bezalaxe, lantokietara joanak. Elkarren beldur pixka bat ere bai eta, inork ez zion besteari ezer galdetzen. Okindegian ere eguraldia zen hizpide bakarra.

Baina Ixabelek badu poltsan Merdilladikoek zorutzen hartuko duten zerbait: Praixkuren gutuna. Wuhutik idazten zien ordura arte, Tatungdik orain. "Tatung, 1936ko lorailaren 15ean".

Postariak okindegian uzten ditu baserri askotarako gutunak. Eta hantxe zegoen Patxi Etxeberriak Txinatik idazitakoa ere. Bi hilabete pasatxo egin ditu bidean. Beti be-

zala amari idatzi dio. Euskaldunok “ama” deitu ohi diogu amari, baina Praixkuk “amatxo maitea” idazten dio beti.

Txinako berri gutxi bidaltzen dio. Tokiz aldatu dutela, besterik ez dio esaten. Nahigabea gehitzeko kontatuko al dio, bada, zortzi orduko bidea egin behar izaten duela oinez? Wuhuko jesulagunen etxean egon zen ordura arte ministro, hau da, komentuko administraritzan. Baina hango hizkuntza zerbait lardaskatzen hasi zenean, Tatingera bidali zuen Zenon Aranburu gotzainak. Esan ere esan zioten gotzainari beste jesulagun batzuek:

–Nolatan bidali duzu Etxeberria bakardade hartara?

Zenon Aranburu Urretxuko semeak bazekien aita Pakti Itsason eta Anduagan egona zela.

–Etxeberriak badaki bakarrik bizitzen eta moldatzen –erantzun zien gotzainak.

Bakardade hartan herriminak jo du Praixku, dirudienez; Merdilladiko gereziak, ipar-haizea, udaberriko loreak, santakruzak, arto-ereitea eta abar aipatzen baitizkie gutunean. Eta nola ez? Espainiatik iristen zaizkion kontu ikaragarriak. Bestela ere, jesulagunak mindurik eta zapuzturik dira Errepublikarekin. Gogoan dute nola Azañak bidali zituen kanpora, 1931ko otsailaren 3an. Eta Errepublikaren kontrako zurrumurru guztiak erraz sinesten dituzten lagunen artean bizi da. Urtebete lehenago sartu zen jesuita Loiolan, *Argia* astekariaren zuzendaritza utzita.

Primo de Riveraren diktaturaren azken aldira indartzten ari ziren errepublikazaleak, ezkertiar joerak, euskaltzaleasuna eta abertzaleasuna. Lehentxeago edo geroxeago ekaitz gogorren bat lehertuko ote zen beldurrez ezkutatu zen euskalgintzatik eta herrigintzatik Loiolara. Alde horretatik, gogotik ematen zizkion eskerrak Jainkoari, Espainiako istiluetatik urrun zegoelako. Amari esana zion agur egiterakoan: “banoa, bestela zerbait gogorra ger-

tatuko zait egunen batean”. Lasai zegoen, beraz, Txinako Tatung aldean. Baina Euskal Herriko egoerak kezkatzen zuen. Beldur zen Merdilladikoei ere zerbait gertatuko ote zitzaien, Goierri aldean erein zuen euskaltzaletasunaren eta abertzaletasunaren erruz. Joxinixiok larritzen zuen, batez ere, hain zen bertsozalea, hain euskaltzalea, hain abertzalea.

Kontu horietan ari zirela:

–Arriskuko ezer badago, erre egin behar da –esan zion amak Joxinixiori.

Bazeuden *Argia* batzuk, Praixkuk Txinatik bidaltzen zituen erreportajeak zituztenak. Beste gehienak goizeko sua pizten erretzen ziren. Joxinixiok astekarian etortzen ziren bertsoak zeuzkan gorderik. *Yakintza* aldizkariaren hogeigarren alea ere, “1936’ko epail-jorrailla”koa hain zuzen, hantxe zeukan mesanotxean. Izan ere, ale horretan zeuden Bigarren Bertsolari Egunako bertsoak, sariak eta gorabeherak. Joxinixiori asko gustatzen zitzaizkion Jau-tarkol, Xanti Onandia, Zaitegi, Gaztelu eta Tapia-Perurenaren olerkiak zekartzan. Ia egunero errepikatzen zuen Tapia-Perurenaren hura:

Nerea iñoiz izanen
ez zeran neska apain:
zai bezaitza Urtzik orren
garbi, eder lirain...

Maria Bautista amak ere badauzka Praixku semeak bidalitako gutunak eta Wuhuko misioko ongileei eskainitako egutegiak. Negar-malko lodi eta minak isuriz bota zizkion suari. Baina sutan erre ez zitezkeen bi oroigarri geratzen ziren: kaliza, “1925-XII-19 Meza Berriko oparia” eta *Eusko Olerkiak-1933* liburua, besteak beste, Patxi Etxeberriak

Urretxun irabazitako lehen sariko “Bost lore” olerkiak zekartzana.

–Sar itzazue meta belarraren barru-barruan –erabaki du Maria Batista amak.

Gorrien elizarekiko amorruren beldurrez gorde dute bata; karlisten euskararekiko gorrotoaren beldurrez, bestea.

Santio eguna arte ez da Merdilladin daudenetatik inor kalera jaitsi; etxeko labean erretako ogiarekin, etxeko txerriaren puskekin, arrautzekin, patatarekin eta babarrunarekin moldatu dira aste osoan. Joxinixiok egin ditu Adarra, Belabi, Leitzaran eta alde horietara joan-etorri batzuk, aizkora txikia hartu eta hurriz-makila batzuen aitzakian. Eta bista-bistan dauden Sorabilla eta Andoain aldean ere ez zen apartekorik ezer sumatzen.

Goizeko zapietako mezatara joan da, Andoaingora gaur ere, Joxinixio Santio egunean. Sermoirik gabeko meza isila entzun du. Noraezeko giro hartan apaizek ez dute Espainiako patroiazen inguruko sermoirik egin nahi izan, non-bait. Mezatara joan diren alderdikide batzuekin batzokira joan da meza ondoan.

–Berastegiko batzokian sartu omen zituan atzo nafar erreketek, eta plazan erre omen zizkiaten hango altzariak, paperak, Arana Goiri eta Jose Antonio Agirreren argazkiak eta harrapatu zuten guztia –esan zuen Primo Irulegik.

Kontu horietan ari ziren Joakin Arratibel eta Laxaro Agirre. Karlisteri entzun omen zien paretik pasatzerakoan.

–Urton mikeleteren bat ere hil omen diate –ekarri du albistea Tolosatik Karmelo Lasartek.

–Besoak tolestu eta ezer egin gabe egon behar al dugu? –galdetu du Joxinixiok hasperenka.

Frankistek ezer gutxi aurreratzen ote zuten susmoa zabaldu samarra zegoen errepublikarren artean. Horrega-

tik zeuden lasai Andoainen ere. Sanestebanak aldera arte inor gutxi mugitu zen. Manuel Irujo ari zen orroka udaletxeko balkoitik. Ia zintzilik jartzeraino makurtzen zen jendearengana.

–Andoaindarrok, aberkideok, lo zaudete. Gainean dituzue erreketek. "Muera Euskadi"ka sartu dira Ataunen eta Zegaman. Ez al duzue ezer egin behar? Euskadi defenditu behar dugu, hortzekin bederen –berotu zituen bazterrak.

Une hartantxe lehertu da, danba, Goiburun, San Esteban bezperako lehen etxafuegoa. Eta Joxinixio Goiburu aldera abiatu da. Bere bailarako festak dira. Lagunarteko afaria dute. Hurrengo eguneko aizkolariak, bertsolariak eta erromeria erabakiak daude, baina biharamuneko oirlasko-biltzea eta dantza-soka nola egin erabakitzeak daude. Joxinixio ez dago festa haiek galtzeko, hain maitagarria gertatzen zaion neska lirain eta ederra ikusteko aukera izango baitu. Tapiá-Perurenaren hark goibeltzen du: "Nerea inoiz izanen ez zaren neska apain". Eta ezezkoaren beldurrez ez da ezer esatera ausartzen.

Afaltzen ari direla, ordea, Irujoren mitina du gogoan. Goiburu bailarako mutilek zer joera nabarmentzen duten ere jakin nahi luke. CNTkoen kontra kantatu du lehen bertsoa, han ez baitago erlijioaren kontrakorik. Zumea kalean "muerte a los curas" marmarrean ari zen moxkor ari eskainia da. Ez dute txalorik jo, ez baitute horretarako ohiturarik. Baina algara gozoa egin dute Merdilleiren ateraldiaekin. Euskal ohituen eta euskararen aldekoa kantatu du hurrena.

–Ederra zuan –esan du bazterretik Aldakaitzek.

–Euskadiren alde bedi gu guztion borroka –amaitu du hirugarrena.

Bizpahiruk ez beste guztiek irribarrez hartu diote.

Usnatu du Goiburu bailarako gazteen giroa. Hiru minutura dauka etxea. Dizdiz egiten dute ipurtargiek bideertzean. Izartsu ageri da ortzea. Pozik doa etxera gure Joxinixio, bere burutazioetan bildua eta baitaratua, hontzaren ustekabeko ujuak ileak lastu eta azala oilo-ipurdiz bete badio ere.

Jendetza handia izan da San Estebango meza nagusian. Goiburuar guztiak bildu dira beren baselizan. Andoingo kaletik eta Sorabillatik ere jende asko igo da. Parrokiako koruak kantatu du Bixente Goikoetxearen meza. Sermoia, berriz, Sorabillako erretoreak egin du. Kristauen lehen martiria zela eta juduen sinagogetako apaizek ezin eramanez harrika hil zutela, esan du. Izan ere, juduek ezin baitzuten onartu Estebanek hainbeste jende kristau bihurtzea. Setak, itsumenak eta inbidiak zenbat txarkeria eginarazten duen ere gogorarazi die entzuleei. Eta kristauen gorrotoz han harrika ari zen bat Saulo zen, gero damuturik Pablo apostolua izango zena. Adibide horretaz baliaturik:

–Ez ezazue setaz, itsumenez, gorrotoz eta inbidiaz gero damutuko zareten ezer egin –agindu die, zorrotz.

Jaiak bakean eta alai igarotzeko opaz, eta inguratzen ari zaizkigun une larri hauetan elkarri kalterik ez egiteko eskatuz amaitu du sermoia don Domingok.

Gustura ibili da Joxinixio festan. Batez ere, etxez etxe oilasko biltzen ibili da zorutzen, San Esteban biharamunean. Baina ez elizan, ez plazan eta ez bere baserrian ikusi du bere bihotzeko neska eder eta liraina. Donostiako izebarena joana ote den esan dio Joxek. Honek ere sumatu baitu Usamendiko Iñaxiren falta. Eta festa ondoko ajea baino astunagoa eta mingarriagoa gertatu zaio hutsune hori.

Eguneroko bizimodura itzuli da Joxinixio. Arbi-hazia ereiteko lurra maneatu eta goroztu beharra dauka. Patata

ateratako lurak ez du lan handirik. Baina gorotz pilatik sardeka gurdia kargatzeak ederki miatzen ditu gerriak eta besoak, trinkoa eta astuna baita pilan dagoen simaurra. Ukuilu-aitzurrarekin harrotu beharrekoa, gainera, sardearekin zerbait egin nahi baldin bada. Joxinixiok lehenbailehen erein nahi du arbia, badaezpada ere. Erreketeen kontra joan aurretik, alegia. Ez baitio gazteenari horrelako lan txarrik utzi nahi.



Ezkerretetik hasita: Txirrita, Saiburu, Ugartemendia, Ezeiza, Moxo,
Etxeberria (eleberriko protagonista), Txapartgi, Pantxo eta Ondartza.
Tolosako batzokian, bertsolari-txapelketako saioan,
1935eko abenduaren 29an.

Jesús Elósegui Irazusta argazki-artxiboa
Aranzadi Zientzia Elkarteak

V

Gero eta hots txarragoak datoz Nafarroa aldetik. Manuel Irujoren deiadarren oihartzuna ere ez da isildu. Alderantziz. Batzokiko jendea, Joxe batez ere, gazteak biltzen ibili da. Eskopeta zahar batzuk ere eskuratu dituzte. Luziano “Luken” Pastor Añibarro, Europan barna asko ibilia, arduratzen da armamenduaz. Txekoslovakia aldean erosiak ditu bi trenkada. Baina Baionako geltokitik aurrera etortzea debekatu egin zaie, Frantziako gobernuak Espainiako gerran muturrik ez sartzea erabaki duelako. Eibartik ekarriak ditu pistola eta metrailadore batzuk. Donostiatik ere, Loiolako kuarteletik, iritsi zaizkie dozena-erdiren bat fusil.

Belabietara joatea erabaki dute. Hirurogeita bi urte lehenago, 1874ko abenduaren 14an, karlistak hortxe babestu ziren, Urnietako guda-lerrotik ihesi, Donostiako liberalen erasoari ezin eutsirik. Orain, Nafarroatik datorkie eraso. Buzo zaharrak jantzi, kontzejupean Gaztañaga guardak eta Unzalu eta Fernandez aguazilek emandako eskopetak seina postarekin hartu, eta Amasara bidean abiatu da hogeiko taldea, kinkirri-kankarra dabilen kamioian.

Tartean da Merdilladiko mutila, aitaren eskopeta zahar herdoildua bizkarrean duela. Dozena-erdi bat urte baditu eskopeta hark tirorik egin gabe. Orain sei urte, sasian trabatu eta ihes egin zion tiroak ikaratu zuen betiko Martin.

Joxinixiok, berriz, ez du ehizarako zaletasunik. Udazkenean buru gaintetik pasatzen zaizkion tortolei eta usoei begiratzeko ez astirik eta ez gogorik du. Nahikoa lan badu maizorria egiten, arbiak jorratzen, babarrunak biltzen, garroa garraiatzen eta udazkeneko belar urriarekin behiak gobernatzeko. Jaikitzerako gerezirik onenak jaten dizkioten zozo lapurrei neguko jai arratsaldeetan tiroka aritzea ere

baino nahiago du *Argia* irakurtzea, bertso batzuk kantatzea, eta batzokira inguratzea. Ez du sekula tiro bat bota, baina han doa Belabietara “errekete eta faxistak muturrean jotzera”, batzokiko Joxe kapitainak esanda bezala.

Amasako elizaren ondoan kamioia utzi eta Elduaien eta Berastegiko mendietara abiatu dira. Lanbroz estaliak daude Belabietako gainak. Baina garbi dago han behean Berastegiko herria. Ez dira bapoak izango Molaren soldaduak, baina sarjentu, kapitain eta jeneral profesionalz gidatuak dira. “Zer egin behar diagu horien kontra?”, pentsatzen du Joxinixiok bere kolkoan. Eta besteek ere burutazio berbera izango ote duten deritza. Borda zahar baten hormaren atzean babestu dira, kaka baino larriago. Ardi zahar baten errainuak ere ikaratuko lituzke. Zorionez, ordea, kontrariorik ez da azaldu. Gau osoa eta hurrengo eguneko arratsaldea egin dituzte hantxe kuzkurturik, hurrengo taldeak txanda egin arte.

Zain zeuzkan Merdilladin Joxinixiok. Luze joan zitzaizkien bi egun haietako orduak.

–Ez da inor azaldu, ama –esan zion Maria Bautistari, lasai zedin.

–Eskerrak –atera zitzaion Prontxiori–, bestela laster egingo zizkiaten zuekikoak.

Inork baino hobeto zekien hori Joxinixiok. Baina itxurak egin behar zituen, inor ez larritzeko.

–Ez ezak uste –erantzuten dio, irmo-itxuran–. Borda zaharraren atzean ondo babestuak geundean eta gure eskopeta txar hauekin laster uxatuko genizkian faxista horiek.

–Belabietan zabiltzate, baina Tren txikian etorriko dituk erreketeak Iruñetik. Zuek konturatzeko herriko plazan dituzue, jaun eta jabe –zirikatu du berriro Joxinixio.

Plazaola trenari deitzen zaio Tren txikia. Donostia, La-sarte, Urnieta, Andoain eta Leitزارanen barrena Iruñerai-no ibiltzen da. Eta alderantziz, jakina.

Gau guztian ez dio bakerik eman anaiaren ateraldiak. “Erreketek alu horiek kapaz dituk, gainera”, errepikatzen zuen Joxinixiok lo arineko ametsetan. Burutik kendu ezi-neko amesgaizto hark errainuak bezala jarraitu dio egun guztian.

Ilunabarrean, batzokira joan eta zapla bota du denen artean anaiaren ateraldia.

–Arraioa!, halaxe egingo diate, urde horiek –eman zion arrazoi Pastor Añibarrok.

Izan ere, erreketek Lekunberri-Leitza mugak igaro ote zituzten zurrumurruak zabaldu ziren herrian.

–Ba al dakizue zer egin behar dugun? –galdetu zuen Luzianok. Eta erantzuna ere berak eman zuen–. Trena hartu eta Ollokiko tunelean amilduko diagu, Iruñetik datorrenari bidea ixteko.

Esan eta egin. Hartu hiruzpalau bagoiko makina, eta badoaz triki-traka. Ollokiko tunelera iritsi baino lehen-txeago jaitsi dira trenetik. Makinistak jarri du motorra ziz-tu bizian bagoiren bat amil dadin. Gure trena abailan dela, hor ari da beste tuneletik Iruñetik datorrena bistaratzen. Tunelaren erdian, danba!, bi makinek. Hango burdin ho-tsa eta kinkirri-kankarra.

Tximista bezala ezkutatu dira alde banatara andoain-darrak eta nafarrak. Hurrengo eguna arte ez dira bezpe-ran zer txikizio egin zituzten ikustera azaldu. Ez da oker handirik: bi makinak matxuratuak eta burdinbidea metro batzuetan puskatua. Baina paper bat aurkitu dute: garbi-tu beharreko andoaindarren zerrenda. Tartean, “Merdillei bertsolaria”. Ezkertiarren aurrean uzkur eta abertzaleen

artean harro dabilen karlistaren batek eraman du Iruñera herritarren zerrenda hori.

Edonor beldurtzen du horrelako albiste batek. Baina etsaiari kontra egiteko fundamentu ezak gehiago kezkatzen du Merdillei bertsolaria. Hobeto antolatutako eta hobeto armatutako taldeak sortu behar direla uste du. Burubide horietan dabilela, alderdiko buruzagiek alderdikideei eta jarraitzaileei egiten dien deia hartzen du: Azpeitiko Loiolan, abuztuaren 8an, Saseta karrerako militarren aholkuetara, Irujok, Monzonek eta Lasartek antolatzen duten Eusko Gudarostera biltzekoa.

Kandido Saseta hondarribiarra, Gasteizko kuarteleko kapitaina, Errepublikaren alde jarri da. Eusko Jaurlaritzak, berriaz, bera izendatu du Eusko Gudarostea antolatzeko. Erreketeei eusten gogor saiatu da Gipuzkoan gudariekin. Sasetaren burubidea izan da Lekeitiotik Otxandio arteko guda-lerroa irekitzea ere. 1937ko urtarrilean Eusko Gudarosteko komandante izendatu dute. Otsailean, Asturiasa joan da gudari-taldearen buru. Hil horren 23an hiltzen da eusko gudariekin faxisten kontra borrokan diharduela.

Merdilladin, sei urte lehenago Praixku joan zitzairen Loiolara, jesuita. Samina gertatu zitzairen seme apaizaren erabaki hura. Hurrean zegoen jesuiten etxe handia, baina ordura arte bezain sarri ez zuten ikusiko handik aurrera, *Argia* astekarian ari zenean oso maiz etortzen baitzen sortetxera. Eta Jainkoak bakarrik daki, baldin badaki, jesuitek nora bidaliko duten. Eta Maria Bautista eta Higinio gurasoen burutazio ilun haiek egia bilakatu ziren: Txinan zegoen Merdilladiko seme zaharrena hiru urte haietan, jesuiten misioan.

Baina oraingoa larriagoa da: gerrarako prestatzearren doa Joxinixio Loiolara. Ezin diote galarazi. Herrian bertan geratzen bada, garbitu egingo dute harrapatu bezain

azkar. Eta, bizirik utziko balute ere, Francoren alde egin beharko luke gerra. “Bizia jokatzekotan, ez al da Euskadiren alde jokatzea hobe?”.

Merdilladiko sukaldean negar-zotinak bakarrik entzuten dira. Eta, tarteka, isilune luzeak. Halako batean, ama bere gelara igo da.

–Tori, seme, biderako-eta diru puska bat, beharko baituzu.

Beste hitzik gabe, hiru alkandora eta galtza pare bat ari zaio fardelean biltzen. Urdaiazpiko-tortillatxo bat ere jarri dio ogi tartean. Ez da Merdilladin musu emateko ohi-tura handirik, baina gau hartan, amak ez ezik, Ixabelek, Benitak eta Prontxiok ere estuak bezain bustiak eman dizkiote.

Joan Marik ez dio musurik eman, lepondoan igurtzi du. Anaiaren esku zartatu zakar haiek leunak suertatu zaizkio Joxinixiori une hartan.

–Bizirik etorriko ahal haiz behinik behin –izan dira Joan Mariren hitz bakarrak.

–Hala espero diat neuk ere –erantzun dio Joxinixiok.

Inor ez da ausartu beste ezer esaten. Ezta Loiolara nola joan behar duen galdetzen ere.

Gizon bitarte bat da Joxinixio. Ttiki antzekoa. Hirurogei bat kilokoa, gehienez ere. Aurpegi estukoa. Ilea eta begiak, gaztaina-kolorekoak. Ttikia bezain argia eta bizkorra. Azpeitiko Loiolara bitartekoak laster egingo ditu. Baina ez da Andoaingo batzokira sartzen ausartu ilunabar hartan. Azkarregi doala diotenen beldurrez baino gehiago zeharo hautsiko ote den beldurrez ez da sartu. Zain dauka kalean Tolosako Patxi Elustondo. Urnietako batzokira joan nahi du Joxinixiok, Iñaki Alkain bertsolari laguna agurtzera. Bide batez, urnietarrek zer asmo dituzten ere jakin nahi

luke. Gau hartan Urnietako batzokian lo egin zuten, eta hurrengo goizean Azpeitiko Loiola aldera irten.

Egun batzuk bakarrik daramatza Etxeberriak Loiola-ko Eusko Gudarostean, gerra nola egin ikasten. Ganadujatenak egiten ari den Merdilladiko Prontxiok Goiburutik behera ikusi ditu txapelgorriak, medailak eta santuak paparetik zintzilik, "Viva España"ka, eta "Fuera Euskadi"ka. "Eskerrak gure Joxinixio ez dagoen hemen", lasaitu du Prontxiok bere burua, unetxo baterako bederen. Berehalaxe hartu baitituzte faxistek Goiburu, Sorabilla eta Zumea. Udaletxe aurreko plaza eta Kaletxiki ez dituzte berenganatu, San Martin parrokiako dorrean dagoen metrailadorearen erasoak eragozten baitie aurrera jotzea.

Hala ere, abuztuaren 17rako ezarria dute herrian udalbatza berria, Domingo Soroa alkate eta Joakin Arratibel, Frantzisko Yeregi eta Lazaro Agirre zinegotzi direla. Udaletxean, eskoletan eta elizetako dorreetan bandera gorri-horia jartzea izan da beren lehen erabakia.

Bere sorterria faxisten mende jausi dela jakiten duenean, bihotza nahigabez lehertzen zaio Joxinixiori. Eta kezka eta zalantza betetzen zaio barrua: "Ez al huen hire herria defenditzen egon behar? Euskadi defenditzeagatik ala herriko arriskuari ihes egiteagatik etorri haiz Loiolara?". Galdera zorrotzak eta mingarriak.

–Han ez zegoan faxistei eusteko indarrik. Eskopeta eta fusil zahar batzuekin eta Asturiastik mendiak mina lehergarriz zulatzeraz etorri omen diren meatzari haiekin nola eutsi? –lasaitzen du Patxi Elustondo tolosarrak.

Buruntza eta Belkoain tontorretatik egun batzuetan aurrera egitea eragotzi bazaie ere, irailaren 6rako hartua dute Urnieta.

VI

Gure Merdillei gaztea Berriatua eta Markina inguruetan dabil, Elgoibartik barrena Bizkaira sartu nahian datozen erreketek eta falangistei gogor erasotzeko. Lehen egunetan, gaueko txanda iristen zaionean, parapeto atzetik mamuak ikusten ditu nonahi, begietako nekearen eta beldurraren ondorioz, baita tiroka ekin ere, alfer-alferrik. Izan ere, metrailadoreak zakurrak bezala dira. Begi bat itxita egiten dute lo, arrotzaren zain. Erbinude baten zarata aski dute asaldatzeko eta zaunkaka hasteko. Eta bat hasten denean, auzoko guztiak ere zaunkaka hasten dira. Eta behin hasten direnean, nork isildu? Etsaiaren beldurrez dagoen gudariak ere aski du jan bila edo eme bila dabilen zakur baten hotsa tiroka hasteko, eta beste guztiak lanean jartzeko, tiroka, oihuka, biraoka, mehatxuka, zotinka. Eta ezer ez eta festa hura bukatzen denean, eta kontuak eskatzen dizkiotenean, “baietz, ba, muturraren aurrean ikusi dudala etsaia”, baietsiko du.

Beste askok bezalaxe, Merdilleik ere lur gogorraren gainean egin behar du lo. Lehorra dagoenean, gaitz erdi, gainera. Eta horrela, eguna joan eta eguna etorri. Hamaika aldiz gogoratzen zaio Joxinixiori Merdilladiko ohe goxoa.

Halabeharrez, zortzi hilabete egon dira geldirik hemen. Ondarroa frankistek hartua dute. Markina, berriz, guda-rien esku dago. Baita Eibar eta Elgeta ere. Berriatua, zoritarrez, bi suren erdian.

Besteak beste, Bolibarko Tomas Gerrikagoitia ezagutze-ko aukera izan du Joxinixio Etxeberriak. Segurtasun Batzordeko burua denez, herriko bakeaz, janariez eta abarrez arduratu behar izaten du. Herrikoak bertakoak nahikoa ez direla, hirurehun bat iheslarik aurkitu dute babesa Boli-

barren. Kamioia hartu eta hamabostean behin janari bila joan behar izaten du. Ez da, jakina, nahi adina eskuratzen ahal, neurrian baizik. Iheslarientzat bidali ohi dituzte doan garbantzua, arroza, lentejak eta horrelakoak ugari samar. Baina gudarientzat ere bildu behar izaten du Tomas Gerrikagoitiak jenerorik han eta hemen: arrautzak, baba, esnea, batez ere. Zaurituentzat, koltxoi, aterpe eta horrelakorik ere bilatu behar du. Garraiorako, berriz, hamar asto eskatu dizkiote eusko agintariek. Etxetik hasi da Tomas, eta bere astoa aurrean duela jo du auzoetara. Mandazaina ere aurkitu du, hogeita hamaika urteko gizon gaztea, eguneko hamar pezetan.

Horrelaxe ezagutu du Tomas Joxinixiok. Hizketatu ere ahal duten guztian hizketatzen dira. Ez dute euskara berdin-berdina baina, hala ere, beti euskaraz jarduten dute. Biek ere euskara aberasteko gogo handia dutenez, elkarrengandik hitz eta esamolde asko ikasten dute. Euskadirekiko sentimenduetan ere bat dira, biak baitira Eusko Alderdi Jeltzalekoak. Eta biak dira baserritarrak. Atsegin zaie, beraz, elkarrekin hizketatzea.

Hemengo gudarien ardura nagusia etsaiaren lerroari eustea da: Jose Antonio Agirrek lehendakari-kargua hartu behar duen egunean erreketarik eta horrelakorik ez dadila Gernikara sar. Gorozika aldeko Ubilla ondoan baitaude erreketek.

Berriatuko udazken hura ez da hain txarra izan: hegohaize epela eta nahiko taloa eta sagar errea gosea kentzeko. Dirua duenarentzat, berriz, ez da koñak frantsesik falta. Lasai samarra ere izan da gudaldia. Denbora-pasa, jokoan, perretxiko bila eta abarretan jardun ohi dute. Tartean dute Koldo Mitxelena ere. Eman zioten buzoa belau-netaraino laburtu zaio izerdia eta bustiarekin. Lizardi olerkariaren *Biotz begietan* eta latineko gramatika irakurtzen

aritzen da askotan. Berak aitortzen duenez, Lekeitioko agustinoen komentuko liburutegitik hartua du Goñiren latineko gramatika hura.

Baina geldi dagoena askotan tentatzen du deabruak. Bazkari on bat egiteko gogo sortu zaio talde bati. Hogei bat dira, ondarroarrak gehienak. Txerri gazte bat dagoela Iburguenen ohartu dira. Sasi, txara eta ote artean ezkutatuturik igo dira, aurrez aurre dituzten Gorozikako erreketeeek ikus ez ditzaten.

Asturianoen itxuran jantzirik inguratu dira baserrira, beldur gehiago sartzeko. Bakarra sartu da sukaldera, euskaraz hitz eginez: Iñaki.

–Euskalduna naz, ez ikaratu –esan dio bakarrik zegoen amonari.

–Ikaratuko ez naz ba horrein aurpegiak ikusita.

Egia esan, figura gaiztoa dute bere lagunek.

–Bai, asturianoak dozuz. Aspaldian ezer hartu barik dagozalako jateko bila datozenak –lasaitu nahi du Iñakik amona.

Txerria aipatu orduko sutondoan jesarrita negarrez hasi zaio, ordea. Eta ezin isildu. Eta eguna argitzen ari da. Halako batean, Gaspar sartu da sukaldera luzetsirik. Amona seko ikaratu da itxura txar hartako asturianoa ikusita. Agirre tenientea ere gero eta urduriago, amona zahar harengatik gehiegi luzatzen ari direlako. Hartu eskuetan pistola eta han sartu da sukaldera:

–¿Qué dise la vieja? –esanez.

Ukuiluan daudenek bukatuxeak dituzte txerri-lanak: burua erdibitu eta urdaiazpikoak kakotik zintzilik, beste puskak elkarren gainean tolestuta. Hartu denak eta kanpora. Baina, bat-batean, mendia adinako bi gizon: Antxubia eta Etxalde.

–Neure txarrixe ostu nahi dauste. Ez egiozue holakorik egiten itxi –garrasi amonak leihotik.

Gainera, Antxubiak ezagutu egin du Iñaki.

–Zu zelan zagoz honeikin, euskalduna izanda? –ekin dio.

Baina laster joan zaizkio lainezak, Agirre tenientea mekaguenka eta “apunten armas, muchachos” oihuka hasi denean. Usu demonio sartu dira bi gizonak sukaldera, amonaren ondora.

Ezteietan ibili dira gure gudariak ondorengo egunetan, hamar arroako txerriaren jaki goxoak janez. Baina pozak denbora gutxi irauten du gerran. Hegazkin bat azaldu zaie laino artetik. Beren *Aitona* dela uste dute. Zaharra delakodo deitzen diote beren hegazkinari *Aitona*. Aurreko mendian dagoen etsaia astintzera datorrela deritzote.

Zakurraren putza! Jirabira bat egin eta berengana dator, zuzen eta erasokor.

–Lurrera, denok –egin du oi hu Urdiñak.

Bestela, txikitzen ditu guztiak. Berentzat harturik zeukaten txabolaren teilatua bakarrik puskatu zuen botatako bonbak. Gaitz erdi, hala ere!

Handik Markinara bidean abiatu dira, hegazkin alu hura berriro azaldu baino lehen. Menditik behera doazela, bizkar gainean manta zuri bat dutenak ikusi dituzte.

–Moroak dituk –ikaratu dira, ordurako zabaldua baitzen jendilaje horren fama txarra, ankerrak omen direlako neskatekin eta atxilotuekin.

Baina, zorionez, mandazainak dira, eguraldi euritsu hartan ez bustitzeko bizkarretik manta zuri bana zutela. Eta haiei esker jakin dute frankistek oraindik hartu gabe daukatela herria. Berebiziko ongietorria egin diete heldu orduko. Gose zaharra dute, baina ongi aseak geratu

dira. Zauritu bakarrarentzat ere mediku gogotsua aurkitu dute.

Eta hantxe azaldu zaie, bat-batean, hain miretsia duten don Alberto Onaindia, bere sorterrira eta sortetxera egun batzuk igarotzera joana. Ez zuen Joxinixiok berarekin inoiz hitz egin, ez baitzuen behin ere topo egin. Aitzol da bere etxekoa. Eta, bat-batean, aurrez aurre zeukan apaiz eta kalonje famatua. Bostekoa ematera bakarrik ausartu da Joxinixio, lotsati samarra baita ezezagunarekin mintzatzeko. Baina Onaindia ohitua dago hizketan eta jende handiarekin harremanetan. Eta Molarekin bakea hitzartzeko egin dituen ahaleginen berri eman die:

–Jainkoaren izenean egiten omen duten gerrarentzat gu kristau katoliko euskaldunok berorien kontra eta Errepublikaren alde borrokatzea oso kaltegarri zaielako nahi dute gurekin nola-halako bakea. Baina faxista horiek ez dute demokrazia eta Euskadi birrindu arteko onik. Ez duzue, beraz, gerran segi beste irteerarik –jarri ditu jakinararen gainean.

Markinan halako ongietorria egin eta, hala ere, sekulako tristura sartu zaio Joxinixiori gauerako. Merdilladi eta Andoain etsaien mende daudela gogoratu zaio.

“Nola ote daude nire ama eta anai-arrebak?”, galdetzen dio bere buruari. Oraindik ez baitaki Luzia, Donostiara ezkonduetako bere arreba, Bizkaia aldera ihes egina denik. Ez daki, jakina, Pepe Ibañez de Landaluzea injineruaren bisita izan dutenik. Ezta berak ezagutu zuen Pepe hori nolako bilaua den ere.

Pepe Ibañez dotorea eta adeitsua ezagutu zuen Joxinixiok. Bi urte besterik ez dira herrira etorri zela eta andoaindar egina zegoela zirudien. Bertako neska polit bat ere egin zuen andregai. Baina laster antzeman zion Joxepik itxura guztien kontrakoa zela. Hain harroa da Ibañez,

ezin aitortu neskak utzi duela eta, bere burua edertzeko, Merdilladiko Joxinixiori egotzi dio errua. “Neska, neska, euskaraz ez dakien horrekin ezkondu behar al dun?”, hoztu eta zapuztu omen zion andregaia.

Orain arte beste inork ez bazion antzeman, orain azaldu da nolako gizatxarra den Pepe. Abertzaleen etxeetako bitxi eta balioko gauzen lapurretan eta salagarriak gerta daitezkeen paperen bila dabil, mehatxuka. Iritsi da Merdilladira ere. Badaki maizterrak direla eta baserri hartan ez dela altxor baliotsurik. Baina paper salagarrien bila etorri da. Etxeberriatarren zorionerako, hala ere, berandu. Sutan erreak dituzte denak. Eta ez du Joxinixiorik ere aurkitu.

–Non da? –galdetu dio etxeakoandreari, petral.

–Donostiara joana da –erantzun dio, ikarati.

–Kostako zaio berriz itzultzea –mehatxatu eta alde egin du, marmarrean.

Honelako ezer ez dakienez, Joxinixio bere neska eder, apain, lirainarekin gogoratzen da: “nola ote dago hainbeste gustatzen zaidan Usamendiko Iñaxi?”.

Baina tiroak eta bonbak ondo samarrean lehertzen zaizkizunean, laster ahazten dira tristurak, mirak eta maiteminak. Egun haietako batean iritsi da armamentu pila Bilbora, eta gogor jo beharra dago Gipuzkoa-Bizkaia mugetan, etsaiak aurrera egin ez dezan. Mendira, beraz, berriro.

Orduantxe jakin du Iñaki Alkain, bertsolari laguna, Gernikara iritsi dela. Tolosako Urdiña lagun, laster joan da gudarien kuartel bihurturik dagoen agustindarren komentura. *Euskalduna* konpainiara ekarri nahi dute Iñaki.

Izan ere, Gipuzkoa menderaturik, Bizkaia azpiratu nahi dute faxistek, Molak irailerako ondo antolatua bai-teuzkan bere ejertzitoak. Bera ezin zen, jakina, hainbeste

tokitara iritsi: Gipuzkoa, Huesca, Soria eta Guadalajaraino. Eta Madril aldera ere ez du begirik kentzen. Mola ez dago gerra irabazitakoan atzean geratzeko.

Horregatik, Solchaga komandantea izendatu du Nafarroa eta Gipuzkoako nagusi. Irun, Errenteria, Pasaia eta Donostia irailaren 17rako menderatu zituen, Bilbo du jo-puntu. Horretarako, hiru tropa osatzen ditu. Bata, Iurretagoiena teniente koronelaren mendean, itsasertzeko herriak, eta Zestoa eta Altolako bainuetxeak eskuratzeko. Bestea, Los Arcos teniente koronelaren aginduetara, Tolosatik abiatu eta Azpeitian eta Azkoitian barrena Elgoibar aldera jotzeko. Hirugarrena, Alonso Vega teniente koronelaren esanetara, Arlaban eta Gatzagan zehar Eskoriatza eta Arrasate aldera sartzeko.

Hitz-aspertu handia egin dute egun honetan bi bertso-lariak. Andoainen izugarrikeriak eginak ziren ordurako, txango luze samarra egin baitzuten aurrera ezin eginik, Buruntzatik zetorkien eraso ezin gainditu zutelako. Lapurretak, sakeoak, hilketak, zer ez dute egin? Luzea da fusilatutakoen zerrenda Larramendiren herrian: Nemesio Fernandez, Gregorio Martinez, Jose Maria Lasa, Jose Arana Etxenagusia, Antonio Arantzabal, Kruz Aldasoro, Pio Arzallus, Migel Amundarain, Frantzisko Fernandez, Faustino Aldaz, Migel Urretabizkaia, Sixto Prestamero, Esteban Olalde, Sekundino Anton eta Blas Rubio. Lur jota gelditu da Joxinixio bere sorterriko sarraski horiekin.

Baina Iñaki Alkainek badaki unerik larrienean ere barrerri gertatzen diren xelebrekeriak egiten.

–Gogoratzen al haiz Andoainen jokatu zenuten bertsolari-txapelketa hartaz? –aldatzen du hizpidea Alkainek.

–Nola ez nauk, ba, gogoratuko, txapela neuk irabazian eta? Egun seinalatua zuan, Korpus Eguna, ekainaren hamaika. Hemezortzi bertsolari geundean iragarrita, bai-

na hamaika bakarrik ausartu gintuan: Lubarritza, Laka, Berrozpe, Itsaso, Ubalategi Txiki, Bentaberri, Ixkurrain, Aramenea, Benezí, Otaegi eta ni neu.

Iñaki Alkainek, jakina, bertsolari hobetzat du bere burua:

–Ni han izan banintz ez huen hik txapelik jantziko, non eta hain etxekoa duzuen Aitzolek nabarmenkeria lotsagarriren bat egiten ez zuen. Gogorutzen al haiz nolako egurra eman nian ondoren batzokiko afalondoan?

Baina Joxinixio ere ez da kamutsa hizketan hasten de-nean:

–Txarrean hautsiko ninduan, bertso kaxkarra franko bota huen eta. Gainera, ahaztu egin al zaik txapeldun nintzela nola aitortu huen bertsoan? Gogoan zeukaat oraindik erdia bederen:

Zu, Merdillegi, zorion sutsuk
aurren-aurren bereala,
ikusi det nik zure erriko
bertsoz txapeldun zerala.

Elkarri bertso pare bana ere bota diote, festagarria baita Alkain. Asko lasaitu da Joxinixio. Hurrengo egunean, Basalgo mendira joko du andoaindar, tolosar, hernaniar, urnietar eta abarrez osatutako *Euskalduna* konpainiak, Urdiña buru duela. Elgeta eta Eibar aldera dago Bergara udalerriko Basalgo auzoa. Hamabost bat egun egin dituzte, Bergaratik Uberan barrena datozen erreketete, mairu eta enparauei eutsi nahian.

Efisiak, Sagastumeren andregaiak kontatzen duenez, Francok bidalitako moro haiek hamaika neska bortxatu dute egun haietan. Berak bezperan ihes egin zuen aterpeturik zegoen baserritik. Elgeta menderatu dutenean ere,

sari antzera, eman zaien ordu pare bateko atsedena dia bilau eta ankerra izan da. Egun-argiz ikusi zuten neskatila bortxatzera sartu dira Pedro Telleriaren baserrira. Alaba babesten hasi den aita tiroz hil dute. Aitaren ondoan zegoen alabari ere bi hatz moztu dizkiote. Hurrena, Pantxike ama eraitsi dute zerraldo, buruan tiroz jota, alabari eusten ziolako. Hamahiru urte besterik ez dituen Anttoni gupidarik gabe bortxatu dute, txandaka.



Ixarkundia batailoia.
© Sabino Arana Fundazioa

VII

Basalgo menditik Bermeora joan da batailo guztia, berantolatzeko eta jende gehiagoz osatzeko. *Itxarkundia* izena hartu du orain, Felipe Lizaso errenteriarra komandante duela. Joxinixio Etxeberria, ordea, espioitzarako aukeratu dute, mendian ibiltzen zuhurra, aztia eta sena handikoa delako.

Motorista bat, ertzain lerden bat, etorri da Hotel Carltonetik, Jose Antonio Agirre lehendakariaren mandatua-rekin. Motorista oso ezaguna bidali dute, Iñaki Eizmendi, Basarri bertsolaria, hain zuzen. Hura besarkada, zer arriskutako mandatua zekarren ahazturik! Eta hura hitz-as-pertua! Mendirik mendi dabilen Etxeberriak baino berri eta kontu gehiago entzuten baititu Basarrik Bilbon, Eusko Jaurlaritzako agintarien ondoan, eta *Eguna* egunkariko lagunen artean.

–Esaio lehendakariari, baietz, haren zerbitzurako naukala –da Iñaki Eizmendi ertzainak Jose Antonio Agirrerri itzuliko dion erantzun prestua.

Baina lantegi arriskutsu horretarako Alkain eskatu du laguntzat, zalapartatsua baldin bada ere, ausarta eta alaia delako.

Bermeon duten kuartelera asko bildu gabe ibiliko dira hortik aurrera. Berriatua eta Markina aldean trebatuko dira aurrena beren lan horretan, lehendik ere alderdi hori hobeto ezagutzen dutelako, eta Tomas Gerrikagoitiak asko lagunduko dielako. Hantxe ezagutu zuten Jose Sagarna Uriarte, 25 urteko abade gaztea, hilabete pare bat lehenago apaiztu eta meza berria eman zuena, ilusioz betetako aingerua, batere azpikeriarik gabea. Berriatutik mendiz Boli-barra doala egin du topo erreketeeekin. Meza eman behar

duela jakinarazi die. Toki berera joan beharra dutenez, elkarrekin egiten dute ibilaldia.

Herriaren sarreran dago, ordea, zoritxarreko karlista salataria:

–Hau ere etsaia da, abertzalea.

Erreketeek ez zuten beste auzirik eta epaiketarik behar: bi tiro eta gorpu, gure abade gaztea. Erabat lur jota geratu dira bi espioi bertsolariak, ezeren errurik ez zuen apaiz gazte ezaguna hil dutelako. Euskadi osoan, noski, baina Berriatua inguru horietan hezurretarainoko nahigabea eta zukurutza sartu du hilketa horrek.

–Jainkoaren izenean abade bat hil dute –diote, isilkamisilka, konfiantzakoen artean.

Eta miraria gertatu dela zabaltzen:

–Abadea hil duten ondoan arbola eder lerdena hazi da, bat-batean.

Etxeberrriak eta Alkainek ez zuten espioitzan lan handirik egin behar izan. Tomas Gerrikagoitiak ondo baino hobeto zekien etsaia non zegoen eta nondik barrena zetorren, eta zer giza indar eta zer iskilu eta arma dituzten.

Azaroaren azken aldera, Arabako mugetara abiatu da *Itxarkundia*, autobusetan. Hain zuzen, faxistek inguraturik zeukaten Ollerias, Elosu eta Nafarrate ingurura. Legutio nahi dute eskuratu bi aldeek. Izan ere, bidegurutze da Legutio, Bizkaiko bi errepidek eta Gipuzkoako beste batek egiten baitute Arabako herri horretan topo. Hori da eusko gudarientzat 16 kilometrotara dagoen Gasteiza iristeko igarobidea, eta hori da faxistentzat ere Bizkaira barruratzeko biderik erosoena.

Berde daude oraindik soroak eta belazeak. Bildu gabeko artasoro horixkatuek eta larrean dabiltzan artalde xuriek bakarrik hausten dute berdetasuna. Beltzaxkak

daude pinudiak. Baina gainontzeko zuhaitzek gaztaina eta urre-koloreak hartu dituzte. Gorri daude garo eta garebanak. Hori, zahartu eta azpigarritako belar zakarra. Kuleto edo kuletro tortokak dirudite, teilatuak gorri eta azpiko hormak txuri, urrutiko herrixkek. Udazkeneko mila kolorez jantzi da Bizkaia.

Bideko orbelak harrotuz doa autobusa. Azkeneko artoak sartzen eta ganaduentzat arbi eta erremolatxa-hos-toa biltzen ari dira baserritarrak. Mozteko moduko belar gutxi dagoenez, larrean dabilta behiak; gorriak eta arreak gehienak. Aitonak zaintzen ditu, biloba ttikiarekin, larre motxa baino tentagarriagoa zaien aza sailetik. Behor, zaldi eta moxal gehienak mendian bakarrik ikusten dira. Artalde gehienak ere ez dituzte oraindik menditik jaitsi. Autobusetik ez dira ikusten, baina sagarrak eta gaztainak bilduak badaude ere, sagardoa baita urte guztiko edari, eta gaztaina neguan eguneroko afari, taloa eta esnearekin batera, Joxinixiok badaki sagastietan eta gaztainadietan beti geratu ohi direla ale batzuk. Eta badaki, Domu Santu edo Santu Guztien eguna igarotakoan, edonork duela geratu diren aleak biltzeko eskubidea. “Goseak ez nauk hilko, behintzat, sagastirik eta gaztainadirik dagoen lekuetan”, pentsatu du Joxinixiok.

Iritsi da autobusa helmugara.

–Gaur gauean Ubidera joan behar diagu espioitzara, etsaiak zer daukan ikustera –jarri zuen jakinaren gainean Joxinixiok bere laguna.

–Urrietako batzokian eman nian hitza gogoan zeukaat, Joxe –hala deitzen dio beti Iñakik Joxinixiori–. Hik esandako guztia egingo diat.

Falangista-jantziz mozorroturik iritsi dira herrira, baina han ez dago kalean arimarik. Bakarra dago ganbara bateko leihatilatik burua aterata: Pepe Ibañez de Landa-luzea. Ez ezagutua egin diote elkarri. Joxinixiok entzuna

zuen injineru hura Arabatik etorri zela Andoaina. Ubidea, muga-mugan dago. Hala ere, harritzekoa da Pepe han ikustea. Eta, badaezpada, ez ikusi egin dio. Alkainek lasai begiratu dio bertaratuta, beretzat arrotza baita.

Joxinixiok esan behar izan dio, gero, mutil hura joan deneko bi urteotan Andoainen bizi dela. Eta harrিতта eta kezkatuta utzi duela.

–Figura horretan ez hinduan ezagutuko, motell –lasaitu nahi izan du Iñakik.

Joxinixiok ez daki Merdilladin izan denik, zertan gutxiago. Bestela bere atzetik dabilela pentsatuko luke.

Alkain *Itxarkundia* sailera itzuli da. Gasteiz aldean zer dagoen ikustera joan behar du Joxinixiok.

–Bakarrik joan behar al duk? –kezkatu da Iñaki.

–Bai, hala agindu zidatek; bi oso susmagarri gertatuko omen gaituk –erantzun dio azpi-armonian.

Burumakur abiatu da Etxeberria. Bere errainua bakarrik du lagun. Bazterrik bazter doala, luberri bat, aitzurto berri bat zapaldu du. Eta zakar pilaren ondoan, aitzurra, alkandora eta galtza zahar batzuk ikusi ditu. Andoainen ere egin zuen mendialde haietatik barrena, erreketarik-edo sumatzen ote zuen, ibili bat baino gehiago, akuilu edo kirten-gaien bila balebil bezala, aizkora gerrian. Jantzi ditu zakar pilako galtzak eta alkandora. Mandoa ere botako lukeen kiratsa zerien jantzi haiei. Hartu du aitzurra bizkarrean. Eta aurrera, beti ere gorde-antzean.

Ordubete badarama bidean. Hala ere, ez du inoren txintik sumatzen. Halako batean, patu txarra:

–Alto! –entzun du.

Ezin du ihes egin. Ez baitaki non dagoen. Oso hurbil duela bakarrik daki. Eta erreminta-punta zorrotza eta hotza sentitu du garondoan.

–Eres espía, ¿no? –galdetu dio, zehar-hitzik gabe, zakar.

–No, soy morroi de Jeronimo.

Sinesgarriago gertatzeko esan dio nagusiaren izena, badaki-eta falangista arrotz hark ez dakiela Urbinako inoren izenik. Joxinixiok ez daki erdara askorik, baina *criado* esateko adina bai. Estuasun hartan, ordea, *morroi* atera zaio.

–Desde luego, hueles a mierda. Pero dime la verdad: ¿eres espía?

Berrero erantzun berdina, gure bertsolariak.

–Me cago en... –bota du egundoko biraoa, Etxeberriak Merdilladin sekula aditu ez zuena.

Eta saihetsean fusilaren punta jarri eta:

–Ven conmigo –agindu dio, petral eta harro.

Joxinixiok ez du egundaino halako izerdi hotzik gorputz guztian sumatu. “Nireak egin dik”, pentsatu du. Suma ahalak esaten dizkio falangista bibotedunak, Urbina bidean. Hango maldizioa eta mehatxua. Tarteka astindu ere astintzen du bere fusilarekin. Ez berehala, baina hor ohar-tu da bizkarrean daraman aitzurra arma arriskutsua izan daitekeela.

–Echa la azada al suelo –libratu nahi du arriskutik.

Polizia-lanetan eskarmentu gabea, noski, gure falangistak ez du behar bezalako segurtasun-neurririk hartu. Joxinixiori, ordea, herio hartan, buruak azkar egin dio lana: aitzurra lurrera jaurtitzeko itxuran hartu eta hor jo du gizatxar hura bete-betean. Borrarekin buruan jotako behiak ere ez du halako antsiarik eta marrurik egiten.

Erbia baino arinago abiatu da Joxinixio *Itxarkundia* saileko lagunetara. Zakur guztiak orpotik balitu bezala egiten du korri ezkutalekuetan barrena. Ez du uste falan-

gista hura hil duenik, ez baitu buruan jo. Ez du, behintzat, hil duenik onartu nahi. Ikaragarria iruditzen zaio Merdillei bertsolariari gizon bat hiltzea. Bestalde, ordea, bere bizia ere arriskuan zeukan. Dena den, ez du hil duenik uste. Hori bai, badaki ez duela aldi batean tiro handirik botako gudarien kontra. Eta hori ere pozgarri zaio.

Gasteiza abiatu zen Joxinixio. Militar asko dagoen, zer armamendu daukaten, hegazkin berririk eskuratu duten eta, oro har, etsaiak zer indar daukan jakin dezan bidali dute eusko agintariek Gasteiza. Baina Urbinatik jira behar izan du, usu demonio. Egin duen eskapadarekin, berriz jaio dela deritza. Izerdi-patsetan dago oraindik eta, hala ere, izerdi hotza eta hortz-karraska etengabea dauzka. Dardara eta izu-ikara hartan, kristaua denez, eskerrik ere eman die Jainkoari, Amabirjinari eta bere-berea duen San Antoniori. Inoiz baino gehiago gogoratu da bere etxekeokin ere. "Bizi nauk eta ez zieat negar egiteko biderik eman", lasaitzen da.

Gehienetan bihotzean duen Usamendiko Iñaxi inoiz ez bezalako samurtasunez gogoratu du. Eta bere baitara bildurik, Iñaxiren edertasunaz ari da gozaten. Izan ere, goitik behera ondo egindako emakumea da bere maitea. Ez handiegia eta ez txikiegia, ile-horia, begiak berdexkak, aurpegia borobil-antza, ezpain txiki politak, gerri mehattari lotutako giltzagainak eta bularrak, zabalegiak eta handiegiak izan gabe, nabarmen, bernak gutxik bezalako zuzenak eta dantzan gona izurduraduna harrotutakoan ikusten zaizkion belaunburuak, tentagarriak. Iñaxik ez du akatsik, munduko neskarik ederrena da Joxinixioentzat. Baina edertasun guztien gainetik bere irribarre goxoa du liluragarriena. Bere ezkutuko maitea ikusteak edo haren gutuntxo bat hartzeak berebiziko zoramena emango lioke. "Baina onartuko al lidake falangista horri egin diodana?", sumatzen du barruko harra ziztaka.

Hurrengo egunean, Iñaki lagun duela, Nafarrateko apaiz euskaltzalearekin hizketatzen da: Txomin Jakakor-taxarena Berastegiko semearekin. Honek Gasteizko mugimenduen berri jakingo duelakoan bidali ditu Felipe Lizaso komandanteak. Besoak zabalik hartu ditu nork bidali dituen jakin duenean. Don Manuel Lekuonaren bidez aldatu zen herri honetara, Burgos ondoko beste batetik, ia galdurik zegoen euskara berpizte aldera. Zaharrek bazekiten euskaraz. Gazteek ere ulertzen zuten. Baina umeez ez zuten euskararik ikasten. Aurreneko egunetik hasi zen Txomin umeei kantuak eta dotrina euskaraz irakasten. Igan-deko sermoia ere euskaraz egiten die. Urtearen erdirako ohitu zituen ia gehienak elkarrekin euskaraz egitera.

Oso maitea dute herri ttiki hartan don Txomin, bertako jendearekin ibiltzen baita denbora duenean: segan, aizkoran, uzta biltzen eta abarretan. Maisurik ez dagoe-nez, eskola ere berak ematen die neska-mutikoei. Musika eta txistua ere irakasten dizkie. Harriturik geratu zen sendotzako sakramentua ematera etorri zen Mateo Mujika gotzaina, sei familiako herrian, *Agur jaunak* jotzen hiru txistulari ikusi zituenean.

Felipe Lizasoren izenean etorri direlako egin die bi gudariei halako ongietorria. Handiagoa egingo die, jakina, nor diren jakiten duenean.

–Nortzuk zaituztet? –galdetzen dienean, zur eta lur geratuko da erantzunarekin.

–Ezagutu al zenuen Patxi Etxeberria? –hasi da hizketan Joxinixio.

–Ezagutuko ez nian, ba! Ni baino sei urte zaharragoa zuan eta gazteak zaharragoa erraz ezagutzen dik. Gainera, hark Ezkio eta Itsason euskara irakasten egindako lanak askotan aipatzen genizkian Gasteizko apaizgaien artean. *Argia* astekarian zuzendari izan zenean ere askotan ira-

kurtzen genizkian haren idazlanak. Ez zekiat txatxu hura zergatik joan zen jesuita, euskararen eta euskal kulturaren alde egiten ari zen lanak utzita. Zertara joan behar zuen hark Txinara? –ari da berotzen Txomin.

–Ba, Patxi Etxeberria hori nire anaia da –entzun duen arte.

Zurbil geratu da Berastegiko semea, Joxinixio mindu duelakoan.

–Lasai, apaiz jauna –baretu zuen Merdilleik–, guk ere zuk bezala pentsatzen baitugu.

Han dago Iñaki Alkain biei begira. Okertuko ote diren ere bururatu zaio unetxo batean.

–Eta hau nor dugu? –galdetu dio Iñakirengatik.

Alkainek, Etxeberriari aurea hartuta, laster erantzun dio:

–Ez dakit behin ere entzungo zuen Urnietako Fernando Alkain bertsolariaren izena. Ni haren semea naiz, eta ni neu ere bertsolaria.

Iñaki ez da kokiltzen, eta ohoretzat du aita eta biak bertsolari izatea.

–Entzuna izango ez diat, ba! Hi ere ezagutzen haut. Hor ibili ez zarete, bada, Bertsolari Guduetan? Zuen argazkiak ere ikusiak dizkiat nonbait. Baita zuen bertso batzuk irakurri ere *Yakintza* aldizkarian.

Toki onean zebiltzan gure bertsolariok, Txomin ere bertsozale amorratua eta bertsogile egokia baita.

–Eta hor agertzen den eta Joxe Zubimendik hainbeste goresten duen Joxe Etxeberria andoaindar hori, ez zaitugu, ba, zu zeu izango? –sartzen dio ziria Joxinixiori.

Ez dauka erantzun beharrik, gorri-gorri egin baita gure Merdillei.

Baina Etxeberria eta Alkain ez dira bertsolaritzaz hitz egitera joanak, eta zer eginkizun duten azaldu die apaiz jaunari.

–Lagunduko dizuet, baina ez lehenago mokadu bat jan gabe.

Eta zerbait hartzen ari diren bitartean, faxistekin eta milizianoekin izandako gorabeherak aipatzen dizkie Txomin Jakakortaxarenak, urduri eta etenik gabeko jardunean.

Bi aldeetako tiroen erdian dago Txomin. Barazar, Ollerias eta Elosu aldean milizianoak jarri dira. Legution, berriz, faxistek jarri dute dorrean metrailadorea. Nafarrateko apaizak ondo ezagutzen ditu bazter haiek denak, basurde-tan ez bada, eperretan, eta ehizarik ez bada, amuarrainetan ez baita gelditzen, sasiz sasi, zuhaitziz zuhaitzi, soroz soro eta erreka erreka. Eta laguntza eske datorkio jendea: Gasteiz aldetik, ezkerrek eta abertzaleak, Bizkaira pasa nahian; Bizkaitik, berriz, eskuinak eta karlistak, Arabara joan nahian.

–Nik denei laguntzen diet –errematatzen du bere kontraera.

Denen laguntzaile da, baina bi aldeetan dauzka etsaiak. Eman dio Mateo Mujika bere gotzainari arriskuaren berri. Agertu dio *Araba* batailoiko kapilau joateko bere asmoa ere.

–Ez –erantzun dio gotzainak–. Zure parrokiako eliztar-
rrak zaindu behar dituzu.

Arriskua laster bilakatu da eraso. Aurrena, miliziano batek eraman du hormaren kontrara, pistola garondoan jarrita.

–Eskerrak ezker eta abertzale jendea pasatzen *Meabe* batailoiko komandantea-eta lagun eginak nituenari, bes-tela bertan garbitzen nau.

Hurrena, faxistek atxilotu dute.

–Legutiora eraman ninduten, gerrako garaikur gisa, kalez kale erakusteko. Gero, Gasteizko epaitegira, euskara suspertzen aritu nintzelako. “Gerrako agindua da: hemen-dik aurrera espainolez bakarrik hitz egingo duzu”, debekatu zidaten euskaraz egitea. “Gerrako agindua bada, saiatuko naiz betetzen”, eman nien hitza, bizirik ateratzearren. Eta etxera bidali ninduten.

Txomin hizketan ari zen bitartean, ongi garbituak zizutzen platerak Joxinixiok eta Iñakik.

–Beno, bada etsaia non dagoen eta nondik etor daitekeen erakusteko garaia –altxarazi ditu.

Kaxko batean dagoen elizara abiatu dira hirurak. Aurrez aurre, Legutio, faxistek hartua. Ezker aldera, Ollerias eta Elosu; han *Araba*, *Amayur* eta *Itxarkundia* daude kokaturik, faxistak bidali ondoren. Eskuinean, Urrunaga eta harantzaxeago, Urbina. Eta atzean, Betolaza; eta begi-bis-tarentzat zeruak eta lurrak elkar jotzen duten muga hartan, Gasteiz.

–Urrunagatik eta Betolazatik etor daitezke faxistak. Urrunagatik datozenek zubi hartatik igaro behar dute, egin dituen euriekin ibaia gainezka baitator. Betolazatik baletoz, mendixka horretatik azalduko lirateke.

Pozik doaz bi bertsolari espioiak *Itxarkundia* gudaros-tera, argibide egokiak eta konfiantzazkoak eman baitizkie Nafarrateko abadeak.

VIII

Jakakortaxarenak iragarri bezala, han datoz samaldan Urrunagatik eta Betolazatik Legutio aldera Molaren soldaduak; tartean, Gipuzkoan, Nafarroan eta Araban bildutako gazteak; batzuk, beren gogoz, gorriei eta gorriekin bat egindako abertzaleei erasotzeko faxisten artera bilduak; beste batzuk, faxistek agintzen duten herrietakoak, gerra-rra behartuak. Horietako bat da Martin Ezeiza asteasuarra. Honen anaia, Batista, ordea, Eusko Gudarostera Bizkaira joan zen. Martin, *Sicilia* batailoira eraman zuten. Anaiaren eta euskotarren kontra gerra egitera, hain zuzen. Gasteiztik Legutiora jo dute, Capitán del Pinoren agindupean.

Lehen, atzera egin behar izan zuten faxistek, baina oraingoan oldartsu eta indartsu datoz. Hango kainoi, mortero, metrailadore, mosketoi, fusil, tanke, automobil blindatu, esku-bonba eta hegazkin! Soldadu bakoitza ere bere fusil, kartutxera, kapote, manta, platera, kutxare, potixa eta maletaz hornitua. Hil ala biziko gatazka eta borroka jokatu da bi aldeen artean. Eta Legutioko elizan dagoen metrailadoreak ez die gutxi lagundu Albertia menditik su batean ari diren faxistei.

Abel Garin ez dator. Ibai ondoko makala bezain luzea eta makala da. “Abel Garin, habil arin” hots egiten zion leporaino iristen ez zitzaion Senpereko Mattin Pittinek Beasaingo eskolan. Maisu berriak bakarrik deitzen zion Etxezarreta. Baina bigarren egunerako Garin deitzen zion hark ere. Garindik etorritako familiakoa zelako deitzen zioten horrela. Eta soldaduskan ere halaxe deitzen diote, beasaindarrei ikasita. Ezeiza asteasuarrak deitzen dio “Largo Caballero”, biak bakarrik daudenean, txantxetan ere ez baitzegoen izen hori aipatzerik *Sicilia*koen artean.

Urtero joaten zen Abel Etxezarreta bere amonarekin Kizkitzara, irailaren 8an. Aurten ez du horretarako auke-
rarik izan. Etxean lasai zegoen gure mutil tantaia, erreke-
teek hartuta, Gasteiza eraman baitzuten *Sicilia* batailoira.
Baina Abel ez da gerrarako jaioa. Lehenengo tiro-hotsak
ikaratzen du. Zenbat aldiz eskatzen ote dio Kizkitzako
Amabirjinari, balaren batek besoren edo hankaren batean
zauri dezan. Amona Paxkaxik erakutsi zion estuasunean
Kizkitzako Amarengana jotzen. Eta mirari horren eskean
ari zitzaion gerran sartu zenetik. Alde ederrean zeuden
ospitalerako soldadu zaurituak Gasteizen. Baina Kizkitzako
Amabirjina ez izan Pilarekoa, eta beldur da bonbaren ba-
tek erdiz erdi txikituko ote duen.

Legutio aldean hartu duten egurrarekin erabat beldur-
tu da Abel Garin. Bere burua zauritzeko tentazioa sortu
zaio, ospitalera eraman dezaten. Baina bere burua zau-
ritzen duenarentzat heriotza-zigorra iragarria zegoen *Sici-
lia* batailoian. Norberak bertatik bertara botatako tiroak
erredura uzten duenez, berehalaxe antzematen zaio zer
egin duen. Ona da, bada, Pino kapitaina horrelakoei ez
igartzeko. Abel Garin kankailua eta makala da gorputzez,
beldurti hutsa izatez, baina argia buruz. Badaki zer egin:
morralean daukan ogia potixeko urarekin busti, besoaren
kontra jarri, eta tiro. Baita egin ere, etsaiaren zalapartak
eta tiro-hotsak hasi bezain azkar. Inor ez da egin duenaz
ohartu, eta Gasteizko ospitalera daramate. Zortea izan du
Abelek, tiroak ez dio hezurrik txirtxilatatu. Hezur-printza bat
bakarrik kendu dio. Zauri garbia du eta gerrako arrisku-
tik libratu da. "Amonak arrazoi zian: Kizkitzako Amabir-
jinak bazekik mirariak egiten", pentsatzen du ospitalerako
ohe zurian, *Siciliako* bere lagunak arrisku bizian dabiltzan
bitartean.

Ollerias aldetik datoz eusko gudariak. Herrian atseden
apur bat beren gorputzei eman, sabelak bete eta buru gai-

nean faxisten hegazkinak dabiltzan unean abiatu dira, Felipe Lizaso aurretik dutela.

Ollerias herri koxkor bat da. Hamabost edo hogei etxe inguru izango ditu. Nekazaritzatik bizi dira. Bere baserri eta mendietan bizi da oraindik gure euskara zaharra.

Denak ere gerra-kontuetan ezjakin samarrak, arratsaldeko hiruretan abiatu dira, alde guztietatik etsaiaren bistan dagoen bidetik. Kilometro-erdi bat ibili ondoren, *Itxarkundia* saila eskuin aldetik mendiratu da; ezkerretik, *Araba* doa. Ondo banandu eta goraka doaz, laster ikusteko Legutio. Hiru bat kilometro Ollerias herritik. Hemendik oso eskuinean eta pixka bat atzeraxeago, Elosu ikusten da. Poliki-poliki mendiaren zabalera guztia hartzen ari dira, Lizasoren "aurrera!" esanetara.

Bitartean, gudarien kainoiek eguerdian utzitako lanari ekin diote, goiz guztian Legutio aldera zuzendu baitituzte beren suak, herri guztia garretan jarriz. Ikusi behar, sinesteko, eusko gudarien trebetasuna. Zaurituak erortzen ari badira ere, lehen baino adore gehiagoz, lehen baino kemen gehiagoz doaz. Bertaratu dira. Bostehun metro besterik ez herrira iristeko eta, zapla!, guztia hondatzeko, aurreko egunetako euriaz hazitako ibai bat; eta, hau gutxi balitz, gaua gainean. Hotz egiten du uretan sartzeko, baina Koldo Mitxelena ez dute ikaratu ez hotzak eta ez ur handiek, igeri ondo dakienez. Zabala laguna, igeri ez dakiela ohartzeko, sartu da atzetik ibaira. Beheraxeago zegoen zuhaitzaren adarrari esker atera dute ito baino lehen.

Gudari gehienak lehorrean geratu dira. Hango zuhaitzak moztea gudariak igaro daitezen, aurrera jarraitzeko asmo biziak! Hemengo igeri egin beharrak! Eusko aldeko hots eta zalaparta guztia alferrik, era honetan jarraitzea gaitza eta arrisku handikoa izanik, goiza arte itxoin behar azkenean.

Zapadoreak gau guztian lanean, igarobideak egiten. Beribilak igarotzeko botatako zubia ipini ondoren, goizeko lauretan ekin zaio aurrera.

Hemengo alde banatatik odol-isurtzea! Esku batean fusila, bestean bonba. Gasteiz aldetik datozen munizioz betetako lau kamioiri erreketeez berek su eman diete beldurraren beldurraz; leihoetatik tiro batera, tiro bestera, bonba han eta hemen. Horko kainonazoak ez dira txanxetakoak. Tamalgarria, ordea, su-garra bukatzen ari da. Alferrik sartu da, gaueko ilunaz baliaturik, *Itxarkundia*, Felipe Lizaso buru duela, Legutiora, eskuin aldetik, eta hiruzpalau etxetan babestu. Lehoiek gordeko ez lituzketen eran zaindutako etxeak, hainbeste odol eta bizi galdu ondoren, utzi beharra izan da.

Hemengo gertaera asko ez dira ahaztekoak. Eta ez dituzte ahaztuko ere bizitza osoan: 600 hildako eta 400 gaitibu jausi dira faxisten atzamarretan. Hemen galdu dute bizia, besteak beste, Gorostidik eta gudariek hain maitea duten Urdiña kapitainak. Lehenengoak, azkeneko bonba botatzearekin batera aurkitu du heriotza. Urdiña kapitaina, berriz, beti aurretik zebilen ikasbidea emanez mutilei.

–Beti aurrera! –zioen.

Eta norbait ohartu zaionean bost bala besterik ez dituela:

–Nahikoa duk horrentzako –esan eta gorantz lehen baino biziago ekin dio, gehiago ez altxatzeko erori den arte.

Orduan ere bere azken hitzak horiek izan dira:

–Aurrera, mutilak, gurea dek eta!

Faxisten indar hura ikusi orduko, *Araba* batailoira jo du Txomin Jakakortaxarenak, hango mutilen kapilau izateko asmoz. *Meabe* batailoiko komandanteak ere egin dio eskaintza.

–Horixe besterik ez nuke egin behar apaizok gorriak eta separatistak garella erakusteko –erantzun zion.

Gainera, *Araba* talde horretan dauka ezagun gehien, bere eliztar batzuk eta, besteak beste, bera bizi den etxe-ko nagusi-etxe-koandreaken seme bat. Lehen, bertan gelditzeko agindu zion Mateo Mujikak; orain, Espainiako beste bazterren batera joan behar duela agindu dio militarren presioz. Baina Txominek nahiago du Euskadiren eta askatasunaren alde gudan ari diren gudariei laguntzea.

Hango sua bukatu denean, Otxandion babestu eta gotortu da Eusko Gudarostea. Martin Ezeizaren *Sicilia* konpainia, ordea, Legutition gelditu da. Badu lanik aski hildako haiek denak lurperatzen. Han daude pendizetan, belazetan, lubakietan, nonahi, zerraldo. Egin zuloa, eta plasta, barrura. Lur puxka bat gainera, eta kito. Baina ez Martinek hildakoaren aurpegia ikusi gabe, Batista den ala ez den ondo ikusi gabe. Eta gerrate guztian horrelaxe, bi anaia: Martin, Batistaren gorpua noiz ikusiko; eta Batista, Martinena noiz aurkituko.

Bizkaiko lehen herria da Otxandio. Legutiora eta Durangora daraman errepide bat dauka; beste bi kamio Mekeletara eta Dimara iristen dira; Olaetara ere badu beste adar bat. Ola eta errementeri asko izan du, baina nekazari-herria da batez ere. Dorre zoragarriko eliza ederraren inguruan eraikitako herri polita da. Eta dorreak balkoi proposa du lau aldeetara metrailadoreentzat. Hortxe gotortu da Eusko Gudarostea.

Otxandioko lerroa zulatu beharra dauka, ordea, Molaren ejertzitoak, Bilbora iritsi nahi baldin badu. Izan ere, Barazar, Sumeltza eta Urkiolako mendateak gaintitzeko ezinbestekoa da. Eta Otxandiora abiatu dira Brigada I eta Brigada IV; Legutiotik, bata, Leintz herritik, bestea. Sarrera errazteko, hegazkinak erasotzen diote herriari,

martxoaren azken egunean. Guztira, 98 tona bonba eta 45.000 bala bota dituzte. Apirilaren 3an hasi da brigaden lurreko eraso. Martxoaren lauan inguraturik dute Otxandio faxistek. Eta, hegazkinen zaparrada ere atertzen ez denez, Barazar, Sumeltza eta Urkiolan babesten da Eusko Gudarostea.

Gogorra izan da negua Bizkaiko gain horietan: haize hotza, euria, bisutsa, txingorra, elur-lapatxa. Lotarako etzan aurretik kendu behar izan dute gudariak txilar gaineko elurra. Esnatu ere esnatu dira behin baino gehiagotan elurrez estalita.

Negu gogorra jasan behar izan dute. Udaberria ez dator goxoagoa. Lurretik indartsu eta goitik indartsuago datozten faxistei eustea ezinezko bihurtzen ari da. Breguet XIX izenekoak baino bizkorragoak datozkie Alemaniatik eta Italiatik. Hasieran, jakina, hegazkin horiek erabiltzen zituzten frankistek, Espainiako armadak 1924an erosiak. Gehienez ere, 440 kilo eramane zituzketen. Atzealdean, bi metrailadore zituzten. Zaharkituak zeudenez, ez zuten joan-etorri luzeak egiteko balio. Alemaniatik *Legión Cóndor*reko Junker 52 eta Heinkel 51, eta Italiatik Savoia 79 eta Savoia 81 etorri zitzaizkienean baztertu zituzten lehen-go zaharrak.

Orduan bai ez zela giro. Goldatuta bezala, gorri eta harro uzten dute mendi gaineko lur guztia. Laster egiten dituzte Gasteizko aireportutik Urkiola, Durango, Gernikan barrena joan-etorriak. Ikustekoak dira bata bestearen atzetik hegan doazenean: hiru motorreko hiru hegazkin indartsu aurrena; atzetik, beste hiru; geroxeago, sei; ondoren, beste sei, atzetik zortzi ehiza-hegazkin dituztela, sekulako piribueltak eginez.

Lau tona bonba astun bota dituzte Durangoko herriaren gainera. Paperezkoak bailiran erori dira etxe batzuk.

Santa Susanako mojen kapilan lehertu denak 14 moja hil ditu; Andramari parrokian, meza ematen ari den Carlos Morilla asturiarra; jesuiten elizan, Jauna ematen ari den Rafael Billalabeitia jesulaguna. Guztira, 127 gorpu aurkitu dituzte hondakinen artean, eta zuloz betetako kamioetik Bilboko ospitaletara eraman dituzten zaurituetatik beste 121 hil dira ondoko egunetan.

Asaldaturik, milizianoek hamahiru preso espetxetik hartu eta hil dituzte kanposantuan, inori ezertarako astirik eman gabe.



Itxarkundia batailoia (eskuinean, Koldo Mitxelena).

© Sabino Arana Fundazioa

IX

Gorbeia Txiki mendian barrena dator Dima aldera Molaren *Sicilia* konpainia.

–Gure Batista ere hemen ibiliko duk, ba, nonbait. Hau ere marka duk. Beti hain elkar maiteak izan gaituk eta orain hemen elkar hil behar ote dugu? –kezkatzen da Martin Ezeiza, amets gaiztoa egia bihurtuko ote den beldurrez.

Dimako herrian geratua da *Itxarkundia*. Erne, jakina, atzetik baitu *Sicilia*. Eta kezkaz, ahulagoa denez. Eta “tikiak asmoz eta jakitez bentzitu behar handia”. Dimarrak abertzale sutsuak dira, ia salbuespenik gabe gainera. Aita Lino Akesolo herriko seme karmeldarra ere kapilau joana da *Itxasalde* konpiniarekin.

–Nola eutsi oldartsuago datorren etsaiari? –kezkaturik da Felipe Lizaso komandantea.

–Tranpa jarri behar diogu –erantzun zion Joxinixiok.

–Nola, ordea?

Joxinixiok pentsaturik dauka trikimailua.

Gau osoa igaro du Joxinixiok Pedro Agirrezabalago-geaskoa aitonarekin hitza eta pitza. Ez alferkerian, ordea. Artazuriketari jardun du Pedrok arratsaldean. Orain arte, auzoak elkarrengana bilduz egiten zuten txandan lan hori. Hamaika kantu, bertso eta ipuin entzuten zen baserrietako mandio eta ganbaretan. Neska batek baino gehiagok ere aurkitu du hor bere bizitzako mutila. Eta alderantziz.

Baina aurten inor gutxi ausartzen da gauean etxetik kanpora ibiltzen. Kontu txar asko ere entzuten baita: urliari txahal-diru guztiak kendu dizkiotela bidean, sandia lurrean zerraldo utzi dutela bi tiro emanda, berendia bor-

txatu egin omen dutela. Egiak edo gezurrak, kontu bel-
durgarriak ia egunero. Horregatik dauzkate baserrietan
oraindik arto guztiak zuritu gabe.

Eta arratsaldean zuritu dituen artaburuak aletu egin
nahi ditu Pedrok orain, errotara eramateko, irin faltan
baitaude taloak egiteko. Joxinixio ere askotan jarduna da
lantegi horretan. Saskia belaun artean dutela aurrez aurre
eseri eta aletu eta aletu ari dira, kontu kontari.

Sabino Arana ezagutu zuen aitonak harrigarritzko mi-
resmena sortu dio Joxinixiori. Pedro bera ere bero mintzo
baitzaio abertzaleen maisuaz.

–Hark erakutsi deusku Euskadi dela gure Aberria eta
euskara dela gure hizkuntza. Eta Euskadi askatzeko eta
euskara indartzeko sortu eban gure alderdia. Sabino izan
ez balitz gureak egin eban –errepikatzen dio Pedrok Joxi-
nixiori, era batera eta bestera.

Aranaren lagun min ziren Ebaristo Bustintza “Kiri-
kiño” idazlearen eta Gorgonio Renteria mitinlariaren berri
ere eman dio. Gorgoniok *Euzkadi* egunkarian idatzi berria
duen pasarte bat irakurtzen dio:

–Gaur Euzkadi gure Aberrijaren jaube dan España la-
terriak, eta baita beste laterririk geijenak be, euren men-
pean dabezan enda ta errijari goguak ekandu ta aldatzea
izan daroe lanik premiñazkoena. Alperrik eragozpen guz-
tijak, alperrik espetxea, izkillu ta eriotzak, gogo bizirik
eta aske daben errija jagiko da eragozpen guztien ganetik
jarrartzeko izadi indar neurrigeak daragitsen bidean.

Gau hartan, ordea, Joxinixiori asko gustatzen zitzaiz-
kion azti eta sorgin-kontuak ere gogoratu zizkion Pedrok.
Anbotoko Mari eta Dimako Sugoi aipatu zizkion, batez ere.
Joxinixiok bazekien, Praixku anaiak kontatuta, Mari jain-
kosa nor zen: haitzuloetan bizitzen zela, eta emakume eder
eta apainaren antzera agertzen zela; batzuetan, sugarre-

tan, erratzaren gainean; besteetan, akerraren bizkar gainean, edo inoiz hegaztien hankekin. Praixku, ordea, Txindokikoaz mintzatu ohi zitzaion. Pedro, berriz, Anbotokoaz.

–Batetik bestera txandatzen dela Mari, diote Mañariarrek: zazpi urte Anboton, zazpi Oizen eta beste zazpi Muggarran. Aralarren, Aizkorrin eta Murumendin ere aldiak egiten dituela dioenik bada. Baina ez da egia, Anbotoko dama Anboton bizi da beti –ziurtatzen dio Joxinixiori, fedeko egia bailitzan baino seguruago.

Baltzolako haitzuloan bizi den Dimako Sugoi ere aipatu dio. Beste zenbait lekutan Sugaar (suge ar) deitzen zaio. Diman Sugoi.

–Bizkaiko Jaunak horri zor omen bere jatorria. Mundakan bizi zen printzesa bat, Eskoziako erreginarene alaba, utzi omen zuen haurdun Sugoi horrek. Bederatzi hilabetera seme eder bat jaio zen, eta Jaun Zuria deitu, Bizkaiko lehen Jauna –argitu dio istorioa Pedrok Joxinixiori.

Gerraz ahaztuta joan zaie gaua, baina bezperako galdera bera egiten du goizean Felipe Lizasok:

–Nola eutsi etsaiari?

Joxinixiok, ordea, sekula baino garbiago dauka erantzuna:

–Aitona hau, Pedro Agirrezabalagogeaskoa, sabindar sutsua, prest dago bidera irten eta gezurra esateko: “Beste horiek dena kendu didate eta zuengana nator laguntza eske”. Pedro prest dago hiltzeko ere: “Adin honetan hiltzeko be bildur gitxi”.

Dimako etxe guztiak, hutsik baleude bezala, leiho eta atearak itxita jartzea erabaki dute. *Itxarkundia* taldeko gudarriak etxe horien barruan kokatuko dira. Etsaia hurre-ratzen denean, zirrikitu guztietatik erasoko diote. Hori lortzeko Pedro Agirrezabalagogeaskoa aterako zaie bide

erdira. Pinudiaren ezkututik, berriz, Joxinixio izango du lagun, asmoak oker ateratzen badira, etsaia baino lehen Dimara itzul dadin.

Bide erdia egina dutenean, Joxinixiok ezkututik eta Pedrok ageritik, Agirrezabalagogeaskoa bide-ertzeko koskan eseri da, arnasestuka itxuran, oso gainean baititu *Sicilia* batailoiko soldaduak. Etxeberria, pinudiko zakar artean gorde da, erraz ihes egiteko moduan.

–Zenbat jende dago Diman? –galdetu dio kapitainak Pedrori.

Baina aitona hark ez daki tutik ere erdaraz, eta kapitainak ere ez euskaraz. Eta Ezeizari eta beste euskaldun batzuei agindu die aitonak zer dioen jakiteko.

–Hor ez dago bixitzerik, hor ez dago bixitzerik –errepikatzen du gure sabindar prestuak–. Beste askori bezala, niri be lapurtu daustiez etxean nebazan behiak, txahalak, oiloak eta gauza guztiak lapur zikin horiek. Aspertu naz jente horrekin bixitzen eta zeungana etorri naz.

Kapitainaren aginduz galdezka jarraitu du Martin Ezeizak:

–Jende asko al dago Diman?

Serio erantzun dio:

–Ezta katurik be. Alde egin dabe denek, beren kainoi eta gerrarako tresna guztiak hartuta, beste mendiaren atzera. Bake ederra laga dabe.

Amorraizoz eta gorrotoz beterik hitz egiten duela dirudi Pedrok. Baina kapitaina, sineskor, hala ere, gerran tranpa asko jartzen baitzaio elkarri. Eta berriro kapitainaren aginduz:

–Egia esaten al diguzu? Bestela, bertan hilko zaitugu.

Egia esaten zuela bermatzeko trikimailu ederra asmatu du:

–Ez bazarie fidatzen, neu joango naz aurretik.

Ondo iruditu zaio kapitainari, ez baitu uste bere bizia arriskuan jartzeko moduko gezurrik esango duenik. Horrelaxe doaz bide guztian, aitona zaharra hamar bat metro aurretik dutela. Herrira baino lehentxeago baserri bat dago atea eta leihoak itxita. Atariko lixibak, ordea, susmo txarra eman dio Ezeizari: “Etxea hutsik eta garbitutako arropak atarian lehortzen, alanbretik esekita?”. Hala ere, aurrera, isil-isilik baitago herri gutzia.

Pedro Agirrezabalagoeaskoa atea zabalik zeukan lehenengo etxean sartu da. Txepetxaren habia bezala, bi zuloa da etxea. Aurreko atetik sartu den Pedrok atzeko atetik ihes egin du. Zirrikitu, zulo eta bazter guztietatik tiro-zaparrada hasi denean, alferrik sartu da Pedroren bila *Sicilia* batailoiko kapitaina. Soldadu gehienek, berriz, estratara egin dute jauzi, babesteko. Beste batzuk, etxe baten atzean gorde dira. Burua agertu orduko, ordea, gainean dute metrailadorearen eraso. Nola atera zulo hartatik?

–Mutilak, hemendik atera azkar eta su eta gar ekin
–egin du oihu sarjentuak.

Pinudian gora dator Molaren beste konpainia, *Siciliari* laguntzera. Baina gudariak bota duten kainonazoak soldadu asko hil ditu, mandoaz gainera. Hantxe galdu du Martin Ezeizak ere bere hanka betiko. Eta Batistak barruan izango du bizitza osoan harra: “Neuk moztuko nion hanka anaiari”.

Eta bazuen horretarako arrazoirik, su batean aritu baitzen Batista hil ala biziko borroka hartan.

Itxarkundia, nahiz eta *Sicilia* baino ahulagoa izan, kalte gutxirekin suertatu zen egun hartan, Joxinixio Etxeberriaren azkarkeriari eta Pedro Agirrezabalagoeaskoaren balentriari esker. Felipe Lizasoren eta lagunuen eskerrik eta igurtzirik jaso zuten biek ere, esker onez.



Itxarkundia batalloia.
© Sabino Arana Fundazioa

X

Ondorengo egunetan ez da tirorik egin. Hildakoak lurperatzen eta zaurituak sendatzen aski lan badute bi aldeetan ere. Atsedena ere beharrezkoa dute halako borrokaldiaren ondoren. Eta konpainiak berrosatu behar dira.

Eguna egunkaria irakurtzen hasi da Joxinixio: “Biar, VI Aberri Eguna dogu. Urian eta mendian, kalean eta guda-oñetan, asmo bat, gogo bat, biotz bat euzko abertzale guztiak. Sinismen biziz, askatasun egarriz, itxaropen jarrioz ospatu dagigun”, dakar lehen orrian hizki larriz. Ttikian, berriz, batean eta bestean zer ospakizun izango diren adierazten da. Besteak beste, Bilbon, larunbat, igande eta astelehenez emango den *Amaya* iragartzen da.

Eguna ezkerretik eskuinera eta goitik behera irakurri duenean, Joxinixiok bertsoak jartzeari ekin dio. Bermeoko jaiak ditu kanta-gai.

San Jose egunian
Bermeo erriyan
jai aundiyak ziraden,
ederrak agiyan.
Goizetikan asi ta
atsalde guziyan,
orrelakorik ez da
izan aspaldiyan.

Bigarren Lagundia
Itxarkundiakua,
zernai gauz egiteko
bildur gabekua.
Jai ori izandu da
guk antolatua,
igarotzeagatik
egun bat bapua.

Goizian goizetikan
euzko eresiya,
txokoak alaitzeko
zan garaiz asiya.
Bildurik San Andresko
talde bereziya,
laguntzen egin digu
al duen guziya.

Bigarren Lagundiko
ikurrin berriya,
gurutze zuriyakin
orlei da gorriya.
Onespentzeagatik
bezela jarriya,
lengo eguneko jai
goguangarriya.

Bederatzik onduan
giñan mezetara,
amarrak inguruan
andikan atera.
Gero txirringarriyak
zuten irteera,
milla laun batzokiko
sarrera atera.

Au bukatu ondoren
urdalleko gaya,
emakumeen gain
ei zan bazkariya:
lapikokua nasai,
arra ta aragiya.
Guziyetatik bazan
ugari jakiya.

Irurak alderako
bere alderdiyak
beterikan zeduzkan
antzerkitegiyak.
Kendu al izateko
alkarri nagiyak,
astekuak bait ziran
ukabilkariyak.

Au bukatu zanean
soñu eta dantza,
geienak agertuaz
euskaldunen antza.
Jolas garbietan bai
euki daigun gatza.
Oitura ona beti
erriyen ardatza.

Aberriyan aldeko
lantegi etsiyan,
bermeotar asko il
ain aldi gutxiyan.
Begozela zeruan
iraunde guztiyan.
Sendikoak dabilta
illunez jantziyan.

Itsasuan galdurik
sendiko lagunak,
gertatu diralako
olako egunak.
Errukarri daude gaur
aur txiki kuttunak
ta senarrik gabeko
ama alargunak.

Itxarkundiako gudariak, atsedenaldiari esker, Bermeon suertatu ziren San Jose egunez. Eta, gerrateko arriskuak eta tristurak alde batera utzirik, gogotik saiatu ziren festa jartzen eta egiten. Etxeberriak, behintzat, oso ondo pasatu zuela dirudi. Hala ere, hilak, umezurtzak eta alargunak ditu gogoan. Hain zuzen, bertsolari-txapelketako bertsoaren bukaerako burubide berdinarekin amaitzen du bertso saila. Eta *Etxeberria* izenpeturik *Eguna* egunkarira bidaltzen ditu.

Bertsoak idatzi bezain azkar, Igorreko herriko tabernara abiatu dira Joxinixio eta Iñaki. Urrutitik ohartu dira txerria hil berria dutela. Ileak erretzeko egiten den suaren aztarnak atarian daude oraindik. Ile eta axal erreak eta garbitzeko erabiltzen den ur beroak usain nabarmena uzten dute. Sanmartinetan hildako txerriaren azken urdaiazpikoa dago tabernan zintzilik. Hezurak bistaratzen hasia dago. Baina badauka mamirik; itxura onekoa, gainera. Eta Joxinixiok eta Iñakik huraxe eskatu dute arrautza parearekin eta hiru txikiko botila ardoarekin.

Lau gizaseme ari dira musean tabernako txoko batean, gibela jan ondoren: bertako ugazaba, txerri-hiltzailea eta bi eusleak. Indarra behar zen hamalau arroako txerramari eusteko, eta ezagueratik baino hobeto zeuden indarretik Jeronimo eta Donato. Jeronimo, gainera, hantustea ere bada. Bertako nagusia, Joxe, du lagun. Eta galduta ere axola handirik ez dionez, tabernaria baitu lagun, badarabil Jeronimok zarata eta erronka. Zuhurrago ari dira Nikolas txerri-hiltzailea eta Donato. Orduan eta harroago Jeronimo:

–Gure etxean ontzako urreak adina! –jo du txikira.

–Paso, esan nahiko huen, ezta? –erantzun dio Nikolasek.

Hango algarak eta gur-gurrak, ondo baitzekiten Jeronimoren etxean txokolate-ontzak ere urri zirela. Halako ardaila entzunik, sukaldean txerri-lanak egiten ari ziren

emakumeak ere odolosteak lapikoetan egosten utzi eta tabernara etorri dira, Jeronimok zer aldrebeskeria esan duen jakitera.

Joxinixio eta Iñaki ere barrez lehertzen daude, entzun baitute txerri-hiltzaileak Jeronimori eman dion erantzuna. Aspaldian ez zuten hainbeste barre egin. Huraxe, gerraren erdi-erdian, benetako txarriboda. Une festagarri hartan, *Saseta* taldeko batzuk heldu dira. Laster ezagutu ditu Jesus Peñak bi bertsolariak, 1935eko eta 1936ko bertsolari-txapelketetatik ezagunak baitzituen.

–Nor haiz, ba, hi? –galdetu diote harriturik, batera, Joxinixiok eta Iñakik, ez baitakite *Eguna* eta *Euzkadi* egunkarietan eta *Argia* astekarian “Aitza” izengoitiz idazten duen hura Jesus Peña denik.

Eta, ordurako taberna zertxobait baretu denez, Basarrik *Eguna* egunkarian eskainitako bertso bat kantatzen die.

Gure “Aitza” jatorrak
zer berri dakazki?
Lengoan irakurriko
zenioten, noski:
mando bat ingura zaie
patata ta guzti;
azitarako asko
ez dezute utzi;
arrane pikaruak,
etzaudete gaizki.

Goseak dauden soldaduengana ez da noiznahi azaltzen mando bat zakua bete patataz. Eta horren berri emana zuen *Eguna* egunkarian Aitza kazetariak. Eta Basarrii grazia egin, jakina.

Santanderren soldaduska egiten ari zela sortu zen gerra. Baina etxean zegoen Aitza. Izan ere, militarren matxi-

nadaren beldurrez, soldaduak etxera bidali zituen Manuel Azaña Espainiako presidentek. Eta faxistek Aretxabaleta hartzeaz zutela, gudari joan zen Jesus, *Saseta* konpainiarekin. Frankistek batzokia arakatu orduko, hango zerrendan aurkitu zuten Peña. Hori aski zen sententzia jasotzeko:

–Ez da hemen gehiago oinez sartuko.

Ezta sartu ere. Gerrako zauriak sendatzeko zegoen ospitaletik hartu eta hil egingo dute, bere herria maitatzea eta euskaraz idaztea beste bekaturik egin ez duen Aitza berriemailea.

Gerran dabilela badu halako lasaitasun bat: ez duela, alegia, bere anaia Joxeren kontra tirorik egingo, Asturias aldean baitzebilan gerran, *Regimiento América 23*an. Eta Jesus Santanderko ospitaletik desagertu eta egun batzuetara hil zen Joxe, Llanesen. Apaizak ez zion gudariari hiletarik egin nahi. Baina irmoa zen amaren erabakia:

–Biei ala inori ez!

Amore eman behar izan duen abadea ez da, hala ere, mendekurik egin gabe geratu. Joxeren hiletak 34 pezeta, eta Jesusenak 75,50 kobratu baitizkio ama gaixoari. Baina amak, bere samin eta suminen artean, barruko bake handia sumatzen du:

–Ez dute, behintzat, bi anaiok elkar hil; eta bieie egin zaizkie hiletak, gainera.

Ez da, jakina, fusilatutako euskal idazle bakarra. Ezagunenak Esteban Urkiaga “Lauaxeta”, Jose Maria Azkarraga “Lurgorri”, Joxe Markiegi eta Jose Ariztimuño “Aitzol” badira ere, zerrenda asko luza daiteke, noski. Joxinixiori, jakina, Aitzolek egin zion zirrararik handiena. Hain zuen etxekoa eta hain zuen miretsia bertsozolaritza eta euskalgin-tza indartzen hainbeste lan egin zuen apaiza!

Joxinixiok, Iñakik eta Aitzak badute elkarri zeresanik. Bakoitzak bere herrikoak, lehenengo. Izugarriak egin baituzte faxistek haien herrietan: Andoainen, Urnietan eta Aretxabaletan, alegia. Baina gerrako pasadizoak dituzte gogokenak. Ubidean, Urbinan, Elosun, Olleriasen, Nafarraten eta Legution egindako borrokaldiak, jasandako larrialdiak eta gertatutako pasadizoak eta barregarrikeriak. Diman etsaiari, Pedro Agirrezabalagogeaskoari esker, jarritako tranpa, batez ere.

Joxinixiok, batetik bestera espioitzan hainbeste ibili ondoren, errainuan ere ezagutzen du etsaia. Erreketeeek, gorria, noski, baina euskaldun txapela erabiltzen dute; falangistek, gorroa, txintxilikario edo txintxarri tiki batekin; militarrek ere gorroa, baina txintxarririk gabea.

Eta algaraz kontatu zuen Alkainek lotan zegoen erreketeari egin zion azioa. Guardian dagoen edozein penatzen du logaleak, baita arriskurik handienez ere. Eta hor ikusi du Alkainek guardian zegoen erreketea seko lo. Zer ondorio izan zitzakeen bi aldiz pentsatu gabe, hor kentzen dio fusila eskuetatik.

–Hi haizelako bihar fusilatu egingo diate hori –egin zion errita Joxinixiok.

–Hori duk militarren arteko legea, baina hori bere borrodatez etorri den erreketea izango duk eta ez diate hilko –zuritu zuen Iñakik bere burua.

Orduak azkar joan dira gaur. Lasaitu ederrik ere hartu dute, elkarri beren nahigabeak eta kezkek azalduz. Euskadiren alde borrokari jarraitzeko asmo sendoz abiatu dira bakoitza bere konpainiara, berandutu baino lehen. Joxinixiok eta Iñakik askatasun handia dute beren eginkizunean, jakina, baina ez Felipe Lizasoren berririk gabe. Eta beren komandante hau onean ona eta gozoa bezain zuzen-

na eta zakarra da okerrean dabilenarekin. Eta kezkatu da Merdillei, Lizasorengana joateko abisua hartu duenean.

Etsi-etsian jarri da Joxinixio: “badiagu errieta gogorren bat”. Bai zera! *Eguna* eta *Euzkadi* egunkariekin batera ekarri duten gutuna eman dio. Ezin du sinetsi. Usamendiko Iñaxirena da. “Euzko Jaurларitza, Hotel Carlton, Itxarkundia, Joxinixio Etxeberria” dio kartazalean. 1936ko urriaren 29an idatzia dago.

Joxinixio laguna:

Ez dakit karta au sekula iritxiko dan zure eskuetara. Baiña ezin naiz idatzi gabe egon. Ez dakizu aurtengo Sañistebanetan kanpoan izana zer pena dedan. Badakit zu ere ibili ziñala nun ote nintzan galdezka. Donostiara etorria nintzan, gaixo xamar zebilen izeba Kontxexiri laguntzera. Geroztik emen nago, Andoaina itzultzeko bildurrez, izebak ere Donostian seguruago nagola esaten baitit.

Etxean danak ondo dira. Baiña badakizu Andoainen eta beste erri askotan nolako goraberak izan diran. Badakizkizu, noski, eta, badaezpada ere, ez dizkizut berrituko.

Badakizu, nere izeba karlista aldekoa dala. Baiña don Joakin Bermejo txanburua oso artua du eta Asilo San Josera joan giñan atzo bixitara, ortarako baimena aurrez eskuraturik. Karlista izateak asko balio du. Asko poztu zan don Joakin nere izeba ikusi zunean. Pozarengatik edo aurreko egunetan pasa zituanengatik, negarrari eman zion don Joakinek, ume baten antzera.

Urriaren 24an sartu zuten Ondarretako espetxean eta bertan igaro zitun iru egunetan sekulakoak ikusi omen zitun. Gabean noiznai ateratzen omen zituzten presoak “ibilalditxo” bat egitera; ormaren kontra bi tiro emateko, jakiña. Apaizak “aske” uzten omen zituzten, Ernaniko kanposantuko ormaren kontra il eta zuloan

sartzeko. Aitzoli egindakoak ikaragarriak izan omen ziran berari preso batek kontatu zionez. Txiki-txiki egin omen zuten joka. Dena odoldua eta zutik egoteko gauza ez zalako, besotik elduta atera omen zuten. Ez omen zan karraxi egiteko ere gauza. Alako intziri ttiki eta aul bat besterik ez omen zun egiten. Don Joakin espetxeratu zuten gabean, beste iru apaiz ere eraman omen zituzten Ernaniko kanposantura. Gela zikin eta estuan, ez alki eta ez komun, berarekin egon ziran beste biak, berriz, don Joakin San Jose asilora aldatu ondoren afusilatu omen zituzten. Baiña ez naiz zer izen zuten gogoratzen. Nere izebari ere don Alejandro Mendikute-ren izena bakarrik geratu zitzaion gogoan, gaztea zala Andoainen egona zalako.

Don Joakin Ernaniko udaletxean idazkari dan anaia karlistak atera omen zun bizirik eta San Jose asilora ekarri. Gure txanburuak kontatu dizkigun kontuakin erabat ikaratuta eta kupituta geratu gera izeba eta biok. Nere izebak etzun siñistu nai Jainkoaren eta erlijioaren alde gerra sortu zutenak orrelakoak ziranik.

Asko lasaitu zan don Joakin nere izebak, arretaz eta ezertan kontra egin gabe, kontu guztiak entzun zizkiolako. Eta nik, konfiantzako giro artan, mesede bat eskatu nion: “Merdilleiko Joxinixiori nola bialduko nioke karta bat?”. Bere anaia karlista saltsa geiagotan sartuko zanik ez zun uste. “Ara, Irunen erretore dagon don David Esnal andoaindarra ezagutzen dezu zuk, Kontxexi. Badakizu orain agintzen dutenekin artu-eman onak ditula. Zergatik ez diozu berari ematen zure ilobaren karta? Ez balu don Joxemiel Barandiaranekin, Pio Montoiarekin, Alberto Onaindiarekin edo Alberto Mitxelena irundarrarekin edo emengo nazionalistaren batekin topo egin nai, aski luke Hendaiako erretoreari ematea. Arek egingo du Bilbora irixteko modua”.

Karta au iristen bazaizu, Joxinixio, badakizu nundik barrena bidaldua dan. Ondo izango zeralakoan eta zure bizimodu gogor eta arriskutsu ortan pozbide izango zaizulakoan idatzi dizut. Ez dizut gure izebaren zuzenbiderik jartzen, gudari batekin artu-emanak ditugula jakitea arriskutsua baita. Ez dakit onezkeronerekin gogoratuko zeran. Baiña pozik artuko nituzke zure berriak. Idazten badidazu, nik erabili dedan bide berbera erabili bidaltzeko.

Asko gogoratzen naiz zurekin, Joxinixio. Gerra zital au bukatu eta zurekin topo egiteko irrikitzen nago. Zaindu ondo zure burua. Ez alperrik arriskatu zure bizia.

Usamendiko zure lagun

Iñaxi.

Behin eta berriz irakurri du Joxinixiok Iñaxiren gutuna. Berri tristeak. Hala ere, maite duen neskaren gutunak zorutzen utzi du. Patrikan gorde du, txolarteetan behin eta berriz irakurtzeko.

Bukatu da, ordea, oraingo atsedenaldia. Arangio mendi aldera joateko agindua dute, *Rusia* batailoari laguntzera, Otxandio eta Durango txikituak dituen etsaiari eustera. Hegazkinen beldurrez doaz. Egun hodeitsua eta euritsua da. Horri eskerrak, ez dute goitik erasorik izan.

Pagotxikin jarri da *Loiola*; Santa Kutz gainean, *Itxarkundia*. Goi hartatik bista ederrak daude, denbora-pasa igo denarentzat: Aralar, Ernio, Aizkorri, Kurutzaberri, Anboto, Udala, Gorbeia; behean, Aramaio; beste aldera, Otxandio eta Gasteiz. Baina gerran bista ederrei baino gehiago begiratu behar zaie arerioaren balei eta bonbei.

Egun honetan, areago. Oinezkoak eta zaldizkoak ez ezik, artilleria guztia ere han dator. Harro etorri ere, gudariak baino indartsuago direlako: oinezko soldaduetan, bateko bi; artillerian, bateko sei, eta hegazkinetan, bateko

hamar gehiago. Indartsu eta harro datoz. Gainera, eraso-erantzunik ere gabe. Bertara arte geldirik egotea erabaki baitute gudariak. Eta ustekabeko eraso hartan soldadu pila jausi da.

Baina gerra-hegazkinak erasoan hasi direnean dira kontuak. Goitik halako laguntza duen eta armaz, soldaduz eta baliabidez indartsuagoa den ejertzitoari ez dago eusterik. Lehendik ere, etsi samarra zebilen Joxinixio Etxeberria.

–Etsaia non dagoen eta zer arma eta indar dituen zelan alfer samarrik gabiltzak, hegazkinik ez badugu. Madrildik hitz onak: “laster izango dituzue”. Baina gezurra. Horrela jai zeukaagu –hasia zegoen marmarrean, zauritutako Felipe Lizaso komandantea zekartela.

Hala ere, etsaia Olaetan geratu da lotarako, Joxinixio ederki ohartu denez, gaueko bere espioitza horretan. Bere ustez, badute, beraz, Urkiolan gotortzeko astirik. Lo-saioa egin ondoren, harantz doaz gudariak. Eguraldia ere lagun dute. Oso lainotsua eta itsua agertu denez, hegazkinek ez dute lanik egiterik. Eta han daude etsaiaren zain, erasotzeko prest.

Talde bat mendiaren beste hegalaria ere igaro da, esku-bomba batzuekin. Taldean, Etxeberria eta Alkainekin batera, Alejandro Lizaso txistulari famatua, *Eusko gudariak* kantua egilea eta Feliperen anaia. Aurrena azaltzen diren faxistei erasotzeko eta gudari lagunak erne jartzeko aurreratu dira mendiaren beste hegira. Ordurako, ordea, harkaitz arteetan bazeuden gordetako mairu eta faxistak. Baita tiroka ekin ere beren zuloetatik. Gudariak bonbak botatzen hasi direnean ihes egin badute ere, zerraldo utzi dute Alejandro Lizaso errenteriar txistularia. Andoaingo Elizondo kamilero bizkorak jaso du gorpua. Ez denbora askorako, bomba batek seko utzi baitu bera ere.

XI

Noraezean, ihes egin du Iñaki Alkainek. Patuak etsaiaren atzamarretara eraman du. Tanke bat datorkio aurrez aurre. Harrigarria. Ez dio tirorik botatzen. Tankea aurrera joan da, ikusi ez balu bezala. Atzeko kamioitzarrekoek hartu eta zaku patata bailitzan barrura botatzen dute. Bukatu da Iñakiren gudaritza. Bizia barkatzen badiote ere, Franco-ren aldekoekin egin beharko du gerra hemendik aurrera.

Harriturik dago tankeko soldaduaren jarrerarekin. “Zergatik ez dit tira?”, ezin du burutazio hori kendu, ezta lo dagoenean ere. Guadalajara, Madril, Cuenca, Valentzia, Alakante eta abarretan egin beharko du gerra. Baina, lehenengo, Aragoi eta Katalunia aldean. Zegoen lekuan zegoela, inon bertso zaharrik zekienik edo berririk asmatzen zuenik baldin bazen, laster hasiko zen bertsoan Alkain. Eta halaxe ari zen Lleidako taberna batean ere, egun hunkigarri hartan. Atzetik, lepotik heldu eta:

–Bizi al haiz, Iñaki? –ekiten dio tabernara sartu berri batek.

Gerrak alde banatara sakabanatu bazituen ere, herri-tarrak eta lagunak dira biak. Hura besarkada bi urnietar hauena. Jose Joakin Albizuk ez zuen uste Iñaki bizirik utziko zutenik, gudari-jantziekin harrapatu baitzuten eta, herrira galdezka hasi balira, bazekien zer-nolako infor-meak jasoko zituzten militarrek.

Izan ere, besteak beste, bere hiru arrebari moztu zieten buruko ilea hondo-hondotik, mendekuz. Berarekin batera, CNTkoen erasoetatik karlistak eta babesten ibili ziren bar-kaiztegitarrak, aita eta bi seme ere fusilatuak zituzten. Baita bidean aurkitu zituzten beste hiruzpalau gazte ere. Horregatik harritu da Jose Joakin, Iñaki bizirik ikusi duenean:

–Sinesteak ere lan dik.

Tanke gaineko soldadu hark “zergatik ez dit tira?” burutik kentzen ez duen galdera eta misterioa bada ere, Iñaki ez du Jose Joakinen besarkada beroak eta harridura susmagarriak ezertaz ohartarazten. Ezta:

–Urkiola gain hartan ondo ibili al hintzen? –galdetzen dionean ere.

Iñakik badaki gaizki ibili zela, ardi galdua bezala, noraezan. Ez daki nola bizirik geratu zen ere, Alejandro Lizaso eta Elizondo hil zituen bonba hain ondoan lehertuta. Eta ez daki etsaiaren tanke artean zergatik utzi zuten bizirik. Eta ez daki Jose Joakinek zergatik galdetu dion Urkiolakoa.

–Zergatik galdetzen didak hori? –jakin nahi bailuke.

Bertsolariek ohitura handia dute zeharka-meharka kontuak esateko. Jose Joakin ere bertsolaria da. Argi eta garbi esan gabe ohartzea nahi du Iñaki. Baina alferrik.

–Zergatik galdetuko diat, bada, Iñaki? Urkiola gain hartako aurreneko tankean ni nintzelako, eta atzekoari tirorik ez egiteko agindu niolako.

Aurreneko besarkadak estuak izan badira, oraingoak estuak, luzeak eta bustiak izan dira. Ez direla apartatuko eta negar zotinka isilduko! Lasaitu direnean, Iñakik Azpeitian esan zizkion hitzak gogorarazi dizkio.

Jose Joakin, Azpeitiko bere osaba-izebetara joana egongo zen, segur aski, badaezpada ere. Iñaki, berriz, gudaritzarako asmotan. Eta biek topo plazan. Eta gogoan ditu Jose Joakinek une hartan Iñakik esandakoak:

–Badakik ongi asko Azpeitiko arkupe eta kontzeju azpian nola despeditu ginen, bat alde batera eta bestea bestera. Hik honela esan hidan: “Joxe Joakin, norberak norbere buruarekin agintzeko orduetan gaituk; eta, hik he-

men gelditzea nahi baduk, gelditu hadi. Halaz guztiz ere, gerra honetan elkarren aurrean gertatzen bagara, nik ez diat hiri inolaz ere tirorik tirako. Hik ere niri beste horrenbeste egingo didak, eta kito!". Iñaki, hitz horiek hik esanda sakabanatu gintuan biok Azpeitian, eta hara ostera biok elkarrekin.

Joxinixiok ez du lo asko egin gauean. Ez daki bere espioi lagunari zer gertatu zaion. Ez daki hil badute ere. Edo sasi-bazterren batean ote dago zauriturik? Etsaien esku erori ote? Espioitza-lanak bukatu samarrak dituzte, zeru aldeko eraso bortitza hasi denetik. Ez du horretarako behar. Hainbeste denbora eta gorabehera elkarrekin igaroz gero, senide ere bihurtzen baita laguna. Eta halako lagun mina galtzeak sekulako nahigabea emango lioke.

Pentsatu ere pentsatu du, gau ilunean, Urkiola alde-ara igotzea. Badaki etsaiari erraz egingo liokeela iskintxo. Baina nola aurkitu Iñaki, non eta ez dagoen antsika zokoren batean. Baina minez antsika balego, etsaiak aspaldi eramango zuen gatibu eta, lan hori hartu nahi ez bazuen, tiroz jo eta bertan utzi. "Inozokeria duk hara itzultzea", agindu dio zentzuak.

Burutik ezin kendu badu ere bere lagunaren abelera, gaua, motzena ere, luzea da, eta inoiz baino mira handiagoz gogoratu ditu bere etxeakoak. Nola ote dabilta? Moldatzen ote dira baserriko lanak egiteko? Ezer txarrik gertatu ote zaie? Ama, anaiak, arrebak, banan-banan gogoratzen ditu. Bere gisa hizketan ere egiten die. Eta sekula baino amodio handiagoz buru-bihotzeratu zaio Usamendiko Iñaxi neska lirain apaina, hartu berria baitu hark aspaldi idatzitako gutuna. "Koldar bat izan nauk, kortoa, sekula ez ninduan ezer esatera ausartu. Baina gerra honetatik bizirik ateratzen banaiz, ikusi bezain azkar esango zioat: 'Maite zaitut, Iñaxi, niretzat behar zaitut'".



Itxarkundia batailoia (erdian, Koldo Mitxelena).
Koldo Mitxelena Elissalt funtsa. Gipuzkoako Foru Aldundia

XII

Joxinixiok Bilbora joateko deia du. Lehen ere izana da Hotel Carltonen informazioa emateko. Oraingoan ez daki zertara joan behar duen, etsaiaren kokapena eta indarra bistan baitaude.

Mendiko gudarietara ogiarekin eta janariekin igo den kamioi zaharrean jaitsi da Durangora, trena hartu eta Bilbora joateko. Bidean kontua franko esan dio Timoteo Ezenarro txoferrak. Hizkeran ere bizkaiera-kutsukoa denez, ezagun du mugako gipuzkoarra dela.

–Elgoibartarra naiz. Eibarko sozialisten *Amuategi* baitailoian sartzea baino nahiago izan nuen Bizkaira alde egin –aitortu dio Joxinixiori.

Eta Elgoibarren faxistek egindako sarraskien berri eman dio. Anarkistek ere egin zituzten berenak eta bi. Hauei galga jarri ahal izan zitzaizen Segurtasun Batzordearen bidez. Faxistak, ordea, jaun eta jabe egin ziren.

Gerran dabilena goseak ibili ohi da askotan. Eta onez ez bada txarrez kentzen dizkiete baserritarrei barazkiak, oiloak, txerriak, txahalak eta zernahi. Premia handirik gabe ere bai batzuetan.

–Faxistek horretan ere inork baino erruki gutxiago dute. San Lorenzo bailaran lau behi eta zazpi txahal harrapatu zituzten. San Pedro bailaran, hiru behi eta txahala. San Roke bailaran, lau behi. Baserri batetik kanpoan lehortzen zeuden arropak ere lapurtu zituzten. Etxean zeuden gazteak, berriz, gerrara eraman zituzten.

Timoteok doi-doi ihes egin zuen bere kamioi eta guzti. Baina amarengana, beste etxe askotara bezala, mehatxuka joan zenik izan da. Baita mehatxua baino gehiago izan duenik ere.

–Bertako jende ezaguna ibili da abertzaleen etxeetatik altzariak, jantziak eta pitxiak harrapatzen. Emakume abertzaleak, ilea hondo-hondotik moztuta, burusoildurik, kuartelera eramaten dituzte kalean barrena, barregarri. Isunak, zigorrak, espetxeratzeak... Zer ez dute faxistek egin? Okerrena, ordea, hilketak. Besteak beste, Anjel Osoro euskal idazlea eta don Zelestino abadea, don Alberto Onaindiaren anaia, hil dituzte –hustu dio barrua Timoteok Joxinixiori.

Durango faxisten bonbardaketak txikitua dago. Hustu ere bai. Geltokira doa zuzenean Joxinixio, inon geratu gabe. Trenean sartu eta inori eta ezeri begiratu gabe eseri da hutsik dagoen aulkian. Leihotik begira jarri da, berehalaxe. Berde dago Euskadi. Hostoberrituak daude zuhaitzak eta fruta-arbolak. Eder dator pagotxa. Korte ederreko belarrak ere badaude. Garia ere luzatu da. Loretan daude gereziak. Lore horixkaz eta zuriz jantziak bazterrak.

Oraindik mendira eraman gabeko artaldeak ere ikusten dira larrean. Trenari begira jarri dira belazean dabiltzan behiak. Habiak egiteko belar bila dabilta txoriak, zo-zoak eta birigarroak. Mika lapurra ere azaldu da. Kukua ere azkar ezkutatu da arbola artean.

Trenaren triki-trakak, ordea, ez du urretxindorraren kanturik entzuten uzten. Joxinixiok gustura entzungo lituzke txorien txorrotxioak eta birigarroen txirololiak. Ezin du kukurik ere entzun. Horretan ez du damurik gure bertsolariak. Dirurik gabe entzunez gero, behartsu izaten baita urte guztirako.

Goldean ari dira baserritar batzuk; ganadu-jatenak egiten besteak. Goiburun ez bezala, isilik dabiltzala dirudi, beren behiei eta idiei eztenka. Baina trenaren triki-trakak estaltzen ditu itularien eta itzainen orroak.

Merdilladiren mira sumatu du, bat-batean. Hain ederra da bere sortetxearen inguruko izadi guztiaren esnaera uda-

berrian. Jakina, Andoain ez bezalako ordeka ederra da begien aurrean duen Durango alde hori. Eta Merdilladirekin gogoratzeaz batera, kanpora begiratzeari utzi dio Joxiniokiok. Etxe-minak eta herriminak bere baitara bildu dute.

Eta orduan ikusi du bagoiaren beste muturrean Pepe Ibañezen antzeko gaztea. Orrazkera eta janzkera ez ditu berdinak. Pepe injineruak ezkerrean egiten zuen ilearen artesia. Honek eskuinean dauka. Pepek ez zuen trajerik eta gorbatarik oherako ere kentzen. Honek ez darama txaketarik eta gorbatarik, jertse soil bat baizik. Liburu bat irakurtzen ari da, eta betaurreko beltzen atzean gordetzen diren begiak eta begirada ere ezin zaizkio ikusi.

Hala ere, Pepe Ibañez ote den deritza Joxinixiok. Baina zergatik ez dio begiratzen? Ezagutu ez duelako? Andoaindarrek erraz ezagutzen dute Pepe, etorkin bakarrenetakoa delako. Etorri berriarentzat, ordea, ezezagunak ohi dira bertako guztiak; poliki-poliki, denboraz, ezagutu beharrekoak. Joxinixiok berak ere ez zeukan lehengo distirarik; meharragoa, nekatuagoa eta itxuratxartuagoa zegoen. Bizimodu gogorra da gerrako soldaduarena: bustia eta hotza, sarri; gosea eta nekea, etengabeak; lur gogorra beti, etzaleku; arriskua eta heriotza, beti ondoan.

Joxinixiok ez dio begirik kentzen, Pepe Ibañez den ala ez den seguru jarri nahian. Bururik jaso gabe ari da irakurtzen. Baina orriak oso astiro pasatzen ditu. Bista txarra? Irakurtzen motela? Ala Joxinixio kanpora begira zegoen bitartean nahikoa denbora izan du Merdillei dela ondo jabetzeko?

Boluetan jaitsi da gure gaztea. Eta geltokian ez da Joxinixio zegoen aldera abiatu, alderantzizkora baizik. Merdilleik Atxuriraino jarraitu du, mila burutaziok astindua eta kezkatua.

Pepe Ibañez ez dabil, berez, Joxinixioren atzetik. Bide-nabar eta halabeharrez egiten du topo. Baina bere bila ba-

lebil baino poz handiagoa hartzen du ikusten duen aldiro. Mendekurako aukera on baten zain baitago. Ibañez injineruak Burdinazko Gerrikoaren xehetasunak jakin behar ditu, nola edo hala. Horretarako, berriz, egileak erostea bezalakorik ez.

Aurrena, Pablo Murga injineruen kapitaina erosi du Legution. Eginkizun horrek eramana zen Ubidera. Horregatik egin zuen topo hor espioitzan zebilen Etxeberriarekin. Milioi bat pezetaren truke babes eta gotorlekuen eta arma-fabriken xehetasun guztien paperak eman zizkion Murgak egun hartan Molarentzat. Ibañezek Austriako kontsularen esku jarri zituen. Paper guztiak Molari zeramazkiola, ordea, Ertzaintzak harrapatu du kontsula. Paper haiek Murgak izenpetuak zeudenez, heriotzara zigortu zuten Murga barkaezineko saldukeria egin zuelako. 1936ko azaroaren 14an bete zen sententzia.

Ondoren, Alejandro Goikoetxea injinerua egin zen Burdinazko Gerrikoaren kargu. Baina Jose Antonio Agirre berak emandako eginkizun horretan ez zen oso gogotsu ari: oso astiro eta lardaskan, eta hutsune handiak utziz baizik. Horregatik jaitsi da Ibañez Boluetan, Goikoetxearekin hizketatzeko.

Oraingoan, hala ere, ez du erosten dirurik xahutu beharrik, Murgarentzat bezalaxe maletatxoan milioia prest badauka ere. Dohainik eman dizkio paper guztiak Molarentzat: Burdinazko Gerrikoarenak (erdia ere egin gabe baitzegoen), Legutioko gotorlekuenak, armategienak, fabrikenak eta abar. Dohainik emanda garbiago geratzen da. Eusko Jaurlaritzak behartuta ari zela eta bere gogoz ematen dituela paper guztiak adierazten du horrela. Diruaren truke emango balizkio, bistan utziko luke noren alde borrokan ibilia den eta diruzalekeria hutsez egindako saldukeria zitala besterik ez dela.

XIII

Atzeraka doa Eusko Gudarostea mendirik mendi. Pablo Beldarrain militar komandanteak babes eta gordelekuz hornitu du hiru adarreko Intxorta mendia. Lubaki zaharren atzean berriak eraiki ditu. Eta ibilbide guztietan minak jarri. Baina hegazkinez eraso diete faxistek Tellamendiko lubakietan dauden eusko gudariei. Elgeta gainetik barrena heltzen dira Intxortara hegazkinak. Hala ere, Beldarrainek ezarritako tranpan erori dira, hutsik dauden lubaki zaharrak ari dira txikitzen.

Elgetan ere itsu-itsuan sartu da Molaren artilleria, ehunka granada jaurtiz herrira. Ez da ohartu eusko gudariak arbola artean eta sasiarteetan gorderik daudela beren armekin. Sekulako jipoia eman zieten falangista, erreketek eta mairuei. Zaurituak eta hildakoak utzi eta ihes egin dute, ahal den bezala. Zuzenean ezin duenez, Udalatik ekitea erabaki du Molak. Hortik hartu dute Elorrio erreketek.

Lurretik inguratuak eta hegazkinetatik gupidarik gabe erasanak, odolusten ari da Eusko Gudarostea. Gernika erre eta kiskali zutenetik, batez ere, gero eta etsi handiagoa hartzen ari dira gudariak. Francok ez du euskaldunen hiria birrindu arteko onik.

–Ez da harri bat ere zutik geratuko –mehatxatu du.

Feria-eguna da. Bizibeharrak ez du barkatzen. Ingu-ruetatik-eta jende pila bildu da Gernikara.

Durangon gertatua eskarmentu, babesleku asko egin da herrian. Hala ere, apirilaren 26ko arratsaldeko laurretan elizako kanpaiak dan-dan, dan-dan hasi direnean, inor ez da gerraz oroitu. Kanpaiak hasi bezain azkar, ordea, Heinkel 111 hegazkinak sei bomba eta granada-zaparrada jaurti ditu tren-geltokiaren ondora. Laster azaldu

da bigarrena, are eta beherago. Atertu gabe ari da bere metrailadoreekin alde guztietara tiraka.

Hamabost minutuko geldialdia. Jendea bere gordelekuetatik ateratzen hasi da. Berrero burrunba, Junker 52 trauskil eta astunaren burrunba. Tonaka botatzen ditu bonbak, hegaldi bakoitzean: 25 eta 50 kiloko bonbez gainera, SC-250 izeneko mina-bonbak, orduraino ezagutzen diren handienak. Baita BIE izeneko suzko bonbak ere. Batez beste, 250 kiloko 54 eta 50 kiloko 158 bonba, eta 5.948 suzko bota dituzte. Gainera, S-79 italiarrek 50 kiloko beste 36, espoleta berantiarrekin.

Etxeak eta babeslekuak birrindu dituzte. Izaturik, ihesi abiatu da jendea. Heinkel 151 hegazkin multzoak datoz ia lurra ukituz, beren metrailadoreekin bazter guztiak garbitzeko. Beldurturik, berriro etxe eta babeslekuetara sartu dira. Zoritxarrez, orduantxe hasi da hegazkinen erasorik bortitzena.

Arratsaldeko bostak eta laurden ingurua da. Hirunaka eta dozenaka datoz Heinkel 111 eta Junker 52 hegazkinak, 20 minuturo. Bi ordu eta erdiko eraso jo dute. Aldi berean, aluminioz eta magnesioz gogortutako tubo luzeetatik zaparrada bat bonba su-eragile bota dituzte. Hirurehun bat etxe txikitu, erre eta kiskali dituzte. Suzko bola bat bihurtu da Gernika. Eta dena laino errez estalia. Eta dena, danbarra, garrasia, krakada, zotina. Abereak, hegaztiak, umeak, gazteak eta zaharrak garrasi batean daude. Etxeetako hormek, harriek eta habeek ere negar dagite.

Gernika 7.000 biztanleko herria da, baina une horretan 10.000 ere badaude, Gipuzkoa aldetik eta abarretatik 3.000 bat baitaude aterpeturik. Barrenetik jota ere, 2.000 hildako eta beste mila bat zauritu utzi zituen Francoren erantzukizuneko sarraski hark.

Joseba Zubimendi kazetari eta behinolako komandanteari ez zaio berehalakoan ahaztuko egun hartako suzko enbata. Honela gogoratzen du:

Errigoitiruntz igoka dijoan bidaundiaren eskubi aldean josita, Aizerrota mendiaren sortalde magalean, Joseba Deuna egoitza. Gernika uriko begiratoki eroso, gentza aldian lekaiame etxe asmoan jasoa bazan ere, bukatu baño len guda-eritegi.

Jauregi onetan nintzan eri aspaldixko. Egun go-goangarri artan orrilak 25 zituala, gelaz aldarazi ninduten goizetik; oe bakarreko estu bat ene areto zabalaren truk. Gudoñetatik zaurituak parrastaka bai zetozen eta etxea oro estuegi. Bañan ez uste guda erasoak urbil ziranik: ogei bat aneurkin gutxienez Markina inguruan alderenez zebiltzanak.

Udaberriko egun argi gardena zan; izadi ugaritsu irrikoia, eguzki ditzirakor azpian, eskeintzalle. Ortze ta lur agirian, oro alaitasun; dena irriparre; guzia zorion. Gudaren oial beltzak estaltzen zituan ordea, izadiaren izpiak; kanpoko dirdirak, biotz barrengo itun laño. Ainbeste gazte adin lorekoren eriotzak, orok samintzen ginduan, guziak biotz-illuntzen. Bañan alare arratsaldeko gertaeraren egi latza ain urrun...

Bazkalondoko lo-kuluxka, egazkin alderatze runrunak eten zidan. Eliz ezkilak, binbilin-banbalan, leia biziz, zein geiagoka. Soñu ura ain maiz entzunaz, adiskide zartzat gendun eta iñork jaramon gutxi, bañan, egundo gerta etzana, egun artan seaska ta illobi. Batbatean, nere oetik, izugarrizko dunbotsa entzun nuan eta sallean beste bost. Arnasari eutsita adi-adi; egazkiña, bere eriotz lana amaituta urrundu zitzaigun, urrundu...

Enitzan oetik mugi; egazkin egitekoak amai ziralakoan, atsa lasa, nire onetara nentorrelarik, berriro

run-run otsak alderatzea: lengoa baño biziago, zarata-tsuago ta izkillazkarren tarra-pa-tata kantariak azantz guzien nagusi.

Suagak lertzearen dunbatekoa! Leiar puskak aidean dantzari, aize indarrak ene leioa orpotik atera ta aurreko ate irikiarekin bat, joka, lurrean zati zitzaizkidan. Jaiki ta erdi jantzian, irten nintzan gelatik. Albo-koan, ogei urte doi-doi, musua izara bezin zuri, begiak zabal-zabal gudari beltzaran gaztea.

–Jaiki adi, motel –esan nion–, emen ez gatxeudek ongi. Goazik bera...

–Pakean iltzen ezin utzi! –erantzun ta beste aldera jira zitzaidan.

Bata besteari lagunduaz, buru, beso, belaunetan lotura zurik, eztul ta erren, goitik bera mutil eriak zalapartan.

Gudari batek ikustatzera joandako arrebari onelazion:

–Jainkoagatik aldegin zan, neska. Joari bera, ne-reak egin din eta. An edo emen berdin zaidan. Amari esaion...

Jetxi nintzan ni ere, be-alde ura ez ikusteko obe: Ugaldetar Josu sendagillea, bertako artezkaritzari jarraituz, orok lasaitu alegiñean. Bazuan, ba, naiko lan bere buruarekin ere, bañan... Labadiatar Blas tolosarra bitartean, gizontsu, zauritu baten bizia gorde naiean, eriotzakin borroka. Ugaldetar Miren eta Karmele aizpa gaixozañak, alboan laguntzalle.

Sukalde ondoko janaritegira zuzendu ninduten Abeituatar Edurne eta Garbiñe aizpak. Leku estu artan ogei bat lagun bata bestearen gainka; arek omen zuan sapairik sendoena. Alki bat eskeñi zidaten ta jarri nintzan. Ez luzaroan! Berrero urrutiko run-run soñua

alderatzen; txistu, orru, trumoi, zarata, gero ta indar-
tsuago ta maizago; gain-gañean une batez.

Zanpatekoak gortu bearrean, aize-indarrak ausi du
mendi aldeko atea ta an goaz zabuka elkar naasian!
Azken ordua irudimenean orok, nik ez diot egundo
Jaunari otoitz kartsuagorik egin.

Burrunbotsaren igesteak, bare alditan, ixillaren
utsak bai eder aundi! Mingain zikiñez birauka ausi-
ko zuan zori gaixtoko sinets galduren batek eta otoitz
marmarrean beroak aldamenetik oiartzun.

Onela, berriz ta berriz, illunabarra ortzean nagu-
situ arte. Egundaño gaurik ez da izan maiteago; itza-
laren jaubetzea. Nai uts, bero, bizi; eguzkiaren amaia
opa guziok eta berau beñere baño argiago, odol ixurtze
ikaragarriaren lekuko sorgor.

Aizerrota mendi tontorrean, arrixko ezaupide, iku-
rrin gorria. Uneoro berari so, bare aldietan noiz jatziko
irrikitzen; bañan arratsalde osoan ikurrin gorria maki-
lean tinko.

Noizik-beinka, egazkin zarata urrun, leioetatik be-
gira, ausarki an zebiltzan iru, sei ta bederetzinaka, sa-
llean, kurrilloen egabide. Oiz mendi gañetik Mundaka
ibaiari lotuak, Busturia aldean bira egiñik, Gasteizera
itzuli. Donosti itxasaldetik ere igorri zizkiguten eriotz
zamak; besteekin gurutz egiñaz, goi ta be oro errauste.

Eta bitartean, lekaima gaixoak aldare aurrean otoitz
eta otoitz. Larruzea andereño erizaña, jetxi-eziñean gel-
di ziran zaurituei ur-emale atsegin, ezti.

Arratsalde erdira, eskuin aldeko etxe eder berri ba-
tek tellatu gaña, aize biguñez kulunkan, su ta gar ze-
rion. Inguru guzian, lurretik jaioko balira lez, sutarazle
agak, argi-txakur jostarien irudi, piztu ta itzal fu-fuka.

Orotan su-txinpart otsak etengabe. Garrezko zelaietan, alegin biziz, zaldi bat iges ero antzo, bat-batean, buruz aurre zabuka, ilda, geldi. Txekor batek itxuan, zuaitza aurrez aurre jota, bertan zerraldo. Ardiak iges, zakurrak zaunka, egaztiak bira biurri...

Aldiz aldiz, banakaren batzuk mendi aldera larri. Egazkiñetatik esku suagaz edo izkillazkarrez jarraiko diete. Berdin zaie aur edo gizon, emakume edo abere. Bizia duan oro berdin: ez du deusik geldi bear zutik.

Noizpait illunabarra iritxi zan; azkeneko egazkiñak, urdin-illun, Donostiruntz jo zuten eta jendetza, begi-larri, musu-zurbil, ille-naasi, arrituta alkarri begira; ezin luzaroan berera biur. Matrail guziak legor, begiak antzu, malko iturriak agor.

Ama gaxoak laxterka ta karraxi: "Nere mutilla, nere mutilla!". Aurtxo aingeruak "ama, ama!" ojuka. Alde orotan naspil ta orru; bañan, arrigarri! Inon negarrik ez.

Laxter asi ziran zaurituak ekartzen, aur elbarriak, beso moztuak zintzilik; xaar gaxoak, ixtarrak kolokan...

Orduko nere gogo bizia, sendiratzea; emazte aurren albora ega nai. Berebillak, andik emendik, eldu ziran. Beraietako batera, emeki-emeki. Ugalde osagillearen seme gazteak, gerri eztuntza biguñean, lagun ziran ta illunak oro estaltze garaian, Bilboruntz abia.

Errigoiti bitzabaleko erpin batean, Lot emaztearen irudi, gure Gernika, Sodoma ta Gomorra berri, ikusmiñez eraginda bira giñan. Ke-mordo beltz astunak zerura bide, begi aurrean; sutontzi ikaragarri, baztargabea an, beian: txinpart gorri-illun margoko su mingain, gar oro-itsez nastuta. Gauaren illuna etenaz, inguru mendi bideetan, sualdiaren errañu, guzia argi. Oroz gaindiko ikuspegi eder, aundi, ikaragarria!

Onela ikusi nuan azken aldiz, eusko seme oren maite kutuna zan Gernika uria. Gure betiko etsai bigurri gaiztoak, arrano beltzen egapean suntsitu nai izan zuten.

Andik laxter sendiratu nintzan. Nere edes-esana, ain egintza zakar, lizun, biotzgea, neork ezin sinetsi. Gau artako nere loa, ameskaitzez, non-nai sua; pizti-mamuak orruka ega zorotan; odol itxasoan ito bear...

Biaramon goizean, oe alboan neukan irratentzukiaren ots-emaleari eragin nion. Donostian nerekin sarritan mintzo-lana oi zuan emaztekoa solasean. Ustekabe: "Gernika ha sido incendiada por los rojo-separatistas en su retirada...".

Ene Jainkoa, aski det, aski. Au ere entzun bear!, eta musua burukoan josita, negar zotiñak ler ziran barrera; ausi malko estuntza iturria.

Eta, geroztik, Gernika erraustearen ikuspegiak baño biaramonean entzundako gezur nardagarriaren zulatze miña zorrotzago.

XIV

Zukurutza eta etsipena sortu ditu Euskadi guztian Gernikako sarraskiak. Erabat jota utzi ditu lehendakaria eta beste agintari guztiak. Hildako eta zauritutako guztien omenez ekitaldi bat antolatu du Jose Antonio Agirrek, Hotel Carltonen, Eusko Jaurlaritzaren egoitzan. Baina, hain hautsia dagoenean, hildakoengatik negar egitea erraza da; bizi direnei eta gudariei itzaropena eta adorea ematea, zaila. Hala ere, sarraskiaren kontrako hitz gogorren ondotik, benazkoak eta beroak izan ziren zuzentasuna eskatzeko eta itzaropena sortzeko hitzak:

–Mundu osoaren aurrean egin nahi dut protesta ozena, irmoa eta sutsua. Zuek, kazetariok eta kontsulen ordezkariok, zuek ikusi duzue zeuon begiz faxista espainolen zerbitzuan diharduten mertzenarioen sarraskirako grina noraino iritsi den. Guztiok epaituko gaituen Jainkoaren eta Historiaren aurrean baiesten dut: gorroto eta ankerkeria itsuz bonbardatu dituzte, Gernikan, ezeren babesik gabeko herritarrak, ihes egin nahi zuten emakume eta umeak ere tiroka erasoz. Errauts bihurtu dute Gernika bera. Gizabidezko munduari galdetzen diot: Gernikako arbolak irudikatzen dituen askatasuna eta demokrazia maitate dituen herri bat suntsi al daiteke? Aterpe bila Bilbora datozen hirurehun mila andrazko eta umeri laguntzeko prest izango direla nazioak espero dut. Gizonezkoentzat ez dugu ezer eskatzen, gure herriaren askatasunaren alde hartu behar ditugun lan eta neke guztiak hartzeko erabaki sendoa baitugu.

Alberto Onaindiaren erresponstuak isildu zituen zotinak eta baretu bihotzak, Jose Antonio lehendakariaren hitz sutsuen ondotik, unetxo baterako bederen. *Requies-*

cant in pace. Basarriren bi bertso hunkigarrik lehertu zitu-
tuen berriro hango bihotzak.

Pitxirik goxo ta kuttunena
zu ziñan euskaldunentzat,
lur mardul ona eman baitzendun
arbola santuarentzat.
Pentsatu utsez begiak ibai
ditugu negarrarentzat.
Orra zer sari modu zeukaten
etsai ankerrak zuretzat.

Ez da ez alperrikako izan
or ixuri dan odola.
Pentsa oraindik emaitz ederrak
ematekotan dagola.
Euskal gogoa armez ta indarrez
ezin il leike iñola.
Gernika erre digute baiña
zutunik dago arbola.

XV

Jendez betea ikusi du Joxinixiok Bilbo. Frankisten erasoari ihesi joandakoak hantxe pilatu dira. Baita gerran zaurituak ere. Trenetik jaitsi orduko, era guztietako elbarriak ikusi ditu Atxuri ondoko taberna inguruan: alkandoraren beso hutsa patrikan sartutako mainguak, galtza-hanka hutsa gerrian lotutako herrenak, lepotik esekitako besohautsiak, itsaslapurrek bezala begi bat zapiz estalitako betokerrak... Izan ere, han bada, esaten dutenez, tiroka geratzen ez den ehiztari txarraren eskopetaren muturra baino beroagoa den zerbitzaria. Adela du izena. Eta gehiagotarako sosik ez dutenez, huraxe tentatzera joan ohi dira, denbora-pasa, beren ezbeharrak ahazte aldera.

Joxinixiok, Bilbora abiatu zenean, ez zuen asko uste Joan Axuriagerra zain zeukanik. Behin bakarrik ikusia zuen Merdilleik. Hain zuzen ere, Otxandion, Eguberri eguneko meza nagusian. Joan, Bilbon jaioa bada ere, jatorriz otxandiarra baita. Andoaingo sanestebanetan bezalaxe, Bizente Goikoetxearen meza abestu zuten. Halako elizan eta halako organoa lagun eta hainbeste abeslari on, hanka-puntetatik bururainoko zirrara sentitu zuen gorputz guztian Joxinixiok, gerrako leherketa eta ez tandem isilaldi hartan, *“Et in terra pax hominibus bonae voluntatis”* entzun zuenean. Gabon-kantak entzun zituenean, berriz, negarrak irten zion begi bietatik.

Etxeko guztiak biltzen ziren Merdilladin Gabonetan. Ez zen gehiegikeriarik izaten. Ohitura zenez, zurrurutuna (bakailao puskekin egindako zopa), azolioak eta intxaursaltsa. Eta umorea izan ohi zen beste inongo inbidiarik gabea. Hango kantua eta bertsoak. *Olentzero joan zaigu kan-*

tuarekin hasi ohi ziren beti. Bukatu, berriz, mus-saioarekin, beheko suko enborraren ondoan.

Hala ere, Otxandion ezagutu zuen Andoainen ezagutu ez zuen ohitura: erre gabe geratu zen enborra sarrerako atean jarri eta ukuiluko behi eta abere guztiak gainetik pasarazten zituzten, gaitz txarrik harrapa ez zezaten.

Baina 1936ko Gabon haiek, beste familia askotan bezalaxe, tristeak izan ziren Merdilladin, Luzia eta Joxinixio falta baitziren. Eta tristeagoak kanpoan zebilen gudariarentzat. Otxandioko elizan lehertu zen Joxinixioren barrua.

Mezatatik atera orduko, mandeuliak bezala bildu zitzaizkion gudarien buruak Joan Axuriagerrari. Koldo Mitxelenari egin zion agurrik adeitsuena. Teniente zelako baino gehiago oso argia zelako zuen otxandiarrak oso hartua errenteriarra. Joxinixiok urrutitik ikusi zuen Axuriagerra. Urrutitik ere antzeman zion, ordea, gizon serioa, zinezkoa eta erabakikoa zela. Halakoxea zela entzuna zuelako iruditu zitzaion, seguru aski, horrelakoxea zela. Dena den, Otxandion iruditu zitzaion bezain serioa iruditu zaio Carlton hotelaren aurrean ere, inguruan duen gudari-taldearekin oso serio ari baita hizketan.

Orduan jakin du Joxinixiok zertara deitu dioten Bilbora: gudarien arteko giroaren berri jakin nahi du Axuriagerrak. Euskadi galdutzat dauka EAJren buruak. Jose Antonio Agirrek Kataluniara eraman nahi du Eusko Gudarostea. Prieto eta Negrinekin ere hizketatu da Valentzian, Leizaola lagun duela. Baina Errepublikako gobernuari ez zaio euskaldunak eta katalanak elkartze hori oso gustagarri. Eraman ere, Frantziatik barrena eraman beharko lirateke gudariak. Frantsesek, berriz, ez dute ezertan nabarmendu nahi, ez dute Espainiako borrokan sartu nahi. Asturias aldera jarraitzeko, bestalde, zailtasun handiak daude, ha-

rako bidea itxi samarra baitaukate faxistek Santanderko lurretan.

Eusko Gudarostearen buru Jose Antonio Agirre da, jakina. Eta gudaroste horretan gudariez gainera milizianoak ere badaude. EAJren, ANVren, Jagi-Jagiren eta ELAren batailoikoei deitzen zaie gudariak. Errepublikarrenei, sozialistenei eta komunistenei, berriz, milizianoak. Guztira, 72 batailoik osatzen dute Eusko Gudarostea, gudari eta miliziano. Jose Antonio lehendakariak du guztien erantzukizuna, eta ez jeltzaleen 25 batailoiena bakarrik.

Axuriagerra uzkur da Agirreren burubidearekin. Izan dute hizketaldirik eta eztabaidarik ere. Axuriagerrak gudari jeltzaleen berri jakin nahi du. Eta pilatzen ari dira 25 batailo horietako ordezkari eta buru batzuk, Carlton hotelaren aurrean. ELAko Jose Gorroñoitia ere han da. ANVko hiru batailoietatik ez da inor azaldu. Ezta Jagi-Jagiren bietatik ere. Izan ere, Jagi-Jagikoak beste inor baino abertzaleagoak dira, beren ustez. Jose Antonio Agirreri ere garbi utzi nahi izan zioten azaroaren hasieran Gernikara egin zuen agerraldian. Hala hasi zitzaizkion kantari:

No queremos Estatuto
ni tampoco autonomía,
queremos la independencia
que nos robó la Monarquía...

Balentria handia egin zutelakoan geratu ziren. Baina bazekiten lehendakariak ez zuela oldartutako edo matxinatutako inor fusilatzen. Baita kantu hark ez ziela beste gudariei ere minik ematen. Egoera hartan, inozokeria iritzi zioten gudari gehienek.

ANV eta Jagi-Jagi ez beste gudari guztiak hoteleko areto nagusira sartu dira. Jarlekurik ez dutenak bazterreko hormaren kontra geratu dira, zutik. Aurre-aurrean, Joan Axuriagerra. Zutik hau ere:

–Luze eta gogorra ari zaigu jazotzen gerra. Hainbeste hildako, zauritu eta elbarritu, odoluste izugarria izan dugu. Eta ihesbide bakarra geratzen zaigu: Santader aldera. Jose Antonio lehendakariak Kataluniara aldatu nahi du Eusko Gudarostea, Frantziatik barrena. Asturias aldearra jarraitzeko ere prest dago. Ulertzen diot Agirreri, guztien lehendakari baita. Baina ni ez naiz iritzi horretakoa. Gure asabek ere ez zuten Euskal Herriko mugetatik aurrera jotzen. Luiandoko Maloto zuhaitzean geratu ohi ziren. Zuen iritzia jakin nahi nuke –esan die egun onik emateko betarik gabe.

Kantu zaharrak ere halaxe dio:

Odoldurik eldu ginian
Mallatu arbola onetara,
eta urren doazanak bere
alan ikusiko gaitubela.

Kantuak kantu, ohiturak ohitura eta lege zaharrak lege zahar, Pablo Beldarrain komandantea eta beste ofizial eta gudari batzuk aurrera jotzearen alde agertu dira. Beldarrainek itzal handia du gudarietan, Intxortan balentria handia egin baitzuen. Eta ahozabalik entzun diote:

–Euskadiren alde ez ezik, Errepublikaren alde ere hasi ginen gerran. Saldukeriatzat eta koldarkeriatzat hartuko dute gure jokabide hau, bakarrik uzten baditugu. Irabazi edo galdu, bukatu arte jarraitu beharko genuke.

Gerraren hasieratik ibili dira batzuk bake bila. Lerenburu Sarako alkateak lagundurik, Etxalarrera ere etorri ziren Aitzol eta Teodoro Hernandorena. Hanka-joko ederrarekin ihes egin behar izan zuten berriro mugan bestaldera. ANVren sortzaile eta gidari izan zen Anakleto Ortue-ta ere ibili zen. Bere ustez, Madrilen agintzen dutenekin elkartu behar dute abertzaleek. Gerra Francok irabaziko

duenez, horren aldera lerratu behar da, Ortuetaren iritziz. Eusko Jaurlaritzak bertan behera utzarazi zizkion, ordea, karlistekin eta militarren buruekin zituen harremanak.

Azkenik, Cavaletti markesa, Donibane Lohizuneko kontsul italiarra, jarri da harremanetan jeltzaleekin, Jose Horn diputatuaren anaiaren bidez. Baina EAJk ez du lehendakaria horretan nahasterik nahi. Joan Axuriagerra bera arduratuko da, Alberto Onaindiaren bitartekotzaz baliaturik. Hain zuzen, italiar agintariekin izandako harremanen berri eman nahi die bildutakoei.

Isiltasuna nagusitu da. “Zer iritzi duzue?” galderari inork ez dio erantzuten. Koldo Mitxelena ospitale bihurturik den Bilboko Eskolapioetan dago gaixorik, bestela hitz egingo luke. Argia, zorrotza eta Axuriagerraren begikoa baita. Teniente-kargua ere badu, gainera, *Itxarkundia* saillean. “Legutioko erreka harroan igeri banekiela erakutsi nuelako eman zidaten gradu hori”, egin ohi du barre.

Nor ausartu hainbeste jenderen aurrean hizketan? Eta zer esateko? “Hau ez duk bertsoan aritzea”, esan dio bere buruari Joxinixiok. Hala ere, ausartu da zerbait esatera. Izerdi larria ateratzen zaio. Hankek ere plaust egiten diote:

–Jauna –ito zaio eztarrian. Ahuntzaren eztul-antzeko bat egin eta jarraitu du–. Hara, gerra hau galdua dugu. Gu baino askoz ere indartsuagoa da etsaia, soldaduz eta armamentu mota oroz, hegazkinez batez ere. Bizi bagara, laster gara karlisten eta falangisten gatibu. Batzuei bi tiro emango dizkigute –Pepe Ibañez ezin du burutik kendu–; beste batzuek espetxera, edo Errepublikaren kontra egin beharko dute gerra. Baina italianoak ere fidatzekoak al dira, ez al gaituzte salduko?

–Arrazoi duzu, Etxeberria –ekin dio Axuriagerrak–, italiano hauek faxistak eta Francoren lagunak dira, eta ez dira fidagarriak. Baina ez dute abertzaleontzat erreketee,

karlistek eta falangistek diguten gorrotorik. Ez dute gurekin ezeren gorabeherarik izan. Diru-truk gerrara etorri diren mertzenarioak dira gehienak. Ez dute gure kontra mendekua egiteko arrazoirik. Ez dirudi frankistak bezain ankerrak eta basak izango liratekeenik.

Pablo Beldarrain ez dago ados:

–Xano-xano frankisten eskuetan jausteko bidea da hori. Italianoek hitza frankistek errespetatuko dutela uste al duzu, Joan? Koldartzat eta xanotzat hartuko gaituzte denek. Nahiago duzue gerra egitea baino lotsagarri gelditzea. Lotsagarri geratuko gara, jakina. Baina gerra ere egin beharko dugu, Francoren alde gainera. Ez gara ez batetik eta ez bestetik libratuko.

Beste gehienek, ordea, nahiz eta Beldarrainek itzal handia izan, arrazoizkoa iritzi diote Axuriagerraren jardunari.

–Baina nolako baldintzetan jarriko ginbateke italiarren esku? –galdetzen dio Joxinixiok.

–*Flechas Negras* izeneko dibisioneko Mancini jenerala lagaz egin dot berba –atera zaio ahopean eta tarrapata bizian, bere Bizkaiko hizkeran.

Nola? –egin du oihu, bat-batean, areto osoak.

Irribarre murriz bat egin du otxandiarrak. Eta astiro eta ondo ahoskatuz hasi da hizketan.

–Italianoen buruekin hitz egin dut. Mancili jeneralarekin batez ere. Gudariok baldintza hauek bete beharko genituzke. Batetik, horko ordena eta Laredo eta Santoñako espetxeetan dauden gatibu politikoen bizitzak eta askatasuna ziurtatuko genituzke. Azkenik, italiarren esku utziko genituzke gure armak Santoñan. Baina, entzun ondo, armak militar italiarren esku uzterakoan, ni neu han izango nauzue, baita EBBko Iñaki Unzueta, Luzio Artetxe, Florentzio Markiegi, Alberdi, Ander Arzelus eta Jesus Solaun ere. Ez

zaituztegu bakarrik utziko. Ondo ateratzen bada, denontzat ederto, eta gaizki ateratzen bada, denontzat txarto.

Itzal handia du Joan Axuriagerrak abertzaleen artean. Badakite emandako hitza beteko duela. Eta bera egun hartan tartean izango dela jakiteak segurantzia handia eman die. Prest daude gudariak, beraz, beren agintariei jarraitzeko. Baina militar italiarren betebeharrak jakin nahi dituzte.

–Lau baldintza bete behar dituzte italianoeak. Lehenengoa, gerran borrokatu diren euskotar guztien bizitzak ziurtatu. Bigarrena, Santoñan eta Santanderren dauden Euskadiko funtzionario eta politiko guztien bizitzak ziurtatu eta atzerrirako irteera baimendu. Orobat, herri hauetan dauden santanderino eta asturiarrena ere. Hirugarrena, Eusko Gudarosteko inor ez behartzea frankistekin gerra egitera. Laugarrena, Euskadiko gobernuari leial agertu zaizkion euskotarren kontra ez erasotzea eta ez mende-katzea.

Ez zitzaien hain desegokia iruditu. Baina italiarrek beteko al dute hitza? Hor koxka. Dena den, Joan Axuriagerrak esandakoa beste lagunei zehatz adieraztekotan atera dira Carlton hoteletik.

Joxinixio Etxeberriak bazuen, lehendik ere, espioitzako lanei eta gorabeherei esker, gudarien artean sona pixka bat. Argia, ausarta eta trebea zela esan ohi zen. Baina gaurko bileran harriturik utzi ditu denak. Baserriko bertsolari hark baduela gidari on bat izateko gaia, jabetu dira.

XVI

Bilbora atzeratzen ari da Eusko Gudarostea, Burdinazko Gerrikoaren babesera. Junker 86, Junker 52, Heinkel 111, Dornier 17, Heinkel 51, Heinkel 45 eta Savoia 81 hegazkinen erasoari Urkulu mendian eutsiko dionik ez da. Hurrengo egunean, ekainaren 12an, Gaztelumendiri eraso diote bonbardaketako 70 hiru motordunek, 50 ehiza-hegazkinek eta artilleriako 100 tresnak.

Erreketek, karlista, falangista eta militarrek hartutako Artxanda nahi du berreskuratu Jose Antonio Agirrek, faxisten gerraontziek itsasoko irteerak eta sarrerak itxita dauzkan Bilbo babestearren. *Itxasalde*, *Kirikiño* eta *Itxarkundia* batailoiak bidali ditu lehendakariak, ekainaren 16an. Begoñako Amabirjinaren elizan nahi dute gudari askok meza entzun eta Jauna hartu.

Gorakoan, Atxuriko tren-geltoki aurrean Pepe Ibañez ikusi du Joxinixiok. Oraingoan ez dio ez ikusirik egin. Badaki-eta Merdilladin zertan izan zen itxura ederreko zuri ustel hori. Oraingoan, begirada zorrotza bota dio, jakin dezan badakiela bere ibileren berri.

Joxinixio ez zen errezo luzeen zale, “azkenerako ahaztu egiten baita bat zertan ari den”. Baina benetakoa izan ohi zen Merdilleik egiten zuen otoitza. Goiz hartan Begoñako Amari egin diona, ordea, aparta izan da. Bizirik suertatzen bada, ez dio bere maitea utziko duenik agindu. Ez dio, bere anaia Praixku bezala, Txinara misiolari joango denik ere promes egin. Baina zinez agindu dio Iñaxirekin inoiz seme-alabarik izaten badu, Jainkoak hala nahi balu, lagunduko dietela Elizaren eta Jaunaren zerbitzurako beren bizitzak eskaini ditzaten. Negar-malkotan esan dio “zuri dieez gaude antsiz eta negarrez negar-herri honetan”. Jau-

na hartu duenean ere, inoiz ez bezalako hizketaldia izan du Jesusekin. Fede osoz eskatu dio, itsaso harroak behinola ia irentsirik zituen apostoluek bezala: “Salba gaitzazu, Jauna”.

Gosaltzeko garaiaz baliaturik, Begoñako elizaren harmailetan eserita, Usamendiko Iñaxiri lau lerro idazten hasi da Joxinixio.

Iñaxi maitea:

Artu nun zure karta noizpait. Ez dakizu nolako poza eman zenidan. Tristeza zan karta bera, gerra negargarria baita, baiña zu nerekin ez zerala aztu jakiteak zoriontsu egin nindun. Inoiz ez naiz ain zoriontsu izan. Gerrako infernuaren erdian ere zeruan nengola iruditzen zitzaidan.

Une larrian idazten dizut, Iñaxi. Artxanda mendira igo aurretik idazten dizut, maitea. Etsai indartsuak beetik eta goitik astinduko gaitu, bere bala eta bonbekin. Tanke eta ametralladorez eraso ikaragarria izango da. Egazkiñetatik botako dituzten suzko bonbak, berriz, bazter guztiak dituzte txikituko eta kiskaliko.

Ez det etsi. Bizirik aterako naizela uste det. Neregatik baiño geiago zuregatik nai det bizi. Iltzeko ere kontzientzia garbiarekin nago. Badakit Jainko Aitak eta Merdilleiko aitak besoak zabalik hartuko nautela. Baiña zu maitatzeko eta zorioneko egiteko nai det bizi. Eta biziko naiz. Badet uste on.

Nere ustea ustel gertako balitz, Iñaxi, jakin zazu maite zaitudala. Ori orain arte sekula ez esana bakarrik det damu. Jakin zazu, zure kartak sekula izan dedan unerik zoriontsuena eman zidala. Jakin zazu, naitzen tokian naizela, beti maiteko zaitudala. Eta maiteko zaitudalako, alabearrez nik ezin emango nizkizukeen zoriona eta seme-alabak nik baiño ere areago maite zaitun beste batek ematea naiko dedala. Jakin zazu,

azkenik, Euzkadiren, euskararen eta askatasunaren alde egin dedala borroka.

Maite zaitun zure Joxinixiok musu aundi bat.

Goizetik laino bazen ere, gudariak Artxandako Kasinoa berreskuratu orduko garbitu zuen zero aldea. Larrean zebiltzan abereek laster sumatu dute hanketan tankeen eta bonben dardara. Bere urduritasunean, arrantza egin duen astorik eta irrintzi egin duen behorrik izan da. Behe-beheetik, ikusmiran azaldu den hegazkin zelataria agertu denean, berriz, ipurtsaltoka eta laukoan ezkutatu dira; batzuk ukuilura, besteak bordara, eta ez ukuilu eta ez borda zeudenak, arbolapera eta harkaizpera. Aztorapen hartan marru, arrantza eta irrintzi dagite. Ardiak bakarrik daude isilik, bata bestearen tripapean burua ezkutatuta.

XVII

Artxandak dardar egiten du, hemen ezagutzen den lurrikararik handiengan baino zakarrago. “Azken juizioa”, bururatu zaio Joxinixiori. Hango burrunba, hango hauts harrotzea, hango suteak; metak ez badira, zuhaitzak, otadiak, bordak! Ke beltz eta hautsez estali da oraintxe gain guztia. Lubakiak eta gordelekuak hildakoz eta zaurituz bete dira. Gudari asko ihesi abiatu da. Joxinixioren lagunek Mungiako tunelera jo dute, amilka eta itzulipurdika, ahal duten moduan.

–Koldarrak! –egin die garrasi Joxinixiok ihesi abiatu diren bere lagunei.

–Goazemak, Merdillei, hor ez zegok eskapurik. Ez diagu hil behar.

Alferrik. Joxinixiok lotsagarri deritza ihes egiteari.

–Koldarrak! –hots egiten die berriro.

Eta, nahiz eta berak bala baten harramazka nabarmena izan aurpegian, ez du atzera egingo.

–Gora Euskadi Askatuta! –oihu larria egin eta han doa goiko kaskoan tiratzailerik gabe geratu den metrailadorea-gana.

Han ari da, tira eta tira. Berdin zaio aurretik tankea azaldu edo goitik hegazkinak eraso. Ez du atzetik inor batorren begiratzeko astirik ere.

Eta alferrik da begiratzea. Joxinixiok hartua du sententzia, Ollokiko tuneleko paperak erabaki zuenez. Eta han dator, Praixku anaiaren hitzetan, “auzoko kankailua” sententzia betetzera: baioneta saihetsetik sartu eta seko uztera. Sasta, sartu dio gibeleraino. Borborka dario odola eta bere odol-putzuan geratu da ahuspez. Lekuko inork

ez zuen hiltzaile hura ezagutu. Eta sekula ez da jakingo, etxekeok uste duten bezala, ezagun batek propio hil duen ala ez. Inoiz ez da jakingo Pepe Ibañezen mendekua izan den ala ez.

Artxanda aldean da lurperaturik Euskadiren, euskararen, askatasunaren eta demokraziaren alde bizia jokatu zuen Joxinixio gudaria, Merdillei bertsolaria. Eta inoiz haren hezurak aurkitu eta hilobiratuko balira-edo, anaia jesulagunak bertso hauxe bidali du Txinatik, Joxinixioren oroitarrian ipintzeko:

Liskarzaleak bildu
nein gure artean:
anai maite il zidaten
Artxanda gaiñean.
Ama negarrez eta
Uts-aundi etxean...
Emaztegaiak ez du
aurrik magalean.